

EMOZIOEN LANKETA HAUR HEZKUNTZAN
GRADU AMAIERAKO LANA

2019/2020

ERAKUNDEA: Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

GRADUA: Haur Hezkuntza.

EGILEA: Olaskoaga Uranga, Ainitze.

ZUZENDARIA: Antonio Agirre, Iratxe.

Laburpena

Lan honek hiru helburu nagusi ditu, zeinei marko teorikoa eraikitzeko ikerketa bibliografikoa burutu ondoren ekin zaien: (1) Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzea emozioen lanketaren inguruan (galdetegiak sortu dira, bertan 37 [%100 emakumeak; 25-52 adin tartekoak] irakaslek eta 71 [%94.4 emakume eta %5.6 gizon; 21-27 adin tartekoak] irakaslegaik parte hartu dute; (2) Elkarrizketetan berriz, psikologo eta koordinatzaile batek hartu dute parte), Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa burutzea (Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko programa aztertu da, bost urteko gelako 25 haurren inguruko behaketa erregistroak erabiliz); eta (3) Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena diseinatzea eta aurrera eramatea (Carmelitaseko bost urteko gelan, behaketa erregistroak, egunerokoa nahiz *Emozioak dantzan* tailerra sortu eta aztertu dira). Emaitzei erreparatuz, aipatzekoa da helburu guztiak lortu direla, nahiz eta hasiera batean diseinatutako proposamenean aldaketa batzuk eman behar izan diren ikastetxera moldatzeko. Amaitzeko, emaitzak aztertu ostean, helburu bakoitzari dagozkion ondorioak atera dira, hausnarketa pertsonalarekin eta hobekuntza proposamenekin batera.

Hitz gakoak: GROPeke adimen emozionalaren eredu pentagonalak, Emozioak dantzan tailerra, Hezkuntza Emozionala.

Resumen

Este trabajo tiene tres objetivos principales que se han abordado tras la investigación bibliográfica para la construcción del marco teórico: (1) conocer la opinión del alumnado del grado de Educación Infantil y del profesorado de Educación Infantil sobre el tratamiento de las emociones (se han creado cuestionarios en los que han participado 37 [100% mujeres; 25-52 de edad] profesores y 71 [94.4% mujeres y 5.6% hombres; 21-27 de edad] alumnos; (2) en las entrevistas han participado una psicóloga y una coordinadora), realización del análisis de los programas para trabajar las emociones en Educación Infantil (se ha analizado el programa del colegio Sagrado Corazón Carmelitas, utilizando registros de observación con 25 niños y niñas del aula de cinco años); y (3) diseñar y llevar a cabo la propuesta de trabajar las emociones en el aula de cinco años de Educación Infantil (en el aula de Carmelitas se han creado y analizado los registros de observación, el diario y el taller *Emozioak dantzan*). En cuanto a los resultados, cabe señalar que se han alcanzado todos los objetivos, aunque en la propuesta inicialmente diseñada se han tenido que dar algunas modificaciones para poder adaptarla al centro. Para finalizar, tras analizar los resultados, se han extraído las conclusiones correspondientes a cada uno de los objetivos, junto con la reflexión personal y las propuestas de mejora.

Palabras clave: modelo pentagonal de inteligencia emocional de GROPE, taller Emozioak dantzan, Educación Emocional.

Abstract

This work has three main objectives that have been addressed after the bibliographic research for the construction of the theoretical framework: (1) to know the opinion of the students of the degree of Early Childhood Education and of the teachers of Early Childhood Education on the treatment of emotions (questionnaires have been created in which 37 [100% women; 25-52 age] teachers and 71 [94.4% women and 5.6% men; 21-27 age] students have participated; (2) a psychologist and a coordinator have participated in the interviews), conducting analysis of programs to work on emotions in Early Childhood Education (Sagrado Corazón Carmelitas school's program has been analyzed, using observation records with 25 boys and girls in the five-year-old classroom); and (3) design and carry out the proposal to

work emotions in the classroom of five years of Early Childhood Education (In the Carmelitas classroom the observation records, the diary and the workshop *Emozioak dantzan* have been created and analyzed). As for the results, it should be noted that all the objectives have been achieved, although in the proposal initially designed some modifications have had to be made in order to adapt it to the centre. Finally, after analysing the results, conclusions have been drawn for each of the objectives, together with personal reflection and proposals for improvement.

Keywords: pentagonal model of emotional intelligence of GROPE, workshop *Emozioak dantzan*, Emotional Education.

Aurkibidea

Sarrera	1
Marko teorikoa	2
Jatorria eta bilakaera.....	3
Kontzeptua eta sailkapena.....	4
Emozioak zerk eragiten ditu, nola sortzen dira.....	7
Funtzioak.....	7
Emozioen garapena haurtzaroan.....	8
Adimen emozionala.....	10
Konpetentziak.....	10
Hezkuntza emozionala.....	12
Irakasleen prestakuntza.....	14
Programak Haur Hezkuntzan.....	15
Metodoa	18
Helburuak.....	18
Parte-hartzaileak/Lagina.....	18
Tresnak.....	20
Prozedura eta analisisa.....	22
Emaitzak	22
Ondorioak	34
Lanaren mugak eta hobekuntzarako proposamenak.....	39
Hausnarketa pertsonala.....	40
Erreferentziak	41
Eranskinak	44
1.eranskina.....	44
2.eranskina.....	45
3.eranskina.....	46
4.eranskina.....	47
5.eranskina.....	48
6.eranskina.....	49
7.eranskina.....	50
8.eranskina.....	53
9.eranskina.....	54
10.eranskina.....	57
11.eranskina.....	58
12.eranskina.....	59
13.eranskina.....	60
14.eranskina.....	61
15.eranskina.....	68
16.eranskina.....	97
17.eranskina.....	115
18. eranskina.....	157
19. eranskina.....	183

Sarrera

Haur Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana (GrAL) burutzeko *emozioen lanketa eskolan* gaia hautatu dut, gaur egun emozioen gaia pil-pilean dagoen alorra delako gizartean, batez ere *Koloretako Munstroa* (2012) album ilustratua agertu zenetik. Argitalpen honek, lau haizetara zabaldu zuen ordurarte hain gutxi entzuna zen alor hau, eta honekin batera Hezkuntza Emozional egokia bermatzeko zailtasunak eta zalantzak azaleratu. Gainera, psikologiaren alderditik datorrenez eta alderdi honekiko zaletasuna dudanez, hasieratik interes eta jakin-min handia piztu didan gaia izan da. Hori dela eta, aukera paregabea iruditu zait lehenik eta behin, alor honen inguruko nire ezagutza zabaltzeko zein sakontzeko eta ondoren, behin egungo egoera ezaguturik, hau hobetzeko proposamen bat sortzeko. Beraz, esan beharra dut, lan honek hainbat alderdi aztertzeko aukera ahalbidetu didala, eta ezagutza sakondu ostean neure buruari jarritako hiru helburuak lortzeko eta ikertzeko aukera ere eman didala; zehazki, lan hau bideratu duten hiru helburuak.

Bestalde, aipatu beharra dut, GrAL-eko gaia hautatutako momentutik lana amaitu bitartean Tororen (2015) “¿De qué sirve que un niño sepa colocar Neptuno en el Universo si no sabe dónde poner su tristeza o su rabia?” (or. 1) esaldia izan dudala presente, galdera erretoriko honek bideratuta saiatu naiz ezarritako helburuak lortzen. Lan honek argi utzi dit Hezkuntza Emozionala lantzearen benetako beharra, eta haurtzarotik lantzearen garrantzia. Jarraian datozen orrialdeetan askotan topatuko dituzuen Bisquerra eta Hernández (2017) adituek diotenaren arabera, Hezkuntza Emozionala bizitzako lehen momentutik hasi behar da lantzen eta bizi garen bitartean ez da utzi behar sekula lanketa hori (Bisquerra eta Hernández, 2017). Guztiz beharrezkoa da lanketa hau modu egokian ematea haurren beharrak asetzeko eta hauen ongizatea bermatzeko. Ongizatea bermatuz, akademikoki zein sozialki izan ditzaketen zailtasunak gutxitzea nahiz ekiditea lor dezakegu; emozionalki prestatuta egoteak horretan asko laguntzen baitu. Hori horrela izanik, komenigarria da emozioen gaia gutxienez modu trasbersal batean lantzen joatea. Zergatik? Bada, ezinbestekoa delako testuinguru ezagunetik abiatuz lantzea ezagutza ondo/zentzuz barneratu ahal izateko.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Grup de Recerca en Orientació Psicopedagògica (GROP) taldearen eta Bisquerraren bost blokeetan (kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, konpetentzia soziala, bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia) oinarritutako lan hau osatzen duten atalak deskribatuko dira jarraian, lanaren nodik norakoa ikusteko.

Lehenik eta behin, marko teorikoa dago. Bertan, emozioen gaian murgiltzeko sarrera, emozioen jatorria eta bilakaera, kontzeptua eta sailkapena, emozioak zerk eragiten dituen/nola sortzen diren, zein funtzio dituzten, hauen garapena haurtzaroan, Inteligentzia Emozionala, konpetentziak/bost blokeak, Hezkuntza Emozionala, irakasleen prestakuntza, eta emozioen inguruko Haur Hezkuntzako programen informazioa bildu da.

Ondoren, metodoa dago. Atal honetan lan honen hiru helburuak (Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzea emozioen lanketaren inguruan, Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa burutzea eta Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena diseinatzea eta aurrera eramatea) jaso dira, parte-hartzaile (lagina), tresna, prozedura eta analisisa azpiatalekin batera.

Gero, hiru helburuak lortzeko erabili diren tresnekin (galdetegiak eta elkarrizketak; behaketa taulak; egunerokoa, tailerra eta behaketa taulak) lortutako emaitzak bildu dira idatziz, grafiko eta taulekin batera. Segidan, prozedura bera eraman da ondorioekin. Emaitzak aztertuz helburu bakoitzetik ateratako ondorioak jaso dira, baina baita hausnarketa pertsonala eta lanaren mugak eta hobekuntzarako proposamenak ere.

Azkenik, erreferentziak eta eranskinak topa daitezke; lanean zehar aurki daitekeen informazioa zabaltzeko aukera eskaintzen dute, lana aurrera eramateko erabilitako tresna guztiak daude bertan jasoak eta baita proposamena aurrera eramatean erabilitako materialen eta jardueretatik lortutakoaren argazkiak ere.

Deskribapena alde batera utzita, sarrera amaitzeko, eskerrak eman nahiko nizkieke lan hau burutzea posible egin duten guztiei. Hala nola, galdetegietan parte-hartu duten irakaslegai zein irakasle guztiei, elkarrizketetan parte hartu duten psikologo eta koordinatzaileari, Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeari, jardueretan parte-hartu duten haurrei eta nola ez nire tutorea izan den Iratxe Antonio-Agirreri.

Marko teorikoa

Emozioak denboran zehar irautean, lehendabizi sentimendu bilakatzen dira, ondoren gogo-aldarte eta azkenik izaera (Hik Hasi, 2014). Hau jakinda, argi ikus daiteke norberaren izaeraren eraikuntzan ezinbesteko papera betetzen dutela emozioek, modu batean edo bestean bizitzen laguntzen baitute. Hori dela eta, haurtzarotik haurrei emozioen garrantziaz kontzientziatu eta hauek maneiatzen irakatsiz gero, etorkizunean zailtasun emozional gutxiago biziko dituzte, honek bizitza eta ongizatea erraztuz (Aierdi, Ezeiza, eta Goikoetxea,

2010). Gainera, azpimarratzekoa da irakasleek ikasleak behatzea oso garrantzitsua dela eta asko balio duela, alderdi oso interesgarriak behatzeko, aztertzeko eta bertatik ondorioak atera eta hausnartzeko aukera ematen duelako. Modu honetan, emozioen lanketaren inguruan heziketan egiten diren hutsegiteez ohartuko gara, alderdi hau bere osotasunean ahalik eta modu egokienean lantzea helburu izanik. Izan ere, alor hau hobetzen ez bada, behar bezainbesteko garrantzia zein denbora eskaintzen ez bazaio, haurrak zentzu honetan hutsik eta galduak sentituko dira, makinak bezala; emoziorik sentitzen/identifikatzen ez badute, ezerezean/ galduta geratuko dira, mundu honetan espaziorik beteko ez balute bezala.

Horretaz gain, gaur egun arazo sozio-emozionalak (bakartzeak, depresioak, hirak, disziplina-faltak, urduritasunak, estutasunak, inultsibitateak eta agresibitatea) areagotu egin dira gure gizartean, haur zein nerabeen artean. Zer dela eta? Aipatu berri denarengatik, ez zaielako behar bezalako Heziketa Emozionala eskaintzen ez eskolan ez familian (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008). Hori horrela izanik, nahiz eta oso zaila egiten den emozioen inguruko ezagutza ulertzea eta barneratzea, emozioak gure organismoaren erreakzioak direlako eta modu ez-materialean pertzibitzen direlako, behar beharrezkoa da hauekiko kontzientzia izatea eta modu trasbersal batean lantzea, egunerokoan zehar topatzen diren egoerez baliatuz.

Jatorria eta bilakaera

Emozioen jatorri eta bilakaerari dagokienez, aipatu beharra dago, emozioen azterketaren inflexio puntutzat, XX. mendea hartzen dela (Aritzeta eta Soroa, 2013). Hirurogeiko hamarkadara arte, emozioen ikuspuntu analitikoa soilik aztertu zen, baina ordutik aurrera apurka-apurka emozioak bere osotasunean aztertzeari ekin zitzaion. Hirurogeita hamarreko hamarkadari erreparatuz aldiz, argi ikus daiteke burmuinean gertatzen denari buruzko ikerketak eman zirela aurrera. Aldaketa garai horretan, psikologia kognitiboa agertzen da, eta horrek emozioen ikerketa burutzea posible egiten du. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran aldiz, *emozioen iraultza* deritzon mugimendua sortu zen eta aldaketa horrek batez ere psikologiari, hezkuntzari zein jendarteari eragin zion (Conejero, Pascual, eta Etxebarria, 2007). Emozioen alorrean beraz, hainbat lan klasiko aipagarri aurki daitezke; hala nola, Charles Darwin (1809-1882), William James (1842-1910) eta psikologiaren aitzindaria izandako Wilhelm Wundt-en (1832-1920) eskutik jasotako lanak. Hala ere, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan emozioak lehenago zergatik ez diren ikertu azaltzeko (Conejero, Pascual, eta Etxebarria, 2007):

Lehenik eta behin, aipatzekoa da arrazionalismoaren eraginak emozioekiko ikuspegi ezkorra bultzatu zuela; izan ere, zientzialariek eta hiritarrek oro har, uste zuten emozioek oztopoak jartzen zituztela ezagutzaren, pentsamenduaren eta arrazoibidearen bidean (Aritzeta eta Soroa, 2013). Horretaz gain, konduktismoak emozioen ikerkuntza baliogabetu eta baztertu zuen; konduktismoaren ikuspuntutik abiatuz, emozioa subjektibotasunaren alorrean aurkitzen denez, funtsik gabeko gaitzat hartzen zen. Watson-ek esate baterako, emozioak estimulu zehatzen aurrean ematen ziren gorputz-erantzunak besterik ez zirela aldarrikatu zuen (Aritzeta eta Soroa, 2013). Beste eragile nagusietako bat, emozioen inguruko teoria orokor sistematikorik ez egotea izan da, nahiz eta mugimendu psikoanalitikoak emozioen inguruan ikertzea eta aztertzea bultzatu zuen (Aritzeta eta Soroa, 2013). Amaitzeko berriz, emozioaren azterketa zein ikerketa burutzeak duen zailtasuna azpimarratu behar da; emozioak ikuspegi neurofisiologiko batetik aztertzea ekintza konplexua baita, batez ere, garuneko zenbait guneren manipulazio neuroanatomikoa, elektrikoa eta kimikoa eskatzen duelako, edota hainbat teknika elektrofisiologiko eta psikofisiologiko edo neuroirudi-teknika moderno erabiltzea ezinbestekoa delako (Aritzeta eta Soroa, 2013).

Gaur egun aldiz, globalizazioaren garaian, munduaren ikuspuntua erabat aldatu dela ikus daiteke eta horrekin batera gehiago ari dela aztertzen zein sakontzen emozioen alorrean, eta batez ere, hezkuntzaren arloarekiko erlazioan. Urteetan zehar aspektu kuantitatiboetan zentratu izan badira ere, orain, aspektu kualitatiboak ere hartzen dira kontuan (Davidson, Goleman, Punset eta Punset, 2012).

Kontzeptua eta sailkapena

Emozio kontzeptuaren inguruan hainbat definizio aurki daitezke. Goleman (1996), Vallés eta Vallés (2000), Bisquerra (2000) eta Morak (2013), alor honetan adituak diren autoreek, emozio kontzeptuak izan duen bilakaera ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Golemanek (1996) bi zatitan banatzen du emozio kontzeptua: batetik “mozio” lexema zeina latinezkeo “movere” aditzetik datorrela azaltzen duen. Bestetik, “e” aurrizkia zeinak bultzada hauek ekintzara bideratuta daudela adierazten duen. Hala ere, aipatu beharra dago, autore honek ez duela kontzeptu hau hitzez hitz zehazki horrela definitzen; izan ere, emozio kontzeptuak pertsonok senti ditzakegun emozioak bezainbeste esanahi izan ditzakeela aldarrikatzen du. Vallés eta Vallés-ek (2000) emandako definizioa aldiz, Golemanena baino osatuagoa da; egoera konplexu, biologiko eta psikologiko moduan azaltzen baitu, erantzun somatiko eta aztoramendu mentala bezala definitzen du, zeinak ekintza bat burutzera bultzatzen duen informazio batzuen erantzun moduan. Bisquerrak (2000) emandako

definizioari dagokionez berriz, emozio kontzeptua honela definitzen du: organismoaren egoera konplexua, eszitazioz edo perturbazioz karakterizatzean, ekintza jarreraren aurretik jartzen duena. Gainera, emozioak barne zein kanpo objektu/gertaera/egoeren ondorioz sortzen diren erantzunak dira eta objektu/gertaera/egoera berberak emozio desberdinak sortu ditzake pertsona desberdinen artean. Azkenik, definizio osatuena eta aktualena Mora-rena (2013) da. Egile honek, emozio kontzeptua organismoaren jokabide-harreman moduan definitzen du, non estimuluen aurrean mina, plazerra eta abar eragin diezagukeen. Erantzun horiek garunean sortzen dira neurona-zirkuituen bidez kanpoko egoerak kodifikatzen eta aldi berean gure barnean aldaketak sortzen. Horretaz gain, aipatzekoa da Mora-ren aburuz, erantzun horiek edozein bizidunek sortzen dituztela modu inkonsziente batean eta hori gutxi balitz, emozioek laguntzen dutela izaki bizidunok elkar erlazionatzen.

Laburbilduz beraz, emozio hitza latinezko “movere” hitzetik dator eta nor bere baitatik ateratzea esan/adierazi nahi du. Hori horrela izanik, emozioa mugimenduari lotzen zaio. Horretaz gain, emozioa, noizean behingo prozesu baten modura defini daiteke, zeinak alderdi subjektibo, kognitibo, fisiologiko eta motor adierazkorren aldaketa edo erantzun sail bat eragiten duen, organismoan desoreka bat sor dezakeelarik kanpoko edo barneko eragile edo egoeraren batek bultzaturik. Gainera, aldaketa horiek oso lotuta daude organismoa ingurumeneko baldintza jakinetara egokitzearekin (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa,2008).

Emozioak unibertsaltzat hartzen dira; baldintzatuak, gogoratuak eta eragindakoak izan daitezkeelarik. Osagai fisiologikoak, kognitiboak eta jokaerazkoak hartzen dituzte euren baitan eta oro har, erantzun konplexuak izan ohi dira: izan ere, modu sinkronikoan funtzionatzen ez duten elementu ezberdinez daude osatuak (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008). Bestalde, aipatzekoa da, emozioen artean bi mota bereiz daitezkeela: emozio ezkorrak eta emozio baikorrak. Emozio ezkorrak, norberaren helburuak lortzeko eragozpenzat hartzen diren gertaeren zein egoeren aurrean sortu ohi dira; hau da, helmuga bat blokeatzean sentitzen dira, mehatxu edo galeraren bat egotean. Emozio baikorrak berriz, orokorrean norberaren helburuak lortzeko aldekotzat hartzen diren gertaera zein egoeren aurrean sortzen dira; gertaerei aurre egitean, emozioak berak ematen du ongizatea eta gozamena (*1. eranskina*). Hala ere, azaldutakoak ez du esan nahi emozio ezkorrak emozio “txarrak” direnik, ezta emozio baikorrak emozio “onak” direnik ere; izan ere, emozioak ez dira ez onak ez txarrak, egokigarriak ala ez-egokigarriak baizik (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008). Ezinbestekoa da gogoratzea emozioak jaiotzen garen unetik bertatik bihurtzen direla gure bizitzaren zati garrantzitsu; oso eginkizun/betebehar garrantzitsua betetzen baitute norbanakoaren

nortasunaren eraikuntzan eta sozializazioan. Gainera, erabakien iturri izan ohi dira eta orokorrean bilakaera prozesu guztietan hartzen dute parte; jarrera, pentsamendu eta harremanak izateko moduak gidatzen dituzte, eta emozioak bizi, ulertu eta kudeatzeko moduaren arabera gure eguneroko bizitza era batera edo bestera zehazten zein bideratzen dugu (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008).

Sailkapenean barneratzeko asmoz, Bisquerraren *Educación emocional y bienestar* liburua (2000) erabil daiteke; oinarrizko emozioen eta emozio konplexuen arteko bereizketa ikus baitaiteke. Hori gutxi balitz, autore beraren *Universo de emociones* (2015) liburua ere har daiteke kontuan alor honen inguruan gehiago barneratzeko. 307 emozio identifikatzen dituzte, non horietako 202 ezkorrak (negatiboak) diren eta gainerako 105ak aldiz, baikorrak (positiboak). Argi ikus daiteke beraz, emozio ezkorrak gailentzen direla emozio baikorren artean. Lehengora itzuliz, aipagarria da besteak beste, bi liburu horietan zein *Emozioak eta heziketa* (2008) liburuan emozioak bi multzotan bereizita/sailkatuta agertzen direla: batetik oinarrizko emozioak daude eta bestetik aldiz, emozio konplexuak. Horretaz gain, *Emozioak eta heziketa* (2008) liburuan, emozio atseginen eta desatseginen arteko bereizketa/sailkapena ere agertzen da.

Oinarrizko emozioak, lehen mailakoak, primarioak edota funtsezkoak ere deitzen direnak, orokorrean aurpegiaren espresioek eta aurre egiteko modu tipikoek ezaugarritzen dituzte. Bisquerrak *Universo de emociones* (2015) liburuan modu berezi batean azaltzen ditu emozioak, zehazki: beldurra, hira, tristura, poza, zoriontasuna eta maitasuna; lehenengo hiruak emozio ezkorrak moduan sailkatuak agertzen dira eta beste hirurak aldiz, baikor bezala. Hala ere, aipatu beharra dago bigarren mailako bi emozio ezkor ere sailkatzen dituela; hala nola, antsietatea eta nazka. Hori horrela izanik, desadostasunik sortu ez dadin, argitu beharra dut Bisquerrak, *Educacion emocional y bienestar* (2000) liburuan nahiz eta maitasuna ez zuen emozio bezala aipatzen, *Universo de emociones* (2015) liburuan emozio moduan sailkatzen duela (2. eranskina). Emozio konplexuak aldiz, bigarren mailako emozioak edota emozio deribatuak ere deitzen direnak (oinarrizko emozioetatik eratorriak dira, orokorrean haien konbinaziotik sortutakoak) ez dute aurpegiaren espresio jakinik sorrarazten, ezta ekintzarako joera berezirik/konkreturik ere (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008). Bisquerraren *Universo de emociones* (2015) liburura itzuliz, honako emozio deribatu hauek topa daitezke: pasioa, estresa, depresioa, egonezina, afektua, frustrazioa, ilusioa, umorea etab.

Emozioak zerk eragiten ditu, nola sortzen dira

Bisquerraren (2009) arabera, emozio bat ulertu ahal izateko modurik onena, ulertu nahi den emozio hori bera esperimentzea da. Izan ere, emozio bizi/intentsu batean pentsatzeak, sortzen diren faktore multiploak hobeto ulertzen laguntzen du emozio hori esperimentatzerako unean. Horretaz gain, azpimarratzen duen beste alderdi garrantzitsu bat, emozioak gertakari/bizipen baten ondorioz aktibatzen direla da. Hala ere, pentsamenduek eta imaginazioek ere sor ditzakete emozioak. Pertzepzioari erreparatuz berriz, barnekoa zein kanpoko, iraganekoa edo etorkizunekoa edota errealala ala imaginarioa izan daiteke.

Gertakariak estimulu moduan ere ezagutzen dira aspektu honetan. Izan ere, pertsonak, animaliek, objektuek, gertaerek...sortu ditzakete emozioak. Hala eta guztiz ere, orokorrean emozioak inguruko pertsonen arteko interakzioaren bidez sortzen dira. Gainera, gertakari batek norberaren (edota gertuko pertsonen) biziraupenean edo ongizatean eraginik badu, erantzun emozionala aktibatzen da, pertsona bakoitzaren arabera era batekoa ala bestekoa; guztiok baitugu gertakariak baloratzeko modu desberdina. Hau da, ez dugu denok berdin erantzuten egoera baten aurrean. Erantzun emozionalen osagaietan murgilduz, honako hauek dira Bisquerrak (2009) zehazten dituenak: osagai neurofisiologikoak, kognitiboak eta portaerazkoak (*3. eranskina*).

Osagai neurofisiologikoa orokorrean honako erantzun hauetan ikusten/adierazten da: lotsagorritzean edota izerditzean. Izan ere, emozioak organismoaren nerbio-sistema zentralean sortzen diren erantzunak dira. Portaerazko osagaiak aldiz, adierazpen emozionalarekin du zerikusia. Zer dela eta? Bada, bizitzen ari garen emozioaren eraginez era bateko zein besteko portaerak ditugulako. Hitzezko zein hitzik gabeko (aurpegiko espresioen bidez, ahots tonuaren arabera, hitz egiteko azkartasunaren arabera...) komunikazioaren bitartez adieraz daitezke emozioak. Osagai motekin amaitzeko asmoz, azkenik, osagai kognitiboa dugu; gertatzen denaren esperientzia emozional subjektiboa da. Bizitzen ari garen emozioa identifikatzeko eta izendatzeko gaitasuna ematen du. Osagai hau ondo ez lantzeak edo ezagutzeak ekar dezake behin baino gehiagotan zer gertatzen zaigun ez jakitea. Hori dela eta, oso garrantzitsua da haurtzarotik lantzea.

Funtzioak

Emozioen funtzioetan barneratuz, aipatu beharra dago, “emozioa” kontzeptua definitzerako orduan bezala, honen funtzioak defintzean ere ez datozela bat autore/aditu guztiak. Bisquerraren (2009) funtzio-sailkapenean zentratuz:

Beldurra: ihes egitera bultzatzea benetako eta hurbileko arrisku baten aurrean, biziraupena ziurtatzeko.

Antsietatea: gertatu daitekeenaren zain/alertan egotea.

Ira: gogor saiatzea, askotan bulkada (impulsividad) bidez.

Tristura: ezer ez egitea. Hausnartu eta plan berriak bilatzea.

Nazka: osasunarentzat txarrak izan daitezkeen substantziak baztertzea.

Poztasuna: planekin/zereginekin jarraitzea helburuak/xedeak lortu arte.

Maitasuna: beste pertsona batekiko erakarrita sentitzea.

Azaldutakoa osatzeko asmoz, aipatzekoa da, Aritzeta, Pizarro eta Soroaren (2008) arabera, funtzio soziala zehazki gainerakoei nola sentitzen garen komunikatzeari deritzola; batetik, haiengan eragina izateko eta bestetik, haiek gudan eragiteko. Garapen pertsonalean zentratuz aldiz, argi azaltzen dute oso paper garrantzitsua dutela, izan ere, zerikusia izan dezakete errealitateari igartzeko, kasu egiteko, hura gogoratzeko, arrazoitzeko eta sortzeko moduan. Beraz, emozioen funtzioa ez dagokio bakarrik unean uneko gertaera jakinarekiko harremanari, emozioek izaera prebentiboa eta aurrerapenezkoa ere izan ohi dute (*4. eranskina*).

Emozioen garapena haurtzaroan


Piagetek (1973) ezagutzaren eta emozioen arteko harremana finkatu zuen hazkundearen estadioen sekuentzia bitartez; afektibitatearen eta adimenaren arteko harremana eta dialektika iraunkorra defendatu zituen. Horretarako, sei aldi bereizi zituen: aurreneko aldia (0-2 hilabete), bigarren aldia (2-6 hilabete), hirugarren aldia (6-24 hilabete), laugarren aldia (2-7 urte), bosgarren aldia (7-11 urte), eta azkenik, seigarren aldia (11-15 urte). Hala ere, ni 0-7 urte bitartean zentratuko naiz; aurreneko alditik laugarren aldira.

Aurreneko aldiari dagokionez, senak eragindako joerak sortzen dira; oinarrizko lehen emozioak direla esan daiteke. Emozio hauek, batez ere posturen sistema-fisiologikoarekin daude lotuta. Bigarren aldian, bereziki garrantzi handia dute pertzepzioei lotutako sentimenduek. Hori dela eta, oro har, emozioak urduritasunaren edota pozaren eta goibeltasunaren artean mugitzen dira etapa honetan. Hirugarren aldiari erreparatuz, sistema afektiboa konplexuagoa egiten da, eta niaren eta kanpokoaren kontzientzia hartzen hasten da. Honek, haurra bere egozentrismotik ateratzen laguntzen du, sentimendu moralak sortuz. Laugarren aldian, intuiziozko afektuez gain banakoen arteko sentimendua sortzen hasten dira, Ni-aren garapenarekin batera (Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008). Horretaz gain, aipagarria da

hizkuntzak eta joku sinbolikoak adin honetan duen garrantzia, emozio desberdinak kanporatzeko zein kudeatzen ikasteko aukera ematen baitute.

Beraz, haurra jaiotzen den unetik murgiltzen da emozioen munduan, afektibitatea eta bereziki sentimenduak lantzea eta garatzea ezinbestekoa delarik. Are gehiago, amaren sabelean dagoenetik hasten da emozionalki hezten haurra, maitasunaren eta amak emozioak erregulatzeko duen gaitasunaren arabera. Jaiotzean, batez ere familiak eta ingurukoek dute berebiziko garrantzia emozionalki hezteko prozesuan (Davidson, Goleman, Punset eta Punset, 2012). Bestalde, azaldu moduan, oinarritzko lehen emozioak sistema fisiologikoarekin daude lotuak; oinarritzko premiak asetzearekin batera (Rafael, 2007). Hala nola, honako premia hauek sortzen dira: segurtasuna, maitasuna, taldeko kide/partaide izatea, auto-estimua eta auto-errealizazio beharrak.

Maslow-en (1943) gizakien motibazioaren teoriaren hierarkia:



Horretaz gain, ezinbestekoa da aipatzea haurrek pertsona helduokin harremana izatea behar-beharrezkoa dela; horrek, ongizate, konfidantza eta segurtasunez beteriko sentimendu zein emozioak sortaraziko baitizkio eta besteak beste, hauek erregulatzen lagundu. Hori dela eta, hirugarren alditik aurrera zentratuz, haurra eskolara joaten hasten den unetik aurrera, ezinbestekoa da argi izatea haurra ingurune berri batean murgiltzen dela, emozio berriak biziko dituen zein aurretik bizitakoak beste modu batean esperimendatuko dituen ingurunean. Batez ere, elkarbizitzak zein egunerokotasunean bizitako bizipenek laguntzen dute horretan. Izan ere, genetikoki daukagun nortasunaz gain, inguruak ere eragiten du gudan, besteak beste izaeran (Davidson, Goleman, Punset eta Punset, 2012). Horregatik, oso garrantzitsua da etxean zein eskolan haurrei dagokien heziketa emozionala bermatzea.

Adimen emozionala

Bartzelonako Unibertsitateko GROP ikerketa taldea 1997an sortu zen hezkuntza emozionalaren inguruan ikertzeko asmoz. Konpetentzia emozionalen eredu bat azaldu zuten, berrikuste etengabean dagoena, bost bloketan sailkatuta: kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, konpetentzia emozionala eta bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia (Bisquerra, 2009). Duela urte batzuk arte, pertsonon adimenaz hitz egitean koefiziente intelektuala soilik hartzen zen kontuan. Gaur egun aldiz, adimen kontzeptuaren barnean, koefiziente intelektualaz gain adimen emozionala ere hartzen da kontuan, besteak beste (Sanz Marin, 2002). Izan ere, gure sentimenduak ezagutu eta erabiltzeko zein besteen sentimenduak interpretatzeko aukera luzatzen duen gaitasuna da (Aierdi, Ezeiza, eta Goikoetxea, 2010). Bestela esanda, emozioak hautemateko eta espresatzeko gaitasuna, emozioak pentsamendua errazteko erabiltzea, emozioen bitartez ulertzea eta arrazoitzea eta norberaren naiz besteen emozioak erregulatzea da (Mayer, Salovey, Caruso, eta Cherkasskiy, 2015). Gainera, adimen emozionalak nortasunaren hainbat ezaugarri hartzen ditu bere baitan: enpatia, emozioen erregulazio gaitasuna, sozioalizazio-trebetasunak, etab. (Punset, 2005). Hau kontuan izanda, argi eduki beharra dago honako hau: “Arrakasta ez dago soilik adimen kognitiboaren mende; arrakastaren ehuneko handi bat adimen emozionalaren garapen egokiaren mende baitago” (Txorierri mankomunitatea, 2016).

Hori dela eta, adimen emozionala hezkuntza emozionalaren bitartez transmititu/irakatsi behar da, ongizaterako klabe/giltza diren konpetentziak garatzeko helburuarekin batera. Emozioak eta sentimenduak pertsonon zati garrantzitsu eta ezinbesteko dira, garapen kognitiboarekin batera pertsonon garapen integrala bere osotasunean garatzen laguntzen baitute. Argi dago lehen etapetatik hasi eta bizitza osoan zehar landu beharreko alderdia dela adimen emozionala. Izan ere, adimen kognitiboarekin batera egungo gizarterako ongi prestaturiko pertsonak lortuko dira modu horretan. Gainera, adimen emozionala zuzenean dago lotuta adimen kognitiboarekin, eragin zuzena baitu batak bestearekiko; bi alderdiak landu beharrak daude beraz pertsonak bere osotasun integralean garatzeko. Adimen emozionala gure emozioak zein besteenak ezagutzearekin, norbere burua motibatzearekin eta norberarekiko zein harremanetarako emozioak modu egokian erabiltzeko gaitasunarekin zuzenki lotuta dago (Txorierri mankomunitatea, 2016) (*5. eranskina*).

Konpetentziak

Ezagutzen multzoa, kapazitatea, gaitasuna eta jarrera egoki mugiarazteko gaitasuna da, beharrezkoa izanik jarduera deserdinak egiteko; beti ere, kalitate eta efikazia maila

errespetatuz (Bisquerra eta Pérez, 2007). Motei erreparatuz gero, esan beharra dago autoreen arabera klasifikazio desberdinak topa daitezkeela. Hala ere, oro har, gehienek bi dimentsio bereizten dituzte: garapen tekniko-profesionalaren konpetentzia eta garapen sozio-pertsonalen konpetentzia (6. *eranskina*).

1997az geroztik, GROPen hezkuntza emozionala lantzen da, ikerkuntzan eta irakaskuntzan, konpetentzia emozionalen garapena errazteko helburuarekin. Konpetentzia emozionalak, bost bloketan taldekatzen ditu: kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia pertsonala, inteligentzia interpersonala eta bizitzarako abileziak eta ongizatea. Bisquerrak (2003), aurreko ikasketak berrikusi eta eguneratzeko asmoarekin, konpetentziak honako bloke hauetan sailkatu zituen (7. *eranskina*):

1.Kontzientzia emozionala: norberaren emozioen eta horien adierazpenaren kontzientzia emozionala izatea, emozioa agertzen den unean bertan ezagutzeko trebetasuna da, testuinguruaren arabera emozioak egoera/gertakari batekin uztartzeko abileziarekin batera; hain zuzen ere, adimen emozionalaren oinarria da (Ozamiz, 2017). Zer dela eta? bada, gure emozioak ezagutzuz gero, hauek kontrolatzeko aukera dugulako; baina hori horrela izan dadin, emozioak identifikatu behar ditugu, eta izena jarri (Ozamiz eta Ruiz, 2017). Kontzientek ez diren emozioek berriz, huts egitera bideratu gaitzake; horregatik, eskola oso esparru garrantzitsua, baliagarria eta egokia dela aipatu beharra dago alfabetizazio emozionala irakasteko (Segura Morales, 2007).

2.Erregulazio emozionala: emozioak modu egokian gidatzeko gaitasuna da, zeinak besteak beste, emozio, kognizio eta jokabidearen arteko kontzientzia hartzea eskatzen duen.

3.Autonomia emozionala: autonomia emozionala kontzeptu zabal baten moduan ezagutzen da, non ezaugarri eta auto-gestio pertsonalak hartzen dituen bere baitan. Hala nola, autoestimua, bizitzaren aurrean jarrera positiboa izatea, erantzukizuna, arau sozialak kritikoki analizatzeko gaitasuna, errekurso edota laguntza bilatzeko gaitasuna, etab.

4.Konpetentzia soziala: beste pertsonekin erlazio onak mantentzeko gaitasunarekin lotzen da. Horrek, abilezia sozialak menderatzea, komunikaziorako gaitasuna edukitzea, errespetua edukitzea, asertibitatea, etab. eskatzen du.

5.Bizitzarako eta ongizaterako konpetentziak: bizitza modu organizatu, osasuntsu eta orekatu batean bizitzen laguntzen du.

Hezkuntza emozionala

Hezkuntza emozionala prozesu hezitzaile, jarrai eta iraunkor gisa ezagutzen da; zeinak, konpetentzia emozionalen garapena indartu nahi duen, pertsonen garapen integrala lortzeko elementu esentziala baita. Hezkuntza emozionalaren helburua beraz, konpetentzia emozionalen garapena da (Bisquerra eta Pérez, 2007). Definizioari erreparatuz, Bisquerrak honela definitzen du: “hezkuntza-prozesu etengabea eta iraunkorra da, non garapen kognitiboaren osagarri moduan garapen emozionala sustatzen duen; hala ere, bi alderdiak dira erabateko nortasunaren garapenaren oinarritzko elementuak. Horretarako, aproposena emozioen inguruko ezagutzak zein trebetasunak garatzea da, norbanakoa eguneroko bizitzan zehar gertatzen diren erronkei aurre egiteko prestatzeko, bere ongizate pertsonal biologikoa, psikologikoa eta soziala areagotzeko helburuarekin batera” (Bisquerra, 2000).

Beraz, zer da hezkuntza emozionala? Bada, Bisquerrak aipatzen duen bezala, hezkuntza emozionala bizitza osoan zehar landu beharreko alderdia da, uneoro presente egotea bermatu behar dena, izan ere, hezkuntza emozionala oinarritzko hezkuntzaren parte da. Hezkuntza emozionala landu gabe hortaz, haurrak ezin ditzake oinarritzko hezkuntzatik eskuratu beharreko gaitasunak lortu (Bisquerra eta Pérez, 2007). Zehazki zein gaitasun? Bada, besteak beste, erlazio sozialak, interpertsonalak zein intrapertsonalak hobetzen laguntzen du, eta baita osasun fisiko-mentala hobetzen ere, horrek, aipatu berri dudana errendimendu akademikoa hobetzen lagunduz (Bisquerra, 2016). Hori dela eta, konpetentzia emozionalak garatzea oso garrantzitsua eta oinarritzkoa denez, ahalik eta lasterren irakasten hastea komeni da. Horretaz gain, kontuan izan behar da landuko diren edukiak haurren adinera eta gaitasun-mailara egokituak izan behar direla, eta irakasleen inplikazioa ezinbestekoa dela (Bisquerra, 2002). Gainera, beharrezkoa da hezkuntza emozionalak jarraitzen duen metodologia praktikoa izatea konpetentzia emozionalen garapena bultzatzeko; beti ere printzipio etiko zein baloreei lotuta, ikasgelan zuzenean edota zeharka landuz, era trasbersal batean. Horregatik, eskola ingurunean zentratuz azaltzen dena da, hezkuntza emozionala curriculumaren barne dauden irakasgai/olor guztietan landu beharko litzatekeela zeharka, egunerokotasunean sortzen diren egoerez baliatuz era trasbersal eta progresibo batean. Zuzenean aldiz, txoko zein irakasgai espezifiko bat edo batzuk sortuz landu litekeela aipatzen du.

Bertan ebaluatu beharrekoa, unean uneko dekretuaren (curriculumaren) araberako izan beharko da, hezkuntzako bestelako alorren/ikasgaien/osagaien kasuan bezala. Egun, 237/2015 Heziberri Dekretua dago martxan, beraz, bertan adierazten den moduan ezinbestekoa da ebaluazioa iadanik definituta dauden alderdiekin bat etortzea. Definitutako

alderdi horiek besteak beste helburuak, ikasleen irteera-profilean zehaztutako konpetentziak, hautatutako edukiak eta metodologiari buruz hartutako erabakiak dira. Horregatik, haurrak ebaluatzerako orduan beharrezkoa da landu nahi diren alderdiak aipatutako erabaki horiekin bat datozen aztertzea.

Azaldutakoa kontuan hartuta hortaz, ebaluazioa gerora erabakiak hartu ahal izateko informazioa etengabe eta modu sistematikoan jasotzea eta aztertzea oinarri zein helburu duen prozesua da. Horretarako jakina, ebaluatu beharrezkoa eta gerora lortu nahi dena argi definitu behar da. Gainera, ebaluazioa ikaskuntzat hartu behar da; ikaskuntzarako ebaluazioa, ebaluazio diagnostikoan zein ebaluazio prozesuan eta hezigarrian zentratu behar baita; eta azkenik, ezinbestekoa da ikasitakoa ebaluatzea, ikasleek lortu edota hobetu dituzten gaitasunak eta errendimendua neurtzea modu progresiboan, alegia (Uriarte, 2014). Hori dela eta, hezkuntzan lantzen diren bestelako alderdiak ebaluatzen diren bezala emozioen alorra ere ebaluatu beharreko alderdia da, aspektu desberdinak aztertu, hobetu eta indartzeko asmoz. Hala ere, lehenago azaldu moduan, argi dago emozioak subjektiboak direla eta ondorioz hauek ebaluatzea zaila dela; zaila baita neurketa honetarako tresneria, arau, pausu, helburu, gaitasun eduki zein item egokiak erabiltzea. Lortu nahi diren helburuei dagoenez, honako hauek izan litezke:

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko helburu hauek bete nahi dira:

Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea ez ezik, sentimendu eta bizipenen adierazpena lantzea, batez ere ahozko hizkuntzaz komunikatuz (euskal-mintza landuz) norberaren portaera zein elkarbizitza erregulatzeko, gainerako pertsonak aintzat hartzeaz ahaztu gabe.

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko honako helburu hau bete nahi da:

Ohartzea norbera pertsona berezia dela irudi orekatu eta positibo bat osatuz, ongizate emozionalari dagozkion jarrerak landuta. Beti ere, gizartean jokatzeko oinarrizko jarraibideak (errespetua, laguntza, lankidetzeta, etab.) betez eta emozioak adierazteko gorputz zein keinuz baliatzeko aukera eskainiz. Horretarako, beharrezkoa da arazo-egoeren aurrean konfiantza-sentimendua lantzea, frustrazio txikiak onartzea, zailtasunak gainditzeko jarrera lantzea, laguntza eskatzeko gai izatea, etab.

Beraz, 237/2015 DEKRETUAK azpimarratzen duen moduan, besteak beste alderdi emozionalari begira “norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea” (kontzientzia emozionala, ulermen emozionala eta autonomia emozionala garatzea), “gainerako pertsonenak aintzat hartzea” (enpatia garatzea) eta “norberaren jokabidea erregulatzea” (erregulazio emozionala garatzea) ezinbestekoa da. Eskolak haurrek nortasuna eraikitzeko bidean izugarritzko garrantzia du, eraiketa eta finkatze horretan garatzen laguntzen baitu, haurrak emozionalki adimentsuago hezten lagunduz (Vallés, 2000). Nola? Bada, hala nola, pertsonon garapen osasuntsurako jarrera positiboak izanez, emozioak sentitu eta ezagutzera bultzatuz, eta azkenik, elkarbizitza soziala eta elkarren arteko harremanak bultzatuz (Vallés, 2000). Beraz, hezkuntza emozionala ikasgelan sartzea ezinbestekoa da haurraren garapen integrala bere osotasunean garatzea lortzeko, zuzeneko kompetentziez gain zeharkakoak ere lortuz (Txorierrri mankomunitatea, 2016) (8. *eranskina*).

Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntza funtsezkoa da hezkuntza hobetzeko edozein aldaketa edota bultzada eman ahal izateko. Laburpen gisa esan daiteke hezkuntza, eduki akademiko tradizionaletan oinarritutako irakaskuntza baino askoz gehiago dela. Horregatik aipatzen da azken hamarkadetan, hezkuntza edukiak ikasteko eta gaitasun kognitiboak garatzeko tresnatzat ez ezik, ikasleen prestakuntza integralari laguntzen dion espaziotzat ere hartu behar dela, eta, horregatik, hezkuntza emozionalaren eta, beraz, kompetentzia emozionalen garapenaren garrantzia azpimarratu beharra dagoela (Bisquerra eta Hernandez, 2017). Hori dela eta, argi dago irakasleok emozioen inguruan lanketa handia egin behar dugula gai hau eskolara eraman aurretik, izan ere, Gonzalez, Aranda, eta Berrocalek (2010) dioten bezala: irakaslea emozio-hezkuntzarako eragile bakarra da; izan ere, irakaskuntza-lana administratzeko eta haurrei ezagutza teknikoak helarazteko erantzukizunaz gain, sentitzen, sentiarazten, komunikatzen eta haren eta haurren arteko harreman intersubjektiboak ezartzen dituen pertsona ere bada. Harreman horien bidez, trebetasun emozionalak ikasteko aukera eskaintzea ahalbidetzen zaie haurrei. Hala ere, hainbat azterlanek agerian uzten dute irakasleak ohartzen direla ikasgelan hezkuntza emozionala lantzeko beharraz, baina ez dutela ez prestakuntzarik ez hura lantzeko baliabiderik (Suberviola-Ovejas, 2012).

Honen harira, aipatzekoa da, funtsezkoa dela eskolak kompetentzia emozionalaren irakaskuntza planteatzea pertsonaren garapen integralaren alde. Ildo horretan, Bernal eta Cardenasek (2009) diotenez, irakasleen eta ikasleen arteko elkarrekintzak afektibitateak lotzen ditu. Hau da, irakasleek garatutako afektibitatea, ikasleek ikaskuntzarekiko,

motibazioarekiko eta garapen indibidualarekiko duten lotura afektiboaren euskarri izan liteke. Gainera, Bisquerrak (2005) dioenez, hezkuntza emozionala etengabeko hezkuntza-prozesua den heinean, ongizate pertsonala eta soziala handitzea du helburu. Ildo beretik, Pérez Gonzálezek (2011) dio hezkuntza emozionala funtsean adimen emozionala edo gaitasun sozioemozionalak garatzea helburu nagusi duten programen bidez garatutako hezkuntza- edo prebentzio-prozesua dela.

Beraz, Txorierrri mankomunitateak (2016) keinu txikiek lorpen handiak dakartzatela azpimarratzen du honako argibide/jarraibide simple bezain sendoa/baliagarria helaraziz: lorpen nagusia zeharkako konpetentziak lortzea izango da hasiera batean, eta horretarako hainbat errutina berri txertatzearekin naikoa da. Hala nola, ikasleei gertatzen zaien horretan arreta jartzea eta denbora eskaintzea, enpatia izan eta arreta emozionala eskaintzea, balizko ikuspegiak ulertzen eta gatazkak konpontzen irakastea, eta begirada estimatzailea erabiliz haien autoestima sustatzen saiatu eta emozio bidez transmititzea (*9. eranskina*).

Programak Haur Hezkuntzan

Programa esatean, hezkuntza-helburu baliagarriak lortzeko prestatzen den ekintza-plan sistematiko eta antolatua esan nahi da. Haur Hezkuntzara bideratutako programei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren bidez, eskolako, familiako, erakunde/enpresako eta gizarteko esparruan Adimen Emozionala garatzeko adin/maila bakoitzeko programa bakarra dago gaur egun eskuragarri. Haur Hezkuntzako 2.ziklotik hasi eta Batxilergora bitarteko programak proposatu dituzte, honen helburua, bereziki Gipuzkoa lurralde emozionalki adimentsua eta berritzailea sortzea izanik. Horretarako, programak adinaren arabera banatu eta espezifikatu dituzte. Haur Hezkuntzako proiektuetan zentratuz: batetik, *adimen emozionala Haur Hezkuntza 2.zikloa (3-4 urte)* programa dago. Bestetik berriz, *adimen emozionala Haur Hezkuntza 2.zikloa (5 urte)* programa. Programa hauen barnean, hezkuntza emozionalean esku-hartzeko estrategiak, Haur Hezkuntzarako hezkuntza emozionalaren programaren faseak, hezkuntza emozionalaren helburuak, hezkuntza emozionalaren helburu zehatzak, hezkuntza emozionalaren edukiak, espero diren ondorioak, gaiak, prozedura metodologikoa eta ebaluazioaren nondik norakoak agertzen dira. Baita, gai bakoitza (kontzientzia emozionala, emozioen erregulazioa, autonomia emozionala, giza abileziak eta bizitzeko trebetasunak) lantzeko sortutako jarduera sorta ere. Jarduera bakoitzean, sarrera, helburuak, metodologia, baliabideak, iraupena eta orientazioa daude azalduta. Ebaluazioari dagokionez, eguneroko baten bidez zein galdeketen bidez egitea proposatzen du (Berrigasteiz, 2008).

Batzutan, hezkuntza emozionaleko programak burutzea ez denez erraza eskola bakoitzaren ezaugarriak, irakasleek gai horretan duten prestakuntza, gaia lantzeko duten denbora eta bestelako faktoreak direla eta, programa eredu ezarri/integratu ahal izateko estrategia hauek proposatzen ditu: aldizkako orientazioa (irakasleak momentu desberdinez baliatzea hezkuntza emozionala irakasteko), aldi berean egiteko programak (borondatezkoa da eta eskolaz kanpoko ordutegia erabiliz burutzen da), aukerazko irakasgaiak (hezkuntza emozionalari buruzko aukerazko irakasgaiak eskaintzea), tutoretza-plana (taldean eta era koordinatu batez egin behar den jardura; tutoreak, irakasleak, familiak eta ikastetxe osoak hartu behar du parte), eta Curriculuma moldatu (hezkuntza emozionalaren edukiak irakasgai eta hezkuntza- maila guztietan zeharkatzean datza) (Berrigasteiz, 2008).

Programaren faseak: lehenengo testuinguruaren analisia, bigarrenik beharrak identifikatzea, hirugarrenik diseinua: oinarriak, helburuak, edukiak, jarduerak, epeak, hartzailak, ebaluazio- irizpideak eta kostuak. Laugarrenik gauzatzea eta azkenik ebaluazioa.

Hezkuntza emozionalaren helburuak (Bisquerra, 2000): automotibatzeko trebetasuna garatzea, besteen emozioak identifikatzea, bizitzeko jarrera positiboa izatea, emozio negatiboen ondorio kaltegarriak ekiditea, emozio positiboak garatzeko trebetasuna garatzea, ikaslearen garapen integrala sustatzea, norbere emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzea, norbere emozioak hobeto ezagutzea, ongizate pertsonal eta sozialerako bizi-trebetasunak garatzea eta pertsonarteko harremanak hobetzea dira.

Hezkuntza emozionalaren helburu zehatzak: atsekabeari aurre egiteko estrategiak garatzea; estresa, antsietatea eta depresioa ekidin eta kontrolatzeko gaitasuna garatzea; ongizate subjektiboa bultzatzen duten faktoreen kontzientzia hartzea eta umore-sena garatzea.

Hezkuntza emozionalaren edukiak: adimen emozionala, autoestimua, automotibazioa, bizitzeko trebetasunak, emozioen ulermen eta erregulazioa, enpatia, gatazken ebazpena, gure eta besteen emozioak ezagutzea eta trebetasun sozialak dira.

Prozedura metodologikoa: metodologia orokor eta aktiboa dago erabilia edozein testuinguru eta egoeratan emozioen ezagutza esanguratsu eta funtzionala lortzeko. Bestalde, jardura gehienak taldeka egiteko planteatuak dauden arren, hasiera batean bakarka, ondoren talde txikitik eta azkenik talde handian lantzea gomendatzen dute.

Aipatutako programa hau sortu aurretik aldiz, jardura desberdinak erabili ohi ziren eta oraindik ere erabili ohi dira zentroetan. Horietatik ezagunenak eta aipagarrienak, *Mindfulness* eta *joku sinbolikoa* dira.

Mindfulness asistentzia-modu bat da, arreta-praktika bat, Asiako behaketa-tradizioetatik eratorria; baina sekularizatua izan da psikologia klinikoaren testuinguruan (Segal, Williams, eta Teasdale, 2002) eta neurozientzia kontenplatioaren gorabidean dagoen eremuan (Lutz, Donne, eta Davidson, 2007). Erabateko arretari buruzko ikerketarako bultzada garrantzitsu bat arreta osoan oinarritutako estresaren murrizketa sortzea izan zen, Kabat-Zinnek (1982) garatutako esku-hartze terapeutikoa, erabateko arretan oinarritutako terapia kognitiboa bezalako aldaerekin batera. Izan ere, Kabat-Zinnek (1994) deskribatu zuen bezala, arreta osoak arreta berezia jartzea esan nahi du; nahita, momentuan, eta epaitu gabe. Horrela, arreta osoko entrenamenduak, normalean, arreta norberaren egungo esperientziaren alderdi berezi batera bideratzea eskatzen du, arretaren berorientazioa egitea barne.

Aipatzekoa da, haurrei arreta osoa emateko prestakuntzak, sarritan, talde txikietako jarduerak hartzen dituela barne, haurren esperientzien hainbat alderdiren kontzientzia sustatzeko asmoz (Flook, 2010). Gaur egun arte dagoen ikerketak (Burke, 2010) iradokitzen du autorregulazioa hobetu daitekeela haurtzaroko arreta osoaren prestakuntzaren ondorioz. Beraz, laburbilduz esan daiteke, azaleratzen ari diren ikerketek iradokitzen dutela kontzientzia-ariketak haur txikiekin erabil daitezkeela, baita eskolaurreko aldian ere, eta ariketa horiek autoerregulazioaren garapen osasungarria susta dezaketela. Espero izatekoa litzateke autorregulazioan egindako hobekuntzek ondorio iraunkorak izatea, haurren eskola-errendimenduarentzat (Blair eta Razza, 2007) eta haurren garapen sozial eta emozionalarentzat (Bierman, 2008).

Joku sinbolikoa-ri dagokionez berriz, argi eduki beharra dago, jolasa dela norbere identitatearen eraikuntzarako baliabide nagusia. Myrtha Chokler psikomotrizistak ongi azaltzen duen bezala, haurrak jolasaren bidez motrizitatea lortu ez ezik, espazioa egituratzen, errealitatea ulertzen, sentitzen duena adierazten, edota bere nahiak, beldurrak, fantasiak nahiz desioak sinbolizatzen ikasten dute. Hori dela eta, sinbolizazioa funtsezko tresna da nor garen, zer gustatzen zaigun eta zer ez, gure lehentasunak zeintzuk diren edota zer desio dugun jakiteko. Beraz, aipatu bezala, jolas sinbolikoak haurraren garapenean ezinbesteko funtzioa betetzen du; beharrezkoa da emozionalki osasuntsu hezteko. Izan ere, haurrek euren burua bestearengandik bereizten ikasten dute eta *Ni*-aren barne sentimendua indartzen dute. Gainera, haurrek elkarrekin interakzionatzean, elkarbizitza sozialerako oinarriak ere sendotzen dituzte; bai gaitasun sozialak bai afektiboak (Hik Hasi, 2016).

Silvia Palouk dioen moduan, “Jolas sinbolikoak eremu pribilegiatua eskaintzen dio haurrari ametsak eta desirak benetako bilakatzeko, barruan dituen ezinak eta amorruak

adierazteko, norbere beldurrei aurre egiteko, lotsak alde batera uzteko...” Horretaz gain, honako hau ere azaltzen du Silvia Palouk: “Norbere desioak irudikatzea, desio horiek kontrolatzen ikasteko lehen urratsa da. Era berean, bakoitzaren beldurrak kudeatzen ere laguntzen du eta horretantxe dago, hain zuzen, pertsonon oreka emozionalerako gakoa”.

Metodoa

Metodoari erreparatuz, azterketa mistoa erabili da; alderdi kualitatiboa zein kuantitatiboa aztertu baitira. Bestalde, aipatu beharra dago diseinu instrumentala ere badela lan honetarako bereziki sortutako tresnak badirelako, baita psikologia aplikatuari dagokion esku-hartzea diseinatu delako ere. Atal honen barnean, jarraian, helburuak, parte-hartzaileak (lagina), tresnak, prozedura eta analisisia alderdiak azaltzen dira.

Helburuak

Helburuei erreparatuz, Gradu Amaierako Lan (GrAL) hau jarraian zerrendatutako hiru helburuak lortzera dago bideratuta. Hala ere, argi utzi beharra dago, hiru helburu nagusi hauez gain bigarren mailako beste hainbat helburu ere lortu nahi izan direla. Esate baterako, teorian jasotakoa zein ikasitakoa praktikan ea jartzen den ala ez ikertzea/aztertzea eta hala bada egungo errealitateari, aniztasunari zein dibertsitateari erantzuten dion, funtzionatzen duen edota modu egokian lantzen den ikertzea/aztertzea ere ahalbidetzen duelako. Helburu nagusietara itzuliz, honako hauek dira lortu nahi izan direnak:

- (1) Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzea emozioen lanketaren inguruan.
- (2) Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa.
- (3) Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena diseinatzea eta aurrera eramatea.

Parte-hartzaileak/Lagina

Parte-hartzaile desberdinak erabili direnez, lortu nahi izan den helburuaren arabera zehaztuko dira jarraian.

Lehenengo helburua dela eta, Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritziak ezagutzeko, Gasteizko Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko, Aranbizkarra ikastolako, Ángel Ganivet eskolako, Zarauzko Antoniano eta La Salle ikastetxeetako, Salvatore

Mitxelena ikastolako eta Orokieta Herri Eskolako irakasle batzuen iritziaz gain, Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko 4. mailako ikasleen iritzia ere jaso dira. Hain zuzen, 37 (%100 emakumeak; 25-52 adin tartekoak) irakasle eta 71 (%94.4 emakume eta %5.6 gizon; 21-27 adin tartekoak) irakasleak parte hartu dute.

Bigarren helburuari dagokionez berriz, Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa burutu nahi izan da. Horretarako, Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko proiektua aztertu da. Bi urteko geletatik batxilergoko bigarren mailaraino egokitutako zein bideratutako programa da, ikasturte osoan zehar lantzen dena. Mindfulness-ekin batera, espiritualtasun erlijiosoa lantzea ere oinarri da proiektu honetan. Edukien aldetik, adimen emozionala, autoestimua, norbere eta besteen emozioak ezagutzea, emozioen ulermen eta erregulartasuna, trebetasun sozialak eta bizitzeko trebetasunak eskuratzean datza (10. *eranskina*).

Hirugarren helburuan barneratuz, Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena, *Emozioak dantzan* tailerra, aurrera eramateko Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko Haur Hezkuntzako bost urteko gelako haurrek parte-hartu dute. Jarraian, ikastetxearen, gelaren zein haurren testuinguru eta ezaugarriak azaltzen dira.

Carmelitas Gasteizeko erdialdean, Araban, kokaturik dagoen ikastetxe kontzertatua da, bere pedagogia eta metodologia berriztatzailegatik nazioarteko mailan ezaguna (11. *eranskina*). Ikasleekiko lana Harvard Unibertsitateko Zero Proiektuak, BCBLk (Basque Center on Brain, Cognition and Language) eta Boston Unibertsitateko pentsamenduan oinarritutako ikaskuntzak (Thinking Based Learning) emandako neurozientzia eta pedagogia arloetan izandako aurrerapenetan dago oinarrituta. Gainera, pertsona guztiek bederatzi adimen-mota dituztela defendatzen dute: adimen intrapertsonala, interpertsonala, hizkuntza-gaitasuna, matematiko-logikoa, gorputz-kinestesikoa, bisuala-espaziala, musikala, naturalista eta transzendentea; eta ikasle bakoitzaren estilo propioak errespetatzen dituzte.

Maila-sozioekonomikoari begira, maila ertain eta altukoei bideratutako ikastetxea da, bai espazio, bai baliabide, bai zentroak eskaintzen dituen zerbitzu zein profesionalengatik. Hezkuntza proiektuaren barnean, besteak beste *hizkuntza proiektua* eta *aniztasunari arreta* proiektuak dituzte (12. *eranskina*). Laginan zentratuz berriz, 25 haurrek parte-hartu dute guztira; zehazki 13 neska eta 12 mutil. Ezaugarriei dagokienez, kulturalki aniztasun handirik ez dagoela nabari da. Gaitasun mailari zein izaerei erreparatuz gero berriz, aniztasun handia dago. Bi haur daude gainerako haurren erritmoa jarraitzea kostatzen zaienak, beste haur bat

uneoro atentzioa eskatzen duena eta beste bat nahiz eta oso azkarra den umore aldaketa bortitzak dituen une batetik bestera (emozioak erregulatzeko zailtasun handia du). Azken honek, laguntzaile bat du ikasgelan eta zentrotik kanpo ere joan ohi da astean bitan kanpoko laguntza jasotzera; bere umore aldaketa bortitz horiek apurka-apurka erregulatzeko asmoz.

Haurren gelan zentratuz, espazioaren antolamenduari dagokionez, nahiko gela handia eta zabala dela aipatu beharra dago. Bertan, bost kideko bost talde-mahai daude jarriak (gelaren erdian) eta zazpi txoko desberdin mahai hauen inguruan; matematika txokoa, plastika txokoa, ipad eta ipuinen txokoa, puzzleen txokoa, sentimenduen txokoa (nahiz eta ez den erabiltzen), etxe txokoa eta azkenik eraikuntza txokoa (13. *eranskina*).

Tresnak

Erabilitako tresnei dagokienez, aipatu beharra dago, helburu bakoitza lortzeko tresna desberdinak erabili direla azterketa mistoa (kuantitatiboa eta kualitatiboa) lortzeko. Hori dela eta, jarraian azaltzen dira ezarritako helburu bakoitza lortzeko erabilitako materialak.

Lehenengo helburuari erreparatuz, emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzeko, bi galdetegi eta elkarrizketa bat sortu dira. *Google formulario* bidez sortutako galdetegietako bat, Haur Hezkuntzako irakasleei zuzendurikoa da eta bestea berriz, irakaslegaiei zuzendurikoa. Bi galdetegiak 16 galderez osatuta daude, non erantzun askeko lau galdera ireki dituzten eta erantzun mugatuko (bai, ez, batzuetan, ez dakit) 12. Elkarrizketa berriz, ikastetxeko koordinatzaileari eta psikologoari zuzendurikoa da. Bertan, galdetegian agertzen diren baino galdera espezifikagoak daude, guztira 12 galdera dira eta horietako bi Haur Hezkuntzara bideraturiko programak ezagutzen badituzte soilik erantzun daitezke. Beraz, jakintzaren arabera 12 edo 10 galderari erantzun ahalko diete (14. *eranskina*).

Bigarren helburua, Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko dauden programen azterketa egitea lortzeko aldiz, behaketa-erregistroak sortu dira, non hainbat indikadore, emaitza, ohar eta hausnarketa dituzten jasoak bertan. Zehazki, esku-hartzearen aurretik betetzeko talde osoaren behaketa taula bat sortu da, patioan burutzeko behaketa erregistroa bat, haur bakoitzaren erregistro taula (hiru hilabetetan zehar jasotako datuekin), irakaslea ebaluatzeko behaketa taula eta azkenik haur bakoitzetik jasotako datuak erabiliz sortutako taula zeinak haur bakoitzaren erregistro tauletatik lortutako datuak jaso eta horiekin grafikoak egitea

ahalbidetu duen. Azken hau, zein alderdi landu behar den gehien eta zein hutsune/ahulgune topatu diren argiago izteko sortu da, modu eskematiko/grafiko sinplean (15. eranskina).

Hirugarren helburuan barneratuz berriz, Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena diseinatzea eta aurrera eramatea lortu ahal izateko, GROPEK sustatutako eredu pentagonaleko bost kompetentzia emozionaletan, Bisquerra (2009) (kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, kompetentzia soziala eta bizitzarako eta ongizaterako kompetentzia) eta *Educación emocional* (Bisquerra, 2011). *Programa para 3-6 años* (López, 2007) liburuan oinarrituta bost urteko gelan lantzeko proposamen didaktiko bat diseinatu da, beti ere, 237/2015 DEKRETUA kontuan hartuta: *Emozioak dantzan* tailerra. Proposamen hau emozioak modu sakon, dinamiko eta jostagarrian lantzeko asmoz sortu da, jolasaren bidez; jolasa funtsezko erramienta baita norbere identitatearen eraikuntzarako.

Emozioak dantzan tailerran txoko zein jarduera desberdinak topatuko dira. Hala nola, *Literaturan murgiltzen* jarduera (literatur ipuin/album batez baliatuko da emozioen alorrean murgiltzeko giroa sortzeko), *Termometro txokoa* (bi funtzio ditu; batetik, termometro erraldoi bat sortuko da emozio desberdinak irudikatzen dituen haurrek euren emozioa irudikatze aukera emango duelarik, eta bestetik, liburutegitxo bat sortuko da emozioen gaia ukitzen duten ipuin/album desberdinekin), *Eguneroko txokoa* (eguneroko bat sortuko da bakoitzak bere emozioak adieraziko dituelarik, idatziz edota marrazkien bidez), *Aho-bizi eta belarri-prest txokoa* (bakoitzak bere emozioak azalertzeko gaitasuna sustatzea eta besteenak entzuten ikastea landuko da, komunikazioa jorratzearekin batera), *Muxu panpinaren txokoa* (egunerokotasunean topa daitezkeen arazo-egoerei aurre egiteko proposamenak/aholkuak emango dizkie Muxuk), *Gutun txokoa* (gutun positibo bereziak sortuko dituzte haurrek, haur guztiek bat jasoko dutela ziurtatuz), *Kutxa magikoak* jarduera (kutxa magikoen barnean ezaugarri desberdinak dituzten objektuak daude, haurrek ukimenaren bidez zer dagoen barnean asmatu beharko dute), *Maringo* jarduera (eskulan desberdinak burutuko dira emozioak plasmatzeko, horietako bat Maringo da) eta *Musikaz blai* jarduera (emozio desberdinekin lotuak dauden musika, abesti zein kantuak erabiliko dira gorputzaren bidez emozioak bizitzen eta plasmatzen ikasteko) (16. eranskina).

Proposamenaz gain, hiru hilabetetan zehar Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxean bildutako emozioen inguruan bizitako egoera zein jokabide desberdinen egunerokoa ere osatu da, honek emozioen alderdiaren inguruan haurren eta hauen errealitatearen inguruko

informazioa biltzea ahalbidetzen baitu, haurren bilakaera, garapena eta progresioa jasoz. Bestalde, proposamena burutu ostean haurrengan emandako aurrerapenak nahiz oraindik gehiago indartzea falta zaien zailtasunak/hutsuneak jasotzen dituen erregistro taula bat ere sortu da, proposamena ebaluatzeko ebaluazio-taularekin batera (17. *eranskina*).

Prozedura eta analisisia

GrAL-eko gaia hautatzean Tororen (2015) “¿De qué sirve que un niño sepa colocar Neptuno en el Universo si no sabe dónde poner su tristeza o su rabia?” (or.1) esaldia burura etorrita eskoletan, ikastoletan zein ikastetxetan osotasunean lantzen ez den gai hau teorikoki sakondu eta praktikan jarri ahal izateko nahiaren ondorioz, lehenik eta behin, Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko practicum III-ko bertako tutorearekin harremanetan jarri eta baimena lortu behar izan da. Behin baimena edukita, gaiaren inguruan bilaketa bibliografikoari hasiera eman eta honen inguruan informazio ugari bildu eta aztertzeari ekin zaio; informazioa aztertu eta landu ostean, lortu nahi izan diren helburuak finkatuz eta lortzeko bidea zehaztuz. Jarraian, emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzeko eta programen azterketa burutzeko asmoz, tresnak erabiltzeari ekin zaio; Haur Hezkuntzako bost urteko gelan GROPE eta zehazki Bisquerraren (2014) bost kompetentzia emozionalen arabera emozioak lantzeko proposamen didaktiko bat diseinatzearekin batera. Proposamenaren barnean, proposamen hori jarraitzeko zein ebaluatzeko tresnak ere prestatu dira. Ondoren, proposamena aurrera eraman da eta azaldutako tresnak erabiltzeari ekin zaio; tresnetan lortutako datuak kuantitatiboki eta kualitatiboki jaso dira. Datuak jaso ondoren, helburu bakoitzeko emaitza desberdinak lortu dira eta emaitzak aztertuz, helburu bakoitzeko ondorio desberdinak atera dira; ondorio guztiak kontuan hartuz hausnarketa/ondorio nagusi batera helduz eta hasiera batean abiapuntutzat hartutako galdera erretorikora itzuliz.


Emaitzak

Jarraian, lan honen hiru helburuak lortzeko erabili diren tresnekin lortutako emaitzak bildu dira. Hasteko, emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzeko sortutako galdetegietatik jasotako grafiko bidezko emaitzak aztertu dira. Segidan berriz, Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa burutzeko eginiko elkarrizketa eta behaketa erregistroetatik lortutako emaitzak. Azkenik, Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko sortutako tailerra praktikara eraman ostean, bertan eguneroko eta txantiloien bidez lortutako datuak aztertu dira.


(1) Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzea emozioen lanketaren inguruan (14. eta 18. eranskinak)

Jasotako erantzunek adierazten duten moduan, galdetegian parte-hartu duten 37 irakasleak 25-52 urte bitarteko emakumeak izan dira; gehienbat 27-42 urte bitartekoak. Bizilekuari dagokionez, nahiz eta herri zein hirietan bizi diren irakasleak topatu, gehiengo herrietan bizi da (%62.2). Irakaskuntzan daramatzaten urte kopuruari erreparatuz berriz, batz bestekoa 12 urte ingurukoa da.

Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan?
37 respuestas




Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu?
37 respuestas




Argi ikusten da oro har eskola zein ikastetxe gehienetan (%75.7-an), emozioak lantzen direla, nahiz eta %21.6ak batzuetan lantzen direla adierazi duela ez den ahaztu behar. Emozioak lantzen ez direla berriz, %2.7-ak soilik adierazi du. Nahiz eta eskola zein ikastetxeetan emozioak lantzen diren (%75.7-ak hala adierazita), irakasleek argi utzi dute hauen lanketa ez dela behar bezain egokia, orokorrean ez direla haurren beharrak asetzera heltzen. Hau argi ikusten da ezezkoa eman duelako %32.4ak eta batzuetan soilik ematen dela lanketa adierazi duelako %51.4ak. Batzuetan erantzun dutenen ehunekoa ezezkoa eman dutenen ehunekoari gehituz gero, %83.8ko ehuneko lortzen da, baiezkoa eman dutenen ehunekoari gehituz gero aldiz, %64.9a. Beraz, balantza hori ezezkoaren aldekoa da.

Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da?
37 respuestas




Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da?
37 respuestas




%59.5ak, galdetegia bete duten irakasleen erdiak baino gehiagok, Hezkuntza emozionala ez dela bere osotasunean lantzen adierazi du. %21.6ak aldiz, batzuetan lantzea lortzen dela adierazi du eta %10.8ak berriz lortzen dela. Familiekin burutzen den elkarrekintzari dagokionez aldiz, gehiengoak (%59.5ak) batzuetan lantzen dela adierazi du,

segidan hurrengo portzentaia altuena ezezkoaren izanik (%24.3a). %10.8ak aldiz familiekin elkarrekintza beti ematen dela gai hau lantzerako unean adierazi du.

Irakasleek formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzue alor honetan? 37 erantzunak




Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzue irakasle moduan lanean aritu zarenetik? 37 erantzunak




Grafikoak erakusten duen moduan, gehiengoak (%75.7ak) irakasleentzat formakuntza egokia eta nahikoa ez dela bermatzen adierazi du; %18.9ak soilik adierazi du irakasleek formakuntza nahikoa jaso dutela gai honen inguruan. Bestalde, argi adierazi dute gutxiengoak dela sekula emozioen inguruko prestakuntzarik jasotzeko aukerarik izan ez dutenak: hala ere, kontuan hartu behar da %21.6a direla, ez direla gutxi, alegia. Batzuetan soilik jasotzeko aukera izan dutenak berriz, %40.5a izan dira, eta orokorrean beraien irakaskuntza ibilbidean jasotzeko aukera izan dutenak %37.8a.

Lan egin duzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzue? 37 erantzunak




Prestakuntza/formakuntza/ikastaro horiek zeure kasa aurkitu dituzue ala eskolak/ikastetxeak aholkatuta edo eskainita? 37 erantzunak




Ezkerreko grafikoa aurrekoarekin alderatuz berriz, argi ikusten da prestakuntza jasotzeko aukera izan duten batzuk ez dutela egin prestakuntzarik, izan ere ezezkoaren portzentaia %2.7 igo da, eta baizekoaren portzentaia aldiz, %8.2 jeitsi. Batzuetan erantzun duten irakasleen portzentaia berriz, %2.7 igo da. Eskubikoaren datuek aldiz, argi adierazi dutena da orokorrean prestakuntza horiek ikastetxeak edo eskolak eskainitako edota hauen bitartez eskuratutako ikastaroak izan direla (%62.2a). %18.9ak berriz, euren kasa topatu dituzte ikastaroak. %13.5ak aldiz, batzuetan ikastetxeak eskainitako ikastaroak burutu dituzte, eta beste batzuetan aldiz, euren kasa lortutako ikastaroak.

Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek? 37 erantzunak



Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzue? 37 erantzunak




Prestakuntzak topatzearen alderdiari dagokionez, gehiengoak (%67.6ak) adierazi du ez dakizkiela non topatu emozioen inguruko ikastaroak/ prestakuntzak. %27ak aldiz, badaki. Programei dagokienez, gehiengoak (%56.8ak) adierazi du ez dutela Haur Hezkuntzara bideratutako programarik ezagutzen, %40.5ak soilik ezagutzen du programaren bat.

Hezkuntza Emozionala definitzeko erabili diren hitzen artean, behin eta berriz errepikatu dituzte *beharrezkoa* eta *oinarrizkoa* hitzak. Horretaz gain, ezinbestekoa, funtsezkoa dela azaldu dute; Hezkuntza Emozionalak sustatzen duela dena aipatu dute. Sentimenduak ondo bideratzeko heziketa dela aipatu dute, momentuko sentimenduak identifikatzen eta honek eragiten duen jarrerak era egokian bideratzen laguntzen duela azalduz. Bizi osoko zikloa dela ere azaldu dute: emozioak ezagutu, esperimendu, bizi, kudeatu eta errespetatzen ikastea. Pertsona bezala modu egokian eraikitzeko sentimenduen kudeaketan laguntzen duen tresna moduan ere definitu dute; gehienek, gaur egun guztiz lantzea lortu ez den alderdia dela aipatu.


Emozioen lanketan topatu dituzten hutsuneei dagokienez, honako hau erantzun dute: “Haur txikiekin lanean, hizkuntzak eta ulermenak muga bat suposatzen du, sentimenduei beraiek ala norberak izena jartzerako orduan. Bestetan, emozioaren deskarga horretan bidelagun izateko prest bagaude ere, haurrak ez du nahi izaten eta era bortitzean jarraitzen du.” Bestalde, denbora gutxiegia eskeintzen zaiola etxeetan azaldu dute, beharbada ezjakintasuna dagoelako. Hala ere, etxean ez ezik eskoletan ere ez zaiola behar adina denbora eskaintzen azaldu dute: programatuta dituzten hainbat jardueren ondorioz emozioak lantzeko denbora nahikorik ez dutela azalduz. Bestalde, batzuek euren prestakuntza mugatua dela azaldu dute, edota bestela ikastetxean dituzten mugak aipatu. Gehien aipatu diren hitzak denbora, formakuntza falta eta irakasleek dituzten mugak izan dira.

Irakaslegaien galdetegira igaroz, 21-27 urte bitarteko irakasle gaiek bete dute galdetegia, %94.4a emakumeak izanik eta %5.6a gizonak. Bizilekuari erreparatuz, gehiengoak (%77.5a) herrietan bizi da, %22.5a aldiz, hirietan.

Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan?
71 respuestas




Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu?
71 respuestas




Argi adierazi du gehiengoak (%50.7ak) eskola zein ikastetxeetan emozioen lanketa ematen dela. Batzuetan lantzen dela adierazi dutenak aldiz, %36.2a izan dira eta lantzen ez direla adierazi dutenak aldiz, %14.1a. Batzuetan erantzun dutenen artean, batzuetan “bai” lantzen dela adierazten dutenez, aipagarria da orokorrean gehienetan lantzen direla emozioak eskolan. Hala ere, ematen den lanketa egokia den ala ez galdetzean, gehiengo handi batek (%76.1ak) batzuetan ematen dela lanketa egokia adierazi du, haurren beharrak batzuetan soilik asetzen direla adieraziz. Oso gutxi izan dira lanketa egokia dela eta haurren beharrak asetzen direla adierazi dutenak (%1.4). Ezezkoa eman dutenak berriz, %19.7a izan dira.

Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da?
71 erantzunak




Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da?
71 erantzunak




Ezkerreko grafikoak berriz, argi ikustarazten du, irakaslegaien ustez hezkuntza emozional ez dela bere osotasunean lantzen, %62ak hala esan baitu. Hala ere, gainontzekoek (%36.6ak), batzuetan ematen dela adierazi dute. Ikastetxe zein eskoletan egoera desberdinak topatu badituzte ere, gehiengoak (%40.8ak) batzuetan gertatzen dela familiekin elkarrekintza adierazi du. Bestalde, %29.6ak emozioak lantzerako unean beti ematen dela elkarrekintza hori adierazi du, %21.1ak ematen ez dela adierazi duenean.

Irakaslegaiak unibertsitatean formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzue alor honetan?
71 erantzunak




Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzue unibertsitatean irakaslegai izan zaren urte hauetan?
71 erantzunak




Ia ehuneko ehunak, zahazki irakaslegaien %95.8ak, unibertsitatean formakuntza egokia edota nahikoa jaso ez dutenaren ustea dutela. %1.4ak soilik uste du formakuntza egoki zein nahikoa jaso duela unibertsitatean. %88.7ak irakaslegai izan diren lau urteetan zehar ez dutela emozioen inguruko inolako formakuntzarik/ ikastarorik jaso adierazi dute; %2.8ak soilik eman du baiezkhoa eta %2.8ak batzuetan lantzeko aukera izan dutela.

Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egiteko aukerarik izan duzue?
71 erantzunak



Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzue?
71 erantzunak




Ikastetxe zein eskoletan egindako praktikaldiei dagokienez, %94.4ak ez duela inolako aukerarik izan emozioen inguruko formakuntzarik jasotzeko adierazi du. %1.4ak aldiz, aukera izan duela adierazi du, eta %4.2ak beti ez baina batzuetan izan duela aukera. Aipatutako formakuntza/ikastaro hori egin duten galdetu zaienean aldiz, ia parte-hartzaile guztiek (%98.6ak) ezezkoa adierazi du, %1.4ak soili adierazi du baiezkoa.

Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu? Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek?
71 respuestas



Emozioen lanketa sustatzeko formakuntza/ ikastaroak non topatu ez dakiela adierazi du gehiengo handi batek (%87.3ak). Zati txiki bat izan da, zehazki %8.5a, prestakuntza horiek non topatu edota jaso dakiena. “Ez dakit” adierazi duten %4.2 horiek, topatzen sekula saiatu ez direla adierazten dute. Haur Hezkuntzara bideratutako programei dagokienez, portzentaia handi batek (%84.5ak) adierazi du ez duela horrelako programarik ezagutzen, %14.1ak soilik ezagutzen du emozioen inguruko programaren bat.

Gustatuko litzaizuke unibertsitateak alor honen inguruan gehiago prestatzeko/formatzeko aukera ematea?
71 respuestas



Grafiko honek argi erakusten du galdetegia bete duten irakaslegai guztiei (%100, 71 irakaslegai) gustatuko litzaiekela unibertsitateak emozioen inguruan gehiago formatzeko aukera ematea.

Hezkuntza Emozionala definitzeko eskatu zaienean aldiz, “beharrezkoa” eta “ezinbestekoa” hitzak errepikatu dira gehien. Definizio asko jaso diren arren, orokorrean honako hau da gehien azpimarratu dena: Emozioen adierazpenaren irakaskuntza-ikaskuntzaz arduratzen da, emozioak ezagutzea eta haiei aurre nola egin jakitea irakasteko balio du, norberaren barnean dauden sentimenduak, emozioak... identifikatzen eta azalarazteko eta era berean besteen emozioekin enpatizatzeke gaitasuna ahalbidetzen du, sentazioak eta emozioak sentitu eta kudeatzeko hezkuntza mota da, haurren emozioak kontuan hartzen dituen hezkuntza da, emozioen ezagupen eta kudeaketaren hezte ahalbidetzen du, gaitasun emozionalen lanketa bermatzen du eta indibiduo bezala aurrera egiteko erramintak eman, sentitzen duguna identifikatzen jakiteaz gain sentitzen dugun hori adierazten irakasten du,

beharrezkoa den hezkuntza da haurren garapen osoa lortzeko, emozionalki garatzen laguntzeko eta garapen integrala lortzeko beharrezko hezkuntza mota da.

Praktikaldietan topatutako hutsuneetan zentratuz, gehien errepikatu dena emozioei denbora gutxi eskaintzen zaiela, ez direla modu eraginkorrean lantzen eta ez zaiela behar bezainbeste garrantzia ematen izan da. Hala ere, jarraian uztartu dira azaldu dituzten hutsune orokorrak: kasu puntualetan lantzen dira soilik, hau da, haur batek “x” emozio sentitu duelako; emozio hori gelan agertuko ez balitz, ez litzateke landuko. Bestalde, irakasle batzuk emozioei eta ikasleen sentimenduei garrantzia handia ematen dieten arren, beste batzuk ez dituzte kontuan hartzen. Emozioak adierazteko zailtasunak dituzte haurrek eta emozioen kudeaketaren lanketan ere hutsuneak daude, gazteek zein helduek ere ez baitakite emozioak kudeatzen. Batzuen kasuan, ipuinen bidez emozioen identifikazioa lantzen saiatzen dira, hala ere, haurrek gutxitan izan dute sentitzen duten hori azalarazteko aukera modu eraginkorrean, irakaslearen laguntzaz. Adibidez asanbladan “zer moduz zaudete?” ozenki galdetzean guztiek mekanikoki “ondo eta zu?” erantzuten dute eta ondoren beste gai batera pasatzen dira, eta hori ez da lanketa egokia. Beste batzuek, errutinetan bakarrik lantzen direla azaldu dute, edota gehienez ipuin bat irakurriz.

(2) Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa egiteko behaketa erregistroetatik honako emaitza hauek jaso dira

Batetik, tailerra burutu aurretik eginiko haur talde osoaren behaketa taula hartu da kontuan, eta bestetik, haur bakoitzaren behaketa erregistrotik jasotako datuak uztartzen dituen taula eta hemendik ateratako grafikoak (15. *eranskina*).


Emozioen lanketa burutzeko barne proiektua ezarrita dagoen ikastetxe honetan, tailerra burutu aurretik, talde osoa aztertu ondoren, honako datu hauek jaso dira: elkarren emozioak eta hauen aurrean izandako jarrerak batzuetan/erdizka errespetatzen dituzte. Elkarren arteko harremana ez bada oso estua jokabide desberdinak ez dira guztiz errespetatzen. Ez dute berdin hartzen zein jokatzeko adibidez HAURRA 1ek bere emozioa adieraztean edota HAURRA 12k adieraztean, haurren arabera, elkarrekin desberdin jokatzeko dute. Gainera, besteen emozioekiko enpatia batzuetan/erdizka erakusten dute, batzuetan ez dira gai besteen azalean jartzeko; batez ere HAURRA 3 edota HAURRA 8ren lekuan jartzeako. HAURRA 8k beste haurrak baino jokabide bereziagoak ditu eta beste haurrei berarekin interakzionatzea kostatzen zaie. HAURRA 3ren kasuan, bere taldekideekin du arazoa.


Horretaz gain, aipatzekoa da emozioak ozenki modu askean eta guztientzat batzuetan soilik azaleratzen dituztela; izan ere, askotan, emozioak gordetzen dituzte azaleratu orde. Haiengana zuzentzean, galdetzean, azaleratzen dute gehienbat sentitzen dutena. Gehienbat, HAURRA 6ri kostatzen zaio; batez ere espresatzerakoan. Bestalde, gelan egoera desberdinen aurrean emozio ezberdinak agertzen direnean, askotan irakaslearengana jotzen dute gertatzen dena azaltzeko; normalean, emozio negatibo zein positiboen aurrean. Hala ere, besteei emozioak azaltzeak askotan lotsa eman ohi die, ez dute askatasun eta lasaitasunez azaltzen euren sentipena. Horretaz gain, emozioak kudeatzeko orduan zailtasunak dituztenean ere irakaslearengana jotzen dute askotan. Orokorrean gehienak, baina batez ere HAURRA 1 hurbiltzen da bere emozioak erregulatzeko zailtasunak dituenen. Emozio negatiboek dagokionez, gutxitan/gutxi dira hauek ulertzeko eta baloratzeko gai. Emozio negatiboak arbuiatu ohi dituzte, txarrak izango balira bezala tratatzen dituzte. Batez ere, mutikoren bat triste jartzean edota negar egitean, negar ez duela egin behar bezalako esaldiak entzuten dira noizbehinka haurrengandik. Baita, negar egiteari uzteko eta lasaitzeko bezalako esaldiak ere, negar egitea lasaitzeko modu bat izan daitekeela ahaztuz. Azkenik, aipatu behar da orokorrean askotan jokatzeko dutela talde moduan inor baztertu gabe, nahiz eta une konkretu batzuetan hala ez izan (*19. eranskina*).

Aztertu diren indikadoreetan zentratuz, [1] aipatzekoa da gehienak (%75ak) beti/oso ondo direla gai emozio propioak identifikatzeko, nahiz eta gutxi batzuk (%20ak) zailtasun txikiak izan. Zailtasun txiki horien atzean, kasu puntualetan gertatutako huts-egiteak daude. Haur bakarra da alderdi hau erdizka menperatzen duena. [2] Besteen emozioak identifikatzerako orduan ere, datu antzekoak jaso dira. Gehienak (%72) beti/oso ondo dira gai besteen emozioak identifikatzeko, nahiz eta gutxi batzuk (%20ak) zailtasun txikirentzat izan. Hala ere, kasu honetan 2 haur daude alderdi hau erdizka menperatzen dutenak. [3] Emozioak erregulatzeko gaitasunari dagokionez, aurreko bi puntuak baino gehiago kostatzen zaie. Oso haur gutxiak (%13ak, 25 haurretik hiruk) dute guztiz garatua eta sakondua alderdi hau. Gehiengoak (%46ak) askotan/ondo menperatzen badu ere, %33ak erdizka menperatzen du alderdi hau. Gainera, bi haur daude gutxitan/gutxi menperatzen dutenak. [4] Autonomia emozionalari dagokionez, ikus daiteke gehiengoak (%48ak) oso ondo menperatzen duela eta talde handi batek ere (%28ak) guztiz ondo ez baina ondo menperatzen duela alderdi hau. Hala ere, %16ak erdizka menperatzen du, %4ak (25 haurretik haur batek) gutxi eta beste horrenbestek batere ez. [5] Konpetentzia sozialean zentratuz gero, argi ikus daiteke bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia gaitasunarekin gertatzen den moduan, gehiengoak

(%56ak) beti/oso ondo menperatzen duela. Hala ere, askotan/ondo (%24-%20) eta batzuetan/erdizka (%16-%20) menperatzen dituztenen ehunekoak oso antzekoak dira, kompetentzia soizalari dagokionez ia haur kopuru berak du askotan/ondo eta batzuetan/erdizka maila. [6] Bizitzarako kompetentzian berriz, haur kopuru bera dago bi maila horietan. Bi indikadoretan, %4a da gutxitan/gutxi menperatzen dutenak.

[7] Emozioak azaleratzeko erraztasunari erreparatuz, gehiengoak (%46ak) askotan/ondo menperatzen du gaitasun hau eta %42ak beti/oso ondo azaleratzen ditu.%4ak aldiz, gutxitan/gutxi menperatzen du eta %8ak berriz, batere ez. [8] Emozioak azaleratzeko beharra sentitzen duten ala ez aztertzean aldiz, gehiengoak (%68ak) askotan izan ohi duela behar hori adierazten dute datuek. %28ak berriz, batzuetan izaten du nahi/behar hori, eta gainontzekoek (%4ak) inoiz ez. [9] Emozioak besteekin partekatzeko erraztasunari dagokionez aldiz, %48ak erraztasuna handia duela adierazi dute datuek, %44ak askotan duela erraztasuna adieraztearekin batera. Haur bakarrak adierazten du batzuetan/erdizka soilik erraztasuna, eta beste batek inoiz ez. [10] Emozioak kudeatzerako orduan zailtasunak topatzean, %20ak soilik eskatzen du beti laguntza. Gehiengoak (%52ak, 25 haurretik 13k), askotan eskatzen edo bilatzen du laguntza eta beste %20ak batzuetan soilik. Gutxitan eskatzen duena berriz, haur bakarra da; inoiz ez duena eskatzen bezala. [11] Orokorrean ez ditun inork bereizten emozioak sexuaren arabera; %88ak (25 haurretik 20k) ez ditu bereizten inoiz, %4ak kasu gutxitan bada ere bereizi izan ditu eta %8ak batzuetan. [12] Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi nahiz onartzen diren aztertzean, %29ak beti eta %63ak askotan onartzen dituzten arren, %8ak batzuetan soilik bizitzen ditu naturaltasunez. [13] Irakasleak emozioak lantzeko proposatutako jardueretan parte hartzen duten edo ez aztertzean aldiz, %92ak beti parte hartzen duen arren, %4ak (25 haurretik batek) askotan baina beti parte hartzen ez duela ikusi da, eta beste %4ak (25 haurretik batek) gutxitan parte hartzen duela. Azkenik, [14] bazterturik ikusten diren ala ez jakin nahi izan da: %72 ez da inoiz bazterturik ikusi, %12a gutxitan, beste %12a (25 haurretik hiru) batzuetan, eta haur bat askotan.





(3) Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena diseinatu eta aurrera eramateak zer nolako emaitzak lortu dituen ikusteko, tailerra burutu ostean betetako tauletatik ateratako datuak hartu dira kontuan.

Batetik, tailerra egin aurretik sortutako taula bera bete da egin ondoren lortutako datuekin, eta bestetik, tailerra egin ostera sortutako taula hartu da kontuan, egunerokoarekin batera (16. eranskina).

Elkarren emozioak eta hauen aurrean izandako jarrerak askotan errespetatzen direla adierazten dute erregistro taulako datuek. Orokorrean askok errespetatzen dituzte besteen emozioak eta hauek bizitzeko moduak, momentu puntualak izan dira errespetatu ez direnak. Horretaz gain, emozioak askotan ozenki modu askean eta guztientzat azaleratzen dituztela adierazten dute datuek eta oharrek. Emozioak espresatzeko eta azaltzeko ohitura hartzen ari dira, asko aurreratu dute orokorrean alderdi honetan. Izan ere, orain ekintza normalizat hartzen dute emozioak azaltzea, errutina moduan. Hala ere, oraindik ez da lortu guztiz modu

askean, naturaltasunez, azaleratzea. Gelan egoera desberdinen aurrean emozio ezberdinak agertzen direnean, orokorrean askotan jotzen dute irakaslearengana gertatzen dena azaltzeko. Baina, oraindik badaude haur batzuk eta une konkretu batzuk non irakaslearengana jo ez duten. Emozioak kudeatzeko orduan zailtasunak dituztenean berriz, asko dira irakaslearengana joaten direnak laguntza eske. Emozioak lantzeko beharrari erreparatuz aldiz, aipatu beharra dago, nahiz eta egoera hobetu den oraindik ere gehiago hobetzea posible dela. Emozioen inguruan hitz egitean nahiz eta lehen baino lotsa gutxiago adierazten duten, oraindik ere lotsaren mugak ez dira guztiz gainditzea lortu, ez da normaltasun osoa lortu alor honen inguruan. Emozio negatiboek dagokionez, nahiz eta asko hobetu duten lehendik hona emozio negatiboak ulertzeko eta baloratzeko gaitasunari erreparatuz, oraindik ere lan gehiago egin behar da. Horretaz gain, aipatzekoa da orokorrean gehienek besteen azalean jartzeko gaitasuna garatua dutela; hiru haurrek izan ezik. Azkenik, hasiera batean baztertzeak gertatzen baziren ere, orain ez da inolako bazterketarik somatzen.

Tailerra amaitzean bete beharreko txantiloari erreparatuz, honako datu hauek jaso dira: jarduera guztiak izan dira egokiak, oso gustura, gogotsu eta parte hartzeko gogoarekin (HAURRA 3 izan ezik) aritu dira jarduera guztietan. Batzuetan ematen ez zaien protagonismoa ematea lortu da, modu desberdin batean ikastera motibatuz. Gainera, haurren dibertsitatera egokituriko jarduerak izan dira guztiak. Denboralizazioari dagokionez, egokia izan da, haurren erritmora egokitzea lortu da. Nahiz eta tutorearen ordutegiaren menpe egon, jarduera guztiak burutu ahal izan dira haurren erritmoa errespetatuz, behar izan dituzten eta ahal izan diren saioak erabiliz. Jarduerak burutu diren espazioak berriz, egokiak izan dira. Haurrek mugitzeko lekua izan dute behar izan dutenean. Tutorearekin batera adostutako taldeak erabili direnez taldekatzea oso egokia izan dela azpimarratu behar da; talde misto bakoitzean maila desberdina duten haurrak nahasturik egon direlako. Elkar asko lagundu dute eta konfiantza handia eskuratu eta erakutsi dute euren artean.

Gainera, jarduerari dagokionez, esan beharra dago oso dinamikoak izan direla, izan ere, haurren interesetatik abiatuta planteatu dira. *Koloretako Munstroa* album ilustratua oso gustuko dutenez, horretaz baliatu da euren atentzioa eta interesa pizteko. Gainera, hau aitzakiatzat hartuta nolabait txoko/jarduera desberdinak elkarrekin lotzea eta lantzea lortu da; beti ere fokoa landu beharreko gaian jarritz. Talde bakoitzarekin gutxi gorabehera denbora tarte berdina igaro da jarduera bakoitza burutzen. Hala ere, euren artean denbora desberdintasun batzuk eman dira, haurren interesaren arabera moldatu baita jarduera talde bakoitzera, erritmoa, interesa zein gogoia kontuan hartuz. Jarduera guztietan piztu da

jarduera/jolasa egiteko gogo. Zer dela eta? Bada, jarduera berriak eta desberdinak izan direnez interes eta jakin-min handia sorraraztea lortu delako. Amaierako jarduera gustatu zaie gehien, izan ere, ordurarte plastika txokoan erabili gabeko materiala manipulatzeko aukera izan dute. Bestalde, jardueretan egin beharrekoan zailtasunik izan ez badute ere, euskal-mintza bultzatzea ere helburu izan denez, alderdi hau izan da gehien kostatu zaiena.

Burututako jarduera guztiek balio izan dute; jarduera bakoitzak lantzea helburu izan duen alderdia jorratzea ahalbidetu du, emozioen inguruan ezagutza zein trebetasun desberdinak zabalduz. Egunerokoan ikusten den moduan eta lanean zehar aipatu bezala, HAURRA 3k ez du parte hartze aktiboa izan jarduera guztietan. Hala ere, nahiz eta jarduera batzuetan aktiboki ez parte hartu, bere taldekoak behatzea gustatu zaio, eroso sentitu da une horietan eta besteen moduan alderdi desberdinak lantzea lortu du, nahiz eta zuzeneko eran ez izan. Izan ere, batzuetan besteak ikusteak/behatzeak ere laguntzen du ikasten. Emozioen inguruan hasiera batean baino ezagutza handiagoa eskuratu dute hurrek. Emozioen gaia landutako egunetan zehar emozioen inguruko hainbat komentario eta elkarrizketa entzun dira euren artean; baita irakasleoi zuzenduta ere. Esaterako, triste sentitzen dela amak ez diolako utzi eskolara jostailu bat eramaten, triste dagoela HAURRA Xek ez duelako berarekin jolastu nahi... Lehen adibidez, haur batek beste haur batekin jolastu nahi ez bazuen, jolastu nahi zuen hori negarrez hasten zen, zer gertatzen zitzaion azaldu gabe. Orain aldiz, kasu horietan haurrak etorri eta triste daudela esaten dute, beste haurrak berarekin jolastu nahi ez duelako edota haserre dagoela... Hau da, emozioak hitzez ere azaleratzen dituzte. Bestalde, besteen lekuan jartzea geroz eta gutxiago kostatzen zaiela nabaritu da. Besteen sentimenduekiko suposizio gehiago egiten dituzte eta oro har suposizio zuzenak izaten dira. HAURRA 3ren kasuan, nahiz eta protagonismo handia eskatzen duten jardueretan zuzenki parte hartzen ez ausartu, apurka-apurka bere buruarengan geroz eta konfiantza gehiago eskuratzen ari dela hautematen da; gero eta seguruago dago bere buruaz eta egiten dituen ekintzez.

Jarduerak GROPEko eredu pentagonaleko bost konpetentzia emozionalak lantzeko lantzeko planteatuak dauenez eta proposaturiko modu berean eman direnez aurrera, esan daiteke bost bloke horiek lortzea edota gehiago garatzea zein lantzea lortu dela. Gainera, jarduera bat baino gehiago eskatu dituzte errepikatzeko; zehazki ipuinak irakurtzea asko gustatzen zaienez eta orokorrean ez dietenez asko irakurtzen (ez ikastetxean, ez etxean), emozioen inguruan eskainitako ipuinak irakurtzea asko eskatu dute. Koloretako munstroaren erruleta hiru aldiz erabili behar izan da haur batzuekin. Asko gustatu zaie jarduera eta arrazoi zein bizipen desberdinak azalduz aritu dira jarduera hori aurrera eraman den egun zein

tarteetan. Gutunaren jarduerari dagokionez, nahiz eta ez eskatu jarduera berriz egiteko, plastika txoko-ra joan diren haur askok egin dute beren gutun propioa gurasoentzat, lagun batentzat...Kutxa magikoen eta Maringo jarduerari erreparatuz, jarduera oso dibertigarria iruditu zaienez, urrengo egunetan berriz nahi dutela egin esanez aritu dira.

Haurrek euren artean, familian zein irakaslearekin emozioak azaleratzera bultzatu duten jarduerari dagokionez, fruituak eman dituzte. Lehenago aipatu bezala, lehen emozioak azaleratzen edo hitzen bidez azaltzen ez zituzten arren, orain lehen baino gehiago azaleratzen dituzte, lotsa gutxiagorekin. Ez zaie kostatzen hitzez azaltzea nola sentitzen diren une desberdinetan. Gainera, ez dago galdetu beharrik askotan, beraiek hurbiltzen dira nola sentitzen diren aipatuz eta batzuetan inork galdetu gabe sentimendu horren zergatia azalduz. Horretaz gain, haurren ongizatean aldaketa on txiki batzuk ere eman dira, nahiz eta denbora oso gutxian landutako alderdia izan den emozioena. Hori dela eta, aldaketa handiak ez dira suertatu oraindik. Hala ere, HAURRA 3ren hobekuntza aipagarria da. Baita HAURRA 1ena ere. Egia esan, mindfulness egiten denean geroz eta lasaiago sentitzen da jarduera aurrera doan bitartean. Hau lorpen handia da, hasiera batean negarrez hasten baitzen mindfulness-en uean; konfiantza zein segurtasun eremua ez zeukalako egoki eraikia. Harremanak lantzeko ere lagundu dutenez jarduerak aspektu horretan hobetzen lagundu diotela nabaritzen da.

Ondorioak

Jarraian, lan honen hiru helburuak burutzen saiatu ostean lortutako emaitzetatik ateratako ondorioak, hobekuntzarako proposamenak eta hausnarketa pertsonala jaso dira. Lehenengo, emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzeko sortutako galdetegietatik jasotako emaitzetatik ateratako ondorioak azaldu dira. Gero, Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa burutzeko eginiko elkarrizketa eta behaketa erregistroetatik lortutako emaitzetatik ateratako ondorioak bildu dira. Azkenik, bost urteko gelan emozioak lantzeko sortutako tailerra praktikara eraman ostean, bertan eguneroko eta txantiloien bidez lortutako datuen inguruko ondorioak atera dira.

(1) Haur Hezkuntzako irakasleen eta irakaslegaien iritzia ezagutzea emozioen lanketaren inguruan (14. eranskina).

Eskola, ikastola zein ikastetxeetan emozioen lanketa ematen bada ere, ez da modu egokian lantzen, ez baita haurren beharrak asetzea lortzen. Horrek adierazten du beraz, ez dela hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzea lortzen, gainazala soilik ikutzen da

askotan eta emozioak lantzen direla esan; baina izatez, gaur egun askotan ez gara emozioak lantzerantz heltzen, hauen aipamena soilik egin ohi da edo lantzeko saiakera. Gainera, saiakera horretan batzuetan familiek parte hartzen badute ere, hau ez da beti gertatzen eta horrek ere eragina du alor honen lanketan.

Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantze ezaren atzean hainbat arrazoi daude; hala nola, formakuntza eza edota formakuntza nahikoa ez bermatzea irakasle zein irakasle gaitasunari, formakuntza horiek topatzeko zailtasunak eta informazio eza, Haur Hezkuntzara bideratutako programak ez ezagutzea, eskola/ikastetxeetan mugak izatea eta ez edukitzea gai hau lantzeko denbora. Formakuntza nahikoa ez izatearen lehenengo arrazoietakoa bat, unibertsitatean emozioen inguruko ikasgai konkretu bat edota gutxienez ikastaroren bat ez eskaintzea da. Egi da, nahiko programazio murriztu eta estua ematen dela eta denbora falta izan daitekeela honen arrazoiak, baina hau aldatzea funtsezkoa izango litzateke eskoletan gauza bera ez gertatzeko. Izan ere, helduen munduan emozioek ez badute tarterik, nola ikustaraziko zaie haurrei garrantzi handia dutela eta beharrezkoa dela hauek modu egokian lantzea momentuan nahiz etorkizunean ongizate osoa bermatzeko... Unibertsitatean gertatzen dena, modu berean islatzen da eskoletan; eskoletan ere denbora ezari errua botaz ez dira lantzen emozioak. Formakuntzaren ildotik jarraituz, aipatzekoa da, unibertsitatean ez ezik praktikaldiak burutzen diren eskola/ikastetxeetan ere irakasle gaitasunari ez dutela aukerarik izaten emozioen inguruko formakuntzak burutzeko, eta are gehiago, irakasle batzuek ere ez dute aukerarik izaten, eskola/ikastetxe batzuek ez dituzte eskaintzen, ez dute hauen inguruan informatzen, baina gero emozioak lantzea eskatzen da. Nola landuko dira aurreformakuntzarik ez badago, ez badaude prestakuntza aldetik prest?

Beste eztabaida edota desadostasuna formakuntzen inguruko informazioa nork erraztu behar duen/beharko lukeenaren inguruan sor liteke. Emaitzek argi utzi dute formakuntza faltaren beste arrazoietakoa bat orokorrean irakaslegai zein irakaseek formakuntza horiek euren kasa non topatu ez dakitela dela. Egoera kezkarria da, izan ere irakaskuntzak irakasleak euren prestakuntza eta ezagutza eguneratzen zein zabaltzen joan behar dute uneoro ikasgelako dibertsitateari nahiz gizarteari ahalik eta ondoen erantzuteko. XXI. mendeko gizartearen kontraesanak eta paradoxak konpontzeko, eskola osasuntsua, trebea eta zorientatsua behar dugu, eta hau ezinezko misioa izango da emozionalki adimentsua den irakaslerik gabe. Hau da, ezinbestekoa da irakasleok gai honen inguruan ezagutza zabala izateaz gain geure zein besteen emozioekin bat egitea; identifikatzeko, ulertzeko eta erregulatzeko gai izatea; eta autonomia emozionala, konpetentzia soziala eta bizitza eta

ongizatearen konpetentzia garatuak izatea. Zergatik? Bada, gaitasun hauek eragin zuzena dutelako ikasleen ikaskuntza prozesuan ez ezik osasun fisiko, mental eta emozionalean, eta erlazio positiboak eta eraikitzaileak izatea ahalbidetzerako unean ere (González, Aranda, eta Berrocal, 2010). Gauza bera gertatzen da irakaslegaiekin, ez baita ahaztu behar etorkizuneko irakasle direla. Ondorioz, beharrezkoa izan beharko litzateke formakuntza eskaini ezin bada ere, gutxienez formakuntza hori non topatu daitekeen argitzea eta zabaltzea. Modu horretan, formakuntza jasotzea erraztuko da, eta honekin batera ahal den neurrian jasotzea kontrolatu, irakasle guztiak egon daitezen ahalik eta egokien formatuak arlo honetan.

Galdetegiaren bidez, prestakuntzaren inguruko informazio ezaz gain, programen inguruko informazio eza ere argitan geratu da, hauen eskasiarekin batera. Programei dagokienez, irakasle zein irakaslegaien gehiengoak ez du Haur Hezkuntzara bideratutako programarik ezagutzen eta hau kezkatzekoa da. Harrigarria da, gaur egun irakasle moduan lan egiten dutenen artean ehuneko handi batek emozioen lanketa bermatzen duen programarik ez ezagutzea edo elkarrizketak adierazten duen bezala zerbait entzunda izatea honen inguruan baina informazio konkreturik/jakintza handirik ez izatea. Milaka arrazoi egon litezke honen atzean, baina horietako bat izan daiteke duela urte gutxi arte emozioen gaia ezezaguna zela, ez zela kontuan hartzen edota ez zela eskolan irakatsi beharreko alderdi bezala kontsideratzen. Horretaz gain, egia da Lehen Hezkuntzatik aurrera lantzeko gai errazagoa dela Haur Hezkuntzatik hasita lantzea baino; gai oso abstraktua eta konplexua delako bai ulertzeko bai lantzeko. Hori dela eta, baliteke Haur Hezkuntzan jarduera soilez lantzea nahikoa zela pentsatu izana, alor honen inguruko ez-jakintasunagatik alde batera utzi izana, eta orain, duela bost urte, benetako garrantziaz zein beharraz ohartzean Gipuzkoako Foru Aldundiak programa bat sortzea hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzea lortzeko. Hala ere, ekarpen honetaz gain besterik ez denez topatu, material/baliabide falta honetan zentratzea eta ekarpen gehiago egitea beharrezkoa dela iruditzen zait.

Azkenik, teoriara itzuliz, benetako hezkuntza batek ikasle guztien garapen pertsonala eta soziala bultzatu behar duela nahiko argi dutela irakasle zein irakaslegaiak ikusi da; nahiko ondo ikasia dutela teorikoki hezkuntzaren azken helburua, ongizate pertsonala eta soziala sustatzea dela. Izan ere, ez da ahaztu behar ikaskuntza eta ongizatea bateragarriak direla (Bisquerra eta Hernandez, 2017). Bisquerrak (2005) esaten duena azpimarratuz, irakasle zein irakaslegaiak ere hezkuntza emozionala etengabeko hezkuntza-prozesua dela aldarrikatzen dute; konpetentzia emozionalen garapena sustatu nahi duela, zehazki pertsonaren garapen integralaren funtsezko elementu gisa, pertsona hori bizitzarako gaitzeko.

Hezkuntza emozionalaren definiziotik beraz, ez gaude hain urrun baina berori lantzeko ezintasuna, zailtasunak, mugak eta jakintza eza ditugu. Orokorrean, arazo berdinekin topatu dira irakasle zein irakaslegaiak emozioak lantzerako unean: denbora falta, batzuetan garrantzia nahikoa ez ematea, egoera nola kudeatu ez jaiketa prestakuntza faltaren ondorioz, eta ikastetxeak inposatutako mugak errespetatu behar izatea. Arazo hauei guztiei aurre egitea zaila bada ere, denbora falta, garrantzia kentzea eta formakuntza egokia jasotzea aldatu daitezkeen alderdiak dira esfortzu eta moldaketa batzuekin.

Lehengora itzuliz, hezkuntza emozionala irakaskuntzan sartzeko, beharrezkoa da hezkuntza hori irakasleen ezagutza pedagogikoaren parte izatea, eta, horretarako, ezinbestekoa da haien prestakuntzan ezagutza-eremu garrantzitsua izatea (Suberviola-Ovejas, 2012). Horregatik, irakaslegaiak formatzea beharrezkotzat hartzen da. Gainera, galdetegitik jasotako datuak berreskuratuz, argi ikusten da %100ari gustatuko litzaiokeela emozioen inguruko formakuntzarenbat eskaintzea unibertsitateak, honek, irakaslegaien interesa, inplikazioa eta ezagutza zabaltzeko nahia adierazten dituelarik. Beraz, etorkizunean gizartean hobekuntzak lortu nahi baditugu, erraz diezaiegun bidea.

(2) Haur Hezkuntzan emozioak lantzeko programen azterketa (15. eranskina).

Programa aztertzei ateratako emaitzei erreparatuz, argi ikusten da ikastetxean jarraitzen den barne programak alderdi gehienak ukitzen baditu ere, ez duela lortzen hezkuntza emozionala guztiz lantzea, gainazalean geratzen da kasu batzuetan, ez du ikasgelan topatzen den dibertsitate guztiari erantzutea lortzen. Programan izatez ezarritako edukien artean, ez dira adibidez Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako programak dituen automotibazioa, enpatia eta gatazken ebazpena edukiak sartzen; honek eragin zuzena duelarik jaso diren emaitzetan. Izan ere, emaitzek eta egunerokoak adierazten dute gehiago lantzea komeni diren alderdiak/edukiak zehazki hiru horiek direla; egon diren zailtasunak zehazki hiru eduki horietatik eratorritako arazoak direla, alegia. Beraz, hortik ondoriozta daiteke eduki horien beharra ezinbestekoa dela emozioen inguruko alderdi guztiak lantzerara heltzeko. Esate baterako, elkarren emozioak/sentimenduak eta hauen aurrean izandako jarrerak/jokabideak batzuetan/erdizka errespetatzen dituzte eta besteen emozioekiko enpatia ere batzuetan/erdizka erakusten dute, batzuetan ez dira gai hortaz besteen azalean jartzeko. Hori ekiditeko, lehendabiziko pausua edukietan moldaketa bat burutzea da; behin moldaketa hori eginda, eduki horiek lortzea bermatzen duten jarduerak planteatuko direlarik. Izan ere, programan planteatuta dauden jardueretatik aurrera eramaten den jarduera nagusia mindfulness da eta honek ez du lortzen hezkuntza emozionala bere osotasunean lortzea,

haurren beharrak guztiz asetzeari. Honekin esan nahi dudana da, mindfulness jarduera egokia dela emozioen inguruko alderdi zehatz batzuk lantzeko, baina ezin dugula pentsatu honekin alderdi guztiak lantzea lortzen dugula; jardura espezifikokoak ere jorratu behar dira. Jardura espezifikoko horiek, autonomia emozionala, konpetentzia soziala eta bizitzarako eta ongizaterako konpetentziak gehiago lantzeko ere erabil litezke; izan ere, emaitzak aztertu ostean hauek jorrazteko beharra ikusten da, nahiz eta orokorrean jardura desberdinek bigarren maila batean hauek lantzeko aukera ematen duten. Bisquerrak (2016) dioen moduan, besteak beste errespetua eta besteei zein geure buruari min ez egitea beti mantendu, landu eta eduki beharreko baloreak dira, egoera guztien aurrean. Hala ere, aipatu bezala batzuetan ez da nahikoa hau bigarren maila batean lantzea, zehazki hau lantzea helburu duten jarduerak ere sortu behar dira balore horiek gehiago barneratzeko.

Horretaz gain, aipatzekoa da burutzen diren ekintza solteek ere praktikotasuna, erabilpen logikoa, helburu bat eta baliogarritasuna eduki behar dutela. Horren harira aipatu nahiko nuke, emozioak modu naturalean bizitzea oztopatzen duena gizartean dagoen ohitura falta eta emozioak ezkutatzeko joera dela. Orokorrean asko kostatzen zaigu emozioak azaleratzea eta batez ere ozenki modu askean espresatzea. Hori dela eta, normalean zer moduz gauden galdetzen digutenean “ondo, eta zu?” erantzun mekanizatu honekin erantzuten dugu, nahiz eta “ondo” horren atzean milaka gauza ezkutatu. Haurrekin ere, gauza bera egiten dugu askotan, korroan daudela “zer moduz zaudete?” galdetu eta emozioei presentzia eman diegula iruditzen zaigu. Baina zer nolako presentzia eman diegu erantzun mekanizatu bat lortu badugu eta benetako emozioak azaleratzea lortu ez badugu? Benetan lortu nahi badugu emozioak azaleratzea, modu egokian eraman beharko dugu ekintza aurrera, irakasleak modu aktiboan jokatzuz (galderak egin, bera nola sentitzen den azaldu...) ekintzari erabilpen logikoa emanaz. Horretaz gain, Bisquerrak (2009) azpimarratzen duen moduan, egunerokotasunean bizitzen dituzten egoera desberdinez baliatzea da aproposena emozioak lantzeko. Gainera, aipatzekoa da orokorrean besteei emozioak azaltzeak askotan lotsa eman ohi diela, gehienbat emozio negatiboak direnean eta hau ere modu praktikoan jorratu daitekeela deritzot. Izan ere, gutxitan/gutxi dira emozio negatiboak ulertzeko eta baloratzeko gai eta arbuiatu egin ohi dituzte, txarrak izango balira bezala. Bestalde, zailtasun handienetarikoa emozioak erregulatzerako unean agertu da, emozioak modu egokian gidatzeko gaitasunean; zeinak besteak beste, emozio, kognizio eta jokabidearen arteko kontzientzia hartzea eskatzen duen (Bisquerra, 2003). Arazo zein zailtasun pertsonal/emozional horren zergatia, analfabetismo emozionala da; heziketa emozional landu eta egokiaren faltak eragina (Bisquerra, 2016).

(3) Haur Hezkuntzako bost urteko gelan emozioak lantzeko proposamena diseinatzea eta aurrera eramatea (16. eranskina).

Tailerra aurrera eramatearekin batera, hobekuntzak eman direnaren ondorioa atera daiteke; tailerra egin aurretik betetako erregistro taula, tailerra egin ostean betetako taularekin alderatuz. Emaitzek erakutsi dute oso ondo egokitu direla jarduerak taldera; praktikoak, funtzionalak eta baliagarriak izan direla adieraziz. Hori dela eta, esan daiteke, modu egokian funtzionatzen duen tailerra izanik eta egoera konkretu batzuetara moldatzeko aukera eskaini duelarik, egokia nahiz multifuntzionala/polibalentea dela topatutako errealitate zein dibertsitatera moldagarria delako. Horrek, ikasgelan topa daitekeen aniztasuna kontuan hartuz, haurren beharrak asetzea ahalbidetzen duela ahaztu gabe.

Lortutako datu positiboek beraz, lerro berean jarraitu behar dela ikustarazten dute, izan ere, nahiz eta izugarritzko hobekuntza zein progresiorik ez gertatu (epe laburrean eraman ahal izan direlako jarduerak aurrera), hobekuntza txikiak eta honekin batera progresio txiki bat eman da. Hori dela eta, progresioak jarrai dezan, ezinbestekoa da uneoro taldearen beharretara eta dibertsitatera/mailara egokitzen joatea, ikasgelako baldintzetara egokitu behar den moduan. Tailerrak eskaintzen duen moldagarritasun eta malgutasunari esker, moldaketa txikiekin emozioan geroz eta sakonago lantzea eta hutsune nahiz zailtasunakin batera topatzen diren zuloak tapatzea lortuko da. Izan ere, ez da ahaztu behar emozioak modu progresiboan lantzen joan behar garela bizi garen bitartean. Bisquerrak (2009) dioen bezala, emozioek jokamoldearen funtzio motibatzailea, egokitzailea, informatzailea, soziala zein bizirik irautekoa dute, eta guztiak dira beharrezko gure bizitzan. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da hezkuntza emozionala bizitzako lehen momentutik hasia lantzen eta ez uztea sekula lanketa hori bizi garen bitartean (Bisquerra eta Hernández, 2017).

Lorpenei helduz, esan beharra dago, tailerra burutu ondoren orokorrean haur talde osoarengan nabaritu bada ere progresu minimo bat, bereziki HAURRA 1ek eta HAURRA 3k izan duten eboluzioa izan da nabariena; zehazki, zailtasun konplexuenerakoak erakutsi dituzten bi haurrenak. Honekin, argi geratu da jolasaren bidez talde txikietan zein handian sortutako konfiantza eta segurtasun eremuak asko lagundu duela, funtsezkoa dela, alegia. Modu horretan, esaterako, harremanak sendotzea lortu da eta autokonfiantza nahiz automotibazioa sustatzea. Beraz, denbora gehiagoren baldintzapean bide beretik jarraitzea egokia da.

Lanaren mugak eta hobekuntzarako proposamenak

Espazio eta denbora aldetik nahiz eta hasiera batean planteatutakoan moldaketa batzuk burutu behar izan diren, lanean ezarritako hiru helburuak lortu dira. Lehen helburutik

ateratako ondorioak, Suberviola-Ovejas (2012)k eginiko ikerketatik ateratakoaren antzekoak dira. Bigarren helburutik ateratakoek, ikastetxean lantzen den programan egin beharko liratekeen aldaketak azaleratzen dituzte Hezkuntza Emozional egokia eta osoa bermatu dadin. Azkenik, hirugarrenak eskaintako emaitzek, eskoletan baliogarria eta aplikagarria den tailerra dela ziurtatzen dute. Beraz, Hezkuntza mailan dauden hutsunez ohartzeaz eta hauek betetzeko beharra ikustarazteaz gain, Hezkuntza Emozionala modu egokian lantzeko irizpide, zein proposamen desberdinak ekarri ditu lan honek, egungo dibertsitatera eta egoera ezberdinetara egokitzea ahalbidetuz. Gainera, aipatzekoa da ikastetxean modu trasbersalean ez ezik kasu zehatz batzuetan proposatutako jarduerak ere jarraituko dituztela burutzen.

Hausnarketa pertsonala

Lan hau burutzeko hasieratik amaierara arte eraman den prozesua oso praktikoa, funtzionala eta logikoa izan dela iruditzen zait. Teoriatik abiatuz, lan honekin lortu nahi izan diren hiru helburuak ezarri eta helburu horiek lortzeko egin beharrekoa planifikatu ondoren, alderdi praktikoari heldu nion; teoria aldetik jasotako ezagutza, errealitatean topatutakoarekin alderatzeko aukera sortuz. Prozesuan zehar zailtasun handiegirik izan ez badut ere, egia da tailerra ezin izan dudala aurrera eraman planteatu moduan eta honek moldaketa batzuk burutzea suposatu duela. Lanari dagokionez berriz, gaia hasiera batean teoria aldetik nahiko ezezaguna zitzaidan arren, oso interesgarria iruditzen zitzaidan eta egun, jakin-min handia nahiz alor honetan formakuntza zabaltzeko nahia sorrarazi du nigan. Emozioen inguruan dudak ezagutza zabaltzeaz gain, Hezkuntza Emozionala lantzearen beharra ikusi eta bizitzeko aukera ahalbidetu dit, izan ere, Torok (2012) dioen moduan, *¿De qué sirve que un niño sepa colocar Neptuno en el Universo si no sabe dónde poner su tristeza o su rabia?*. Emaitzei dagokienez, lehenengo bi helburuetatik jasotako emaitzak nahi bezain onak izan ez badira ere, honek hausnartzera bideratu nau eta espero dut lan hau irakurtzen duen oro ere hausnartzera bideratzea; gaur egungo egoera aldatzeko eman beharreko lehen pausoa hausnartzea baita, honen ondoren bakoitzaren aukeren/mugen arabera hartu beharreko erabakiak hartzeko, hezkuntza aberats eta inklusiboa lortzeko. Azken helburuari erreparatuz aldiz, tailerrak orokorrean alderdi guztiak indartzeko balio izan duela eta hobekuntzak lortu dituela deritzot. Hala ere, lorpen garrantzitsuenak, emozioen gaia lantzeko eta jarduerak burutzeko haurren interesaren piztearekin eta konfiantzazko konfort gune/giro bat sortzearekin batera, jardueraren bidez autoestimua, autokonfiantza eta autoerregulazioaren nabarituriko aurrerapausuak izan dira. Aipatutako guztia kontuan hartuz, esan dezaket *Emozioak dantzan* tailerrak Hezkuntza Emozionala modu egokian lantzea ahalbidetzen duela.

Erreferentziak

- Aierdi, A., Ezeiza B., eta Goikoetxea K. (2010). *Adimen emozionala*. Hik Hasi. 147. (12-15)
- Aritzeta, A., Pizarro, M., eta Soroa, G. (2008). *Emozioak eta heziketa*. Erein.
- Aritzeta, A. eta Soroa, G. (2013). *Emozioak eta gaitasun sozioemozionalak*. Bilbao: UEU.
- Bernal, A. eta Cárdenas, A. R. (2009). *Influencia emocional del profesorado en la construcción de la identidad del alumnado*. *Bordón* 61 (3).
- Berrigasteiz (2008). *Adimen emozionala Haur Hezkuntza 2.zikloa (3-4 urte)*.
- Berrigasteiz (2008). *Adimen emozionala Haur Hezkuntza 2.zikloa (5 urte)*.
- Bierman, K., Domitrovich, C., Nix, R., Gest, S., Welsh, J., Greenberg, M., Blair, C., Nelson, K., eta Gill, S. (2008). *Promoting academic and social-emotional school readiness: The Head Start REDI program*. *Child Development*, 79, 1802–1817.
- Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar*. Bartzelona: Praxis S.A.
- Bisquerra, R. (2003). *Educación emocional y competencias básicas para la vida*. *Investigación Educativa*, 21(1), 7-43. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://revistas.um.es/rie/article/view/99071>
- Bisquerra, R. (2002). *La práctica de la orientación y la tutoría*.
- Bisquerra, R. (2005). *La educación emocional en la formación del profesorado*. *Formación del Profesorado*, 19 (3).
- Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Madrid
- Bisquerra, R. (2015). *Universo de emociones*. Valentzia: PalauGea.
- Bisquerra, R. (2016). *Educación emocional (konp.)*. Bilbao: Desclée de Brower.
- Bisquerra, R. (Coord.). (2011). *Educación emocional*. Bilbao: Desclée de Brower.
- Bisquerra, R. eta Hernández S. (2017). *Psicología positiva, educación emocional y el programa aulas felices*. *Papeles del Psicólogo*, 2017, (38), 58-65.
- Bisquerra, R. eta Pérez, N. (2007). *Las competencias emocionales*. *Educación XXI*, (10), 61-82.
- Blair, C., eta Razza, R.(2007). *Relating effortful control, executive function, and false belief understanding to emerging math and literacy ability in kindergarten*. *Child Development*, (78), 647–666.
- Burke, C. (2010). *Mindfulness-based approaches with children and adolescents: A preliminary review of current research in an emergent field*. *Journal of Child and Family Studies*, (19), 133–144.

- Conejero, S., Pascual, A. eta Etxebarria, I. (2007). *Emozioei begirada psikologikoa*. Uztaro, (63), 77-89.
- Darwin, C. (1872/1984): *La expresión de las emociones en los animales y en el hombre*. Alianza Editorial, Madril.
- Davidson, R., Goleman, D., Punset, E. eta Punset, E. (2012). *Redes 130: Aprender a gestionar las emociones*. Hemendik eskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=q-KkdMrAz-8>
- Flook, L., Smalley, S.L., Kitil, M.J., Galla, B.M., Kaiser-Greenland, S., Locke, J., Ishijima, E., eta Kasari, C. (2010). *Effects of mindful awareness practices on executive functions in elementary school children*. *Journal of Applied School Psychology*, (26), 70–95.
- Goleman, D (1995). *Inteligencia emocional*. Bartzelona, Kairós. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.codajic.org/sites/www.codajic.org/files/Inteligencia%20Emocional%20%20Daniel%20Goleman.pdf>
- González, R. C., Aranda, D. R., eta Berrocal, P. F. (2010). *Docentes emocionalmente inteligentes*. *Formación del profesorado*, 13(1), 41-49
- HEZIBERRI 2020, Uriarte (2014). *Hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Hik Hasi (2014). *Emozioak gorputz hezkuntzan*. *Hik Hasi*, 192.alea. Honako webgune honetatik berrskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20141101/emozioak-gorputz-hezkuntzan>
- Hik Hasi (2016). *Jolas sinbolikoa, adimenaren oinarri*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20160808/jolas-sinbolikoa-adimenaren-oinarri>
- James, W. (1884/1985): “¿Qué es una emoción?”, *Estudios de Psicología*.
- Kabat-Zinn, J. (1982). *An outpatient program in behavioral medicine for chronic pain patients based on the practice of mindfulness meditation: Theoretical considerations and preliminary results*. *General hospital psychiatry*,(1), 33-47.
- Llenas, A. (2012). *Koloretako Munstroa*. Bartzelona: Flamboyant.
- López, È. (2007). *Educación emocional. Programa para 3-6 años*. WK Educación.
- Lutz, A., Dunne, J., eta Davidson, R. (2007). *Meditation and the neuroscience of consciousness: An introduction*. New York: Cambridge University Press.
- Maslow, A. H. (1943). *A theory of human motivation*. *Psychological Review*,(4), 370–396. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://doi.org/10.1037/h0054346>

- Mayer, J., Salovey, P., Caruso, D. eta Cherkasskiy, L. (2015). *La inteligencia emocional*. Santander: Fundación Botín.
- Mora Teruel, F. (2013). *¿Qué es una emoción?*. Arbor. 189 (759), 1-4.
- Ozamiz, N.(2017).*Adimen emozionala eskolan: gaitasun sozialak jolasen bitartez barneratuz*. Hiria: Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko Errektoreordetza.
- Ozamiz, N. eta Ruiz, S. (2017). *Etorkizuneko osasun mentala sustatuz*. Hik hasi, (217), 26-29. Honako helbide honetatik berreskuratua:
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20170401/adimen-emozionala-eskolan>
- Pérez-Gonzalez, J. , eta Pena, M. (2011). *Construyendo la ciencia de la educación emocional*. Padres y Maestros.
- Piaget, J. (1973). *Memory and intelligence*. New York: BasicBooks.
- Punset, E (2005). *El viaje a la felicidad*. Destino.
- Rafael, J. (2007). *Teoría de las Necesidades de Maslow*.
- Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxea. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<http://www.sagradocorazoncarmelitas.com/>
- Sanz Marin, A. (2002) *¿Quiere alguien explicarme que es inteligencia emocional?* Hobby.
- Segal, W., eta Williams, J. Teasdale.(2002). *Mindfulness-based cognitive therapy for depression: a new approach to preventing relapse*.
- Segura Morales M. (2007). *Educación de las emociones y los sentimientos*. Narcea.
- Suberviola-ovejas, I. (2012). *Auto-percepción del profesorado sobre su formación en educación emocional*. Vivat Academia.
- Toro, J. (2015). *¿De qué sirve que un niño sepa colocar Neptuno en el Universo si no sabe dónde poner su tristeza o su rabia?. La nueva crónica*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.lanuevacronica.com/de-que-sirve-queun-nino-sepa-colocar-neptuno-en-el-universo-si-no-sabe-donde-poner-su-tristeza-osu-rabia>
- Txorierriko Mankomunitatea (2016). *Hezkuntza emozionala ikastetxean*. Honako helbide honetatik berreskuratua:
<http://www.txorierrri.eus/EUES/ZERBITZUAK/HEZKUNTZA/Orrialdeak/default.aspx>
- Vallés, A. eta Vallés, C. (2000). *Inteligencia emocional*. Aplicaciones educativas. Madrid: EOS.
- Wundt, W. (1894): *Lectures of human and animal psychology*, MacMillan, New York.

Eranskinak

1.eranskina

1.Taula. Emozioen sailkapena. Iturria: Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008.

	Oinarrizko emozioak	Emozio konplexuak
Negatiboak	Hira, beldurra, goibeltasuna	Lotsa, gorrotoa, jeloskortasuna, bekaizkeria, mespretxua, atsekabea, ardura, etsipena, erruduntasuna, asperdura, konfidantza-falta.
Positiboak	Poza, interesa, sorpresa	Gozamena, jakin-mina, desira, adorazioa, harrotasuna, estasia.

2.eranskina

2.Taula. Emozioen unibertsoa. Iturria: Bisquerra, 2015.

EMOZIOEN UNIBERTSOA	
Emozio negatiboak	
Beldurra	Beldurra, panikoa, sustoa, fobia, etab.
Ira	Amorrua, arbuiatzea, inpotentzia, mespretxua, biolentzia, tentsioa, etab.
Tristura	Depresioa, frustrazioa, dezepzioa, pena, mina, kezka, bakardadea, etab.
Nazka	Desprezioa, mespretxua, gorrotoa, gaitzespena, etab.
Antsietatea	Estresa, urduritasuna, ezinegona, segurtasun eza, estutasuna, etab.
Emozio positiboak	
Alaitasuna	Euforia, asaldura, asebetetzea, plazerra, lasaitasuna, umorea, etab.
Maitasuna	Onarpena, afektua, konfiantza, enpatia, afnitatea, etab.
Poztasuna	Ongizatea, satisfakzioa, armonia, oreka, lasaitasuna, etab.
Emozio anbiguoak	
Ezustekoa	Aurre hartzea, itxaropena, harridura, nahastea, ezinegona, admirazioa, etab.
Emozio sozialak	Lotsa, kulpa, apaltasuna, lotsagorritzea, etab.
Emozio estetikoak	Obren eta edertasunaren aurrean bizitzen diren emozioak dira.

3.eranskina

3.Taula. Erantzun emozionalen osagaiak. Iturria: Bisquerra, 2009.

Neurofisiologikoa	Portaerazkoa	Kognitiboa
Nahi gabeko erantzunak: -Takikardia -Izerdia -Lotsaz gorritzea -Ahoa lehortzea -Neurotransmisoreak -Hormonak jariatzea -Arnasketa -...	Aurpegiko espresioak (disimulatu egin daitezke): -Ahots tonua -Bolumena -Erritmoa -Gorputzaren mugimenduak -...	Bizipen subjektiboa, Sentimenduekin kointziditzen du. Hizkuntzaren jakintza mailaren arabera emozioak etiketatzea ahalbidetzen du. Autoinformearen bidez soilik ezagutu daiteke.

4.eranskina

4.Taula. Oinarrizko emozioak eta haien funtzioak. Iturria: Aritzeta, Pizarro, eta Soroa, 2008.

EMOZIOA	FUNTZIOA
POZA	Arrakastazko estrategiak indartzen ditu, trebetasun berrien bilaketa errazten du, erronka berriei aurre egiten laguntzen du, eragin-trukea abian jartzeko edo jarraitzeko mezu soziala igarotzen du.
SUMINA	Jomugaren alderanzko orientazioa berrezartzen du, besteren jokamoldea aldatzen du, mendekua.
GOIBELTASUNA	Energia kontserbatzen du, baliabideak lortzen errazagoak diren jomugetara zuzentzen ditu, gainerakoei laguntza eskatzera bultzatzen du.
BELDURRA	Bizirik irautea, kaltea galaraztea, autoestimuari eustea, gainerakoei adi egotea egoera galarazteko edo laguntzeko.
INTERESA	Ingurutik informazioa hartzea; sozialki, harremanetan jarzteko desira adierazten du.

5.eranskina



1.Irudia. Inteligentzia emozionala. Iturria: Txorierri mankomunitatea, 2008.

6.eranskina

5.Taula. Konpetentzia motak. Ituria: Bisquerra eta Pérez, 2007.

KONPETENTZIA MOTAK	
SOZIO-PERTSONALAK	TEKNIKO-PROFESIONALAK
-Motibazioa -Autokonfiantza -Autokontrola -Pazientzia -Autokritika -Autonomia -Estres kontrola -Asertibitatea -Erresponsabilitatea -Erabakiak hartzeko gaitasuna -Talde espiritua -...	-Ezagutzen oinarriko zein espezialen dominioa. Profesioak eskatutako lan eta trebetsuna edukitzea. -Profesiorako ezinbestekoak/oinarrikoak diren teknikak -Organizazio gaitasuna -Koordinazio gaitasuna -Interneteko lanerako gaitasuna -Adaptatzeko gaitasun.

Taulan ikus daitekeen moduan, denboran zehar eginiko ikerketen emaitzek erakusten dutenez, konpetentzia sozio-pertsonalak gailentzen dira (Bisquerra eta Pérez, 2007). Garapen tekniko-profesionalaren inguruko konpetentziak, konpetentzia funtzionalen moduan ezagutzen direnak, eremu profesionalean edo espezializazioan erlazioa duten ezagutzan eta prozeduran mugatzen dira. Gainera, ebidentziak daude non ezagutza akademikoa, haurrak motibatuta badaude, inizatiba badute, erresponsabilitatea badute, etab. hobeto eskuratzen dela azaltzen duten; hau da, konpetentzia emozionalak badituzte ezagutza akademikoa lortzea errazago egingo zaie. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da hezkuntzan konpetentzia hauen garapena sustatzea, curriculumean txertatuz. Beraz, egokiena, bi dimentsioak lantzea/garatzea izango litzateke modu sinergiko batean (Bisquerra eta Pérez, 2007).

7.eranskina

1.Kontzientzia emozionala:

1.1.Emozio propioen kontzientzia hartzea: sentimendu zein emozio propioen kontzientzia zehaztasunez hautematean datza; identifikatuz eta etiketatuz.

1.2.Emozioei izena jarri: zehaztasuna emozioei izena jartzerakoan eta adierazterakoan.

1.3.Besteen emozioak ulertzeko gaitasuna: besteen emozioak identifikatu eta ulertzeko gaitasuna, enpatia erabiliz beste azalean jartzeko gaitasunarekin batera.

2.Erregulazio emozionala:

2.1.Kontzientzia hartzea emozio, kognizio eta jokabidearen artean: emozio egoerek eragina izaten dute jokabidean eta hauek emozioetan. Hala ere, biak erregulatu daitezke kognizioari esker. Hala nola, arrazoiketa eta kontzientziaren bidez.

2.2.Espresio emozionala: emozioak modu egokian espresatzeko gaitasunari deritzo. Bestalde, barneko emozio egoerak ez duela zertan kanpoko espresioarekin zerikusirik izan ohartu behar gara.

2.3.Erregulazio emozionala: sentimendu eta emozio propioek askotan erregulatu beharra izaten dute. Besteak beste, inpultsibitatea erregulatzea, egoera emozional negatiboak prebenitzeko frustrazioarekiko tolerantzia bermatzea, etab.

2.4.Aurre egiteko abilezaiak: emozio negatiboari aurre egiteko abilezien artean, autoerregulazioko estrategiak erabiltzea da ohikoena.

2.5.Emozio positiboak sortzeko gaitasuna: norberaren ongizatea auto-gestionatzeko gaitasuna da, emozio positiboak sortuz bizi kalitate hobeko baten bila.

3.Autonomia emozionala:

3.1.Autoestimua:norberarekiko irudi positiboa izatea; norberaren buruarekin arrotz sentitzea, norberaren buruarekin erlazio ona izatea, alegia.

3.2.Automotibazioa: automotibatze gaitasuna izatea eta bizitza pertsonaleko, sozialeko, denbora libreko...jardueretan inplikatzeko.

3.3.Jarrera positiboa: bizitzan jarrera positiboa izateko gaitasuna. Esate baterako, pertsona ona, justua, errukitsua edo eskuzabala izatea.

3.4.Erantzukizuna: jokabide seguruetan, osasuntsuetan edo etikoetan inplikatzeko intentzioa. Gainera, beharrezkoa da erabakiak hartzerako unean erantzukizuna izatea.

3.5.Auto-efikazia emozionala: norbanakoa nahi duen moduan sentitzeko gai sentitzen denean gertatzen da. Hau da, norbanakoak bere esperientzia emozionala onartzen du, bakarra eta ex-zentrikoa izanda edota kulturalki emozionala.

3.6.Arau sozialen analisi kritikoa: mezu sozialak zein kulturalak ebaluatzeko gaitasuna eskatzen du.

3.7.Bizitzak eman ditzakeen egoera desberdinei aurre egiteko erresilientzia.

4.Konpetentzia soziala:

4.1.Oinarrizko abilezia sozialak menderatzea: entzutea, agurtzea, eskerrak ematea, mesede bat eskatzea, barkamena eskatzea, etab.

4.2.Besteekiko errespetua: desberdintasunak hautematea eta onartzea, indibidualak zein taldekoak, eta pertsona guztien eskubideak baloratzea/errespetatzea.

4.3.Komunikazio harkorra: besteei erantzutea edota entzutea hitzeko zein hitzik gabeko komunikazioaren bidez.

4.4.Komunikazio espresiboa: elkarriketak hasteko eta mantentzeko gaitasuna da, norberaren pentsamendu eta sentimendu propioak espresatzea, hitzeko naiz hitzik gabeko komunikazioan.

4.5.Emozioak partekatzea: kontziente izatea erlazioen estruktura eta naturaltasuna besteak beste zintzotasun espresibotik datorrela.

4.6.Jokabide pro-soziala eta kooperatiboa: txandak errespetatzeko gaitasuna, jatorrasun jarrera eta errespetua izatea besteekiko, etab.

4.7.Asertibitatea: jokabide orekatua mantentzea oldarkortasunaren eta pasibotasunaren artean. Honek, bere gain hartzen ditu norberaren eskubideak espresatzeko eta defenditzeko gaitasuna, iritzia eta sentimenduak azaleratzeko gaitasuna, etab.

4.8.Eztabaiden prebentzio eta soluzioa: eztabaida sozialak eta arazo pertsonalak identifikatzeko, prebenitzeko eta aurre egiteko gaitasuna izatea. Honen adibide, negoziazioa dugu.

4.9.Egoera emozionalak kudeatzeko gaitasuna: erregulazioa behar duten eta besteengan oso presente dauden egoera emozionalak gutxitzeko abilezia da.

5.Bizitzarako eta ongizaterako konpetentziak:

5.1.Helburu egokitzailak zehaztea: helburu positibo eta errealistak zehazteko gaitasuna.

5.2.Egunerokotasunean gertatzen diren egoera pertsonaletan, familiarretan... erabakiak hartzea: ardura norberak bere gain hartzea suposatzen du, balore etikoak, sozialak eta segurtasunezkoak kontuan izanda.

5.3.Laguntza eta errekursoak bilatzea: laguntza beharrak identifikatzean eta errekursoak nola aurkitu jakitean datza.

5.4.Herritartasun aktiboa, zibikoa, arduratsua, kritikoa eta konprometitua izatea: besteak beste, norberaren eskubide eta betebeharrak ezagutzea, zein solidaritate eta konpromisoa adieraztea eskatzen da.

5.5.Ongizate subjektiboa: kontzienteki gozatzeko gaitasuna; gainera, elkar eragiten dugun pertsonen transmititzea ere sartuko litzateke alderdi honetan.

5.6.Jalgi: bizitza profesionalean, pertsonalean eta sozialean esperientzia optimoak sortzeko gaitasunari deritzo.

8.eranskina



2.Irudia. Zeharkako kompetentziak.Iturria: Txorierri mankomunitatea, 2008.

9.eranskina

1.Ikasleei gertatzen zaienaz interesatzea.

Egunero egin daitekeen jarduera txiki bat da. Azken finean, eguneroko errutinaren parte bilakatu daiteke zer moduz dauden galdetzea, izan ere, horrela haurrak emozionalki nola dauden jakingo dugu. Gainera, irakasleak ez ezik makinistak ere galdetu dezake ea zer moduz dauden eta jakina, biek parte-hartu. Hau da, irakaslea errutina berri honen partaide/adibide ere izan daiteke. Horretaz gain, aipatzekoa da denboraren arabera modu desberdinean antolatu/planteatu daitekeela jarduera hau. Denbora asko dugun egunetan, banan bana joan gaitzke galdetzen (irakaslea zein makinista) ea zer moduz dauden eta emozio horren zergatia. Denbora gutxi dugun egunetan aldiz, orokorrean galdetu dezakegu eta unean eskua aldatzen dutenek soilik erantzutea eskatu. Hala ere, kontuan izan behar da, haur bakoitzaren erritmo eta nahiak kontuan hartu behar direla eta haurren bat deseroso sentituz gero eta bere emozioa azalerratu nahi ez badu ez dugula behartu behar, bakoitzari bere denbora utzi behar diogu eta bere nahia errespetatu.

Jarduera honek, beren emozioak azaltzeko eta bestekiko interesa izateko gaitasuna garatzeko aukera sortzen du. Horretaz gain, kontzientzia emozionala lantzen laguntzen du eta baita emozioak hitzez definitzen ere. Izan ere, jardueran zehar irakaslearen rola/betebeharra funtsezkoa izango da, parte-hartze aktiboa izan behar du eta uneoro adi egon hurrek esandakoari. Modu horretan, emozionalki nola dauden jakiteaz gain, eurei beren emozioak nola azalerratu, definitu, eta kontzeptu berriak irakastea lortuko dugu. Gainera, euskal-mintza sustatzeko, arretaz entzuten ikasteko (entzuketa aktiboa sustatzeko), ulermena lantzeko eta kompetentzia soziala garatzeko ere balio digu.

2.Enpatia izan eta jarri beti arreta emozionala.

Komunikazioa ezinbestekoa da konfiantza-giro egokia sortzeko; irakasleak ikaslearekiko enpatia azaltzen badu ikaslea ulertua sentituko da, gehiago motibatuko da eta portaera egokia erakutsiko du esandakoaren/eskatutakoaren aurrean. Portaera egoki horiek ez dira zigorren ondorio izango, arauak ulertzearen eta arauak ez betetzeak besteentzat izan ditzakeen ondorioez jabetzearen ondorio baizik. Garrantzitsua da beraz ikasleei klasean zehar nola sentitzen diren galdetzea, babesa ematea, malgutasuna ematea, epaituak ez sentitzea eta beti hizkuntza positiboa erabiltzea. Konfiantza/segurtasun giro horrek beren emozioak naturaltasunez adieraztera eta azalerratzera eramango ditu.

3. Irakatsi balizko ikuspegiak ulertzen eta gatazkak konpontzen.

Funtsezkoa da sor daitezkeen gatazkak aprobetxatzea, horiek eguneroko bizitzako zati direla azaltzeko eta naturaltasunez bizitzen ikasteko. Garrantzitsua da ulertaraztea ez direla ez onak, ez txarrak; aipatu bezala egoera horiek naturalak eta arruntak dira harreman sozialetan, eta askotan, besterik gabe, ikuspegi desberdinen ondorioz gertatzen dira. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek gatazkak konpontzeko trebetasunak lantzea eta eskuratzea ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo gatazka desberdinak kudeatzen jakiteko. Zer dela eta? Bada, pentsatzeko eta jokatzeko modu ezberdinak dituzten pertsonak izanik, gatazka beti izango delako gure eguneroko bizitzaren zati. Hori dela eta, azaldu bezala, ezinbestekoa da alderdi hau ondo garatzea behar den uneetan kudeaketa on bat izateko.

4. Sartu begirada estimatzailea eta une bakoitzean sustatu haien autoestimua.

Hainbat ikerketek frogatu dute garuna bi aldetan banatzen dela (ezkerra eta eskuina) eta nagusitzen den aldearen arabera pertsonaren gaitasunak desberdinak direla. Ezkerreko aldea nagusitzen denean pertsona arrazionalagoak, analitikoagoak, ordenatuagoak eta detailezaleagoak aurki daitezke. Bestalde, garunaren eskuineko aldea nagusitzen denean berriz, pertsona intuitiboagoak, sortzaileagoak, ameslariagoak eta enpatikoagoak aurkitzen dira. Hori dela eta, ikasleek motibazio desberdinak dituzte eta horregatik da funtsezkoa oreka aurkituz bi aldeak indartzea.

Horretarako, argi eduki behar da ezinbestekoa dela ikasle bakoitza ezagutzea, begirada estimatzailearekin begiratu ahal izatea, gaitasun txikiren bat dutela ikusi ahal izatea eta ikustaraztea, eta abar. Beraz, neska eta mutil bakoitzak talenturen bat duenez, beharrezkoa da ahal den neurrian alderdi hori indartzea zailtasunak dituen alderdiak indartzean soilik jarri beharrean fokua egin ohi den moduan.

5. Transmititu emozioarekin.

Emoziorik ez duen ezer ez da baliagarria ikaskuntzan. Hori dela eta, ezinbestekoa da hurrei interesa piztuko dien baliabideak, jarduerak zein dinamikak sortzea landu nahi duguna ahalik eta modu dibertigarrienean, jolasaren bidez lortzeko. Klaseak interes/jakin-min puntutik hasi eta bideratu behar dira hurren arreta bermatzeko eta ikastea plazer moduan ikusteko eta ez inposaketa moduan. Haurrak hunkitzen, liluratzen, harritzen, aho-zabalik uzten, emozionatzen saiatu behar gara; egunero zerbait berria ikasi dutenaren sententzia helarazi behar zaie eta jakintza berri hori erabilgarria eta berezia dela ikustarazi. Horretarako,

beharrezkoa da irakasleok ere irakatsi nahi dugun horri garrantzia/balioa/zentzua ematea nahiz gu geu ere emozionatzea eta haurrei sentsazio hori transmititzen saiatzea.

Beraz, funtsezkoa da hezkuntza-testuingurura egokitutako jarduera-proposamenak ekartzeaz gain, ikasgelako eguneroko lanean eragina izan behar duten iradokizun metodologikoak eta jarduera-irizpideak ere sortzea. Jakina, hori eraginkorra izan dadin, curriculuma integratu beharko litzateke ahal den guztietan. Horretaz gain, garrantzitsua da irakaskuntzako esku-hartzeak ez izatea jarduera isolatuak, jarraipenik gabeak, baizik eta ikasgelako zeregin guztietan zeharkako zein eragin zuzena duen jarduera/ekintza jarraiak izatea komeni da, eta hauek etengabe lantzea. Horrek irakasleen sentsibilizazioa eta prestakuntza eskatzen ditu abiapuntu gisa (Bisquerra eta Hernandez, 2017).

10.eranskina

Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxearen “barne proiektua” ikasleak bizitzarako prestatzeko tresna batzuk prestatu eta eskaintzeko beharretik sortu da. Gaur egungo gizarteak sortzen zein markatzen duen estresak eta bizi-erritmoak norbera bere pertsonagandik bereiztea eragiten du, norbere emozio eta sentimenduetatik bereiztea, alegia; azken batean, garen horretatik bereiztea (Sagrado Corazón Carmelitas ikastetxeko webgunetik berreskuratua).

Gaur egun bizi den egoera dela eta, premiazkoa da eguneroko zereginetan denborak eta errutinak programatzea, bizitzen denaren eta sentitzeko moduaren jakitun izateko. Erlaxazioari, meditazioari eta kudeaketa emozionalari eskainitako denbora izatea beharrezkoa da beraz; horien bidez, norbere esentziarekin/ pertsonarekin, konektatzea lortuko delako.

Barne proiektuak irakasle guztien prestakuntza eskatzen du, zaila baita bizitza kontzientea eramaten irakastea, baldin eta irakasleek ez badute euren egunerokotasunean momenturik eskaintzen nola dauden jakiteko eta bizitzaren xehetasun txikiez jabetzeko. Horretarako, ikastetxean arlo honetan arduratzen den talde bat dago. Hilabetean behin elkartzen dira eta beharrezkoa baldin bada, talde handiekin edo batzuetan klaustro guztiarekin ere elkartzen dira. Haiek proposatzen dituzte emozioak eta espiritualtasuna lantzeko jarduera nahiz materialak. Ondoren, irakasle bakoitzak proposatu diren jarduera zein material horietatik bere gelarako aproposenak iruditzen zaizkionak aukeratu eta lantzen ditu.

Hori dela eta, barne proiektu honek bi arlo hartzen dituela bere baitan esan daiteke: alde batetik espiritualtasun erlijiosoarekin lotuta dago eta bestetik berriz, mindfulnessekin. Mindfulness teknika ezberdinen lanaren bidez, gorputz kontzientzia, meditazio gidatuak eta gorputz ekintzak (batak besteari masaje askea gorputz osoan zehar) burutzen dira. Horren bidez, aipatu bezala, konpetentzia espirituala garatu eta transzendentziara irekitzea ere bilatzen baita proiektu honekin. Esate baterako, mindfulness egiteko youtuben topatutako hizkirik gabeko abestiak/musika lasaia erabiltzen da, irakasleak gidatuz egin beharrekoa (begiak itxi, arnasketa kontrolatu, begiak ireki eta esku bat laztandu, ondoren besoa, hankak, aurpegia... ekintza bera beste hemisferioarekin... eta azkenik binaka jarrita masaje bat eman batak besteari txandaka) edota bestela, mindfulness edo yoga gidatua jartzen da youtuben ikasle zein irakasleek elkarrekin burutzeko.

11.eranskina

Hezkuntza-eskaintzari erreparatuz, Haur Hezkuntza (bi urte eta Bigarren Zikloa eskaintzen ditu), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxillergoa eta Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren Heziketa-Zikloa hartzen ditu bere baitan. Araututako irakaskuntza hori, eskolaz-kanpoko jarduera eskaintza zabal batekin osatzen da: kultura, musika, kirol eta hizkuntza jardurekin.

12.eranskina

Hizkuntza proiektuari dagokionez, hiru hizkuntzak indar desberdinarekin irakasten diren ikastetxe eleaniztuna da; hau da, hizkuntza bakoitzari ordu kopuru desberdina eskaintzen zaio. Indar gutxiena gaztelerari ematen zaio, izan ere, gehiengoaren ama-hizkuntza da. Hori dela eta, gazteleraren oinarriak eta garapena edukitzea eurentzat errazagoa denez beste bi hizkuntzena baino, indar/ordu gutxiago eskaintzen zaizkio. Indar eta ordu kopuru handiena berriz, euskarari eskaintzen zaio; hizkuntza gutxitua izanik, euskara ikasteko askoren aukera bakarra ikastetxea baita. Azkenik, ingelesa dago bigarren postuan. Gaztelerari baino ordu gehiago eskaintzen zaizkio atzerriko hizkuntza delako eta hau menperatzeko denbora gehiago behar delako.

Aniztasunaren arretan berriz, Orientazio Sail bat dago, hiru psikologo, hizkuntza-premia berezien gela irakasle eta zuzendari pedagogikoei osatzen dutena. Gainera, aipatzekoa da edozein kezka edo zalantza izanez gero irakasle zein familiak jar daitezkeela kontaktuan Orientazio Saila-rekin. Horretaz gain, logopeda eta laguntzaile zerbitzuak ere eskaintzen eta ematen dira, hauren beharren arabera banatuta.

13.eranskina

Materialeari erreparatuz berriz, aipatzekoa da nahiz eta izatez proiektu bidezko metodologia erabiltzen duten, orokorrean gehienbat fitxak egitean zentratzen direla. Fitxa asko egiten dituzte eta oso eskulan gutxi, beti ere programazioaren arabera, beraz funtsezkoa izango da proposamenean hau aldatzea. Bestalde, ikasleek egunero ekartzen dituzten liburu/ipuina/albumak ere badaude ikasgelan, asko gustatzen zaien ekintza da eta orokorrean arreta handia jartzea lortzen dute. Hori dela eta, oso gustuko duten baliabidea denez, modu egokitzat har daiteke literatura emozioen lanketa sustatzeko.

14.eranskina

Irakasleei eginiko galdetegia:

(1) Adina: *(erantzun askea)*

(2) Sexua: *Emakumea/Gizona/Beste bat*

(3) Bizilekua: *Herria/ Hiria*

(4) Zenbat denbora daramazu irakaskuntzan? *(erantzun askea)*

(5) Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan?

Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit

(6) Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(7) Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(8) Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(9) Irakasleek formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzu alor honetan?

Bai/Ez/Ez dakit

(10) Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzu irakasle moduan lanean aritu zarenetik? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(11) Lan egin duzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzu? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(12) Prestakuntza/formakuntza/ikastaro horiek zeure kasa aurkitu dituzu ala eskolak/ikastetxeak aholkatuta edo eskainita? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(13) Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek? *Bai/Ez/Ez dakit*

(14) Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu? *Bai/Ez/Ez dakit*

(15) Nola definituko zenuke hezkuntza emozionala? *(erantzun askea)*

(16) Emozioen lanketan zein hutsune topatu dituzu? *(Baldin eta hutsunerik topatu baduzu) (erantzun askea)*

Irakaslegaiei eginiko galdetegia:

(1) Adina: *(erantzun askea)*

(2) Sexua: *Emakumea/Gizona/Beste bat*

(3) Bizilekua: *Herria/ Hiria*

(4) Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan?
Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit

(5) Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(6) Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(7) Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(8) Irakaslegaiek unibertsitatean formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzu alor honetan? *Bai/Ez/Ez dakit*

(9) Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzu unibertsitatean irakaslegai izan zaren urte hauetan? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(10) Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egiteko aukerarik izan duzu? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(11) Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzu? *Bai/Ez/Batzuetan/Ez dakit*

(12) Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek? *Bai/Ez/Ez dakit*

(13) Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu? *Bai/Ez/Ez dakit*

(14) Nola definituko zenuke hezkuntza emozionala? *(erantzun askea)*

(15) Praktikaldietan emozioen lanketan zein hutsune topatu dituzu? *(Baldin eta hutsunerik topatu baduzu) (erantzun askea)*

(16) Gustatuko litzaizuke unibertsitateak alor honen inguruan gehiago prestatzeko/formatzeko aukera ematea? *Bai/Ez/Ez dakit*

Haur Hezkuntzako psikologoari eta koordinatzaileari eginiko elkarrizketa:

(1) Adina:

(2) Sexua:

(3) Bizilekua: *Herria/Hiria*

(4) Zenbat denbora daramazu irakaskuntzan? Zure ustez hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? Behar adina denbora eskaintzen zaio? Haurren beharretara egokitzen da?

(5) Zure ibilbide profesionalean zehar eman diozu inoiz garrantzia berezirik emozioen lanketari? Jarri duzu inoiz beste alor, ikasgai edota ikaskuntza baten aurretik?

(6) Gizarteak eta oro har irakasleek jakintza/prestakuntza egokia dutela uste duzu?

(7) Ezagutzen dituzu emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzara bideratutako programak? Zeintzuk?

(8) (EZAGUTZEN BADITU) Programa hori/horiek egokia/k dela/direla iruditzen zaizu? Alderdi guztiak hartzen ditu/dituzte kontuan edo hutsuneren bat du/dute?

(9) (EZAGUTZEN BADITU) Prestakuntza/formakuntza/ikastaro hauek Euskal Herrian topa ditzakegu? eta estatu mailan?

(10) Zure ustez, nahiz eta emozioen lanketaren inguruan hainbat prestakuntza/formakuntza/ikastaro dauden, erraza da baliabide hauek topatzea?

(11) Emozioen lanketaren barnean zein alderdiri emango zenioke garrantzi gehien? Zein izango zen gehien azpimarratuko zenukeena Haur Hezkuntzan?

(12) Bisquerrak aipatzen dituen bost blokeetako (kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, konpetentzia emozionala, bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia) zein landuko zenuke lehendabizi Haur Hezkuntzan? zeini emango zenioke garrantzi gehiago?

(1) Adina: 45 urte

(2) Sexua: Emakumea

(3) Bizilekua: Hiria

(4) Zenbat denbora daramazu irakaskuntzan? Zure ustez hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? Behar adina denbora eskaintzen zaio? Haurren beharretara egokitzen da?

14 urte daramatzat irakaskuntzan. Ez, nire ustez oraindik asko egin behar da hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzeko, gauza batzuk ukitzen dira, aspektu batzuk, baina ez da guztiz lantzea lortzen. Gaur egun oraindik beste arlo eta gai batzuei garrantzi handiagoa ematen zaie eta emozioei oso gutxi eta ondorioz denbora gutxi eskaintzen zaie emozioei eta hauen lanketari. Gainera, orokorrean irakasleek ere ez dutenez formakuntza nahikoa hezkuntza emozionalaren inguruan ezinezkoa egiten da haurren beharrak guztiz asetzea, gai sakona eta abstraktua delako. Gainera, ikastetxeetan programazio zehatz bat jarraitu behar da eta normalean ikasgai “garrantzitsuei”, matematikari eta denbora ez “kentzeko” oso mugatuta egoten dira irakasleak emozioak lantzeko; garrantzitsua eta beharrezkoa ez den gaia da irakasle ez diren askoren ustetan, gizartean, eta horrek asko mugatzen ditu.

(5) Zure ibilbide profesionalean zehar eman diozu inoiz garrantzia berezirik emozioen lanketari? Jarri duzu inoiz beste alor, ikasgai edota ikaskuntza baten aurretik?

Psikologoa naizenez normalean emozioen lanketan zentratzen naiz beti. Nire esperientziaren arabera arazo emozionalak daude normalean haurren zailtasun akademikoen atzean, ez beti, baina askotan bai. Normalean autoestimuan, autokonfiantzan, aurkitzen dira zailtasun eta arazo handienak, emozioei lotutako gorabeheretan eta horregatik nire ustez denbora eskaini behar zaio eta landu behar den gaia da emozioena. Emozionalki ondo dauden haurrak zailtasun gutxiago dituzte ikasketetan, horregatik beste ikasgaien pare eta garrantzi berarekin jarriko nuke nik, ikasgai desberdinetan aprobetxatuko nituzke egoerak emozioak lantzeko, emozioen presentzia beti egoten saiatuko nintzen.

(6) Gizarteak eta oro har irakasleek jakintza/prestakuntza egokia dutela uste duzu?

Ez, lehen esan dizudan bezala nire ustez irakasleek orokorrean nahiz eta oinarri bat kontrolatzen duten eta badakiten, ez dute guztiz menperatzen gai hau eta orduan oso zaila da haurrekin modu egokian lantzea. Eta gizarteak orokorrean ez dio ematen garrantzia handirik gai honi. Orain, “Koloretako munstroarekin” gehiago entzuten da emozioen inguruko kezka edo jakin-mina modan jarri den fenomeno bat delako baina ez zait iruditzen oraindik behar adina garrantzia ematen zaiola eta ondo lantzen dela.

(7) Ezagutzen dituzu emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzara bideratutako programak? Zeintzuk?

Bai, nahiz eta gaur egun oso gutxi dauden badaude. Normalean jarduera solteak eta batez ere mindfulness ariketak egiten badira ere ikastetxeetan, Euskal Herrian adibidez Gipuzkoako Foru Aldundiak, Adimen Emozionala garatzeko adin/maila bakoitzeko programa sortu du. Haur Hezkuntzako 2.ziklotik hasi eta Batxilergora bitarteko programak proposatu dituzte.

(8) (EZAGUTZEN BADITU) Programa hori/horiek egokia/k dela/direla iruditzen zaizu? Alderdi guztiak hartzen ditu/dituzte kontuan edo hutsuneren bat du/dute?

Bai, egia esan egokiak direla iruditzen zait, jarudera desberdinak dituzte GROPE-en arabera sortuak eta alderdi desberdinak ukitzen dituztela iruditzen zait.

(9) Zure ustez, nahiz eta emozioen lanketaren inguruan hainbat prestakuntza/formakuntza/ikastaro dauden, erraza da baliabide hauek topatzea?

Ez, nire ustez naiz eta egon badauden ez dira erraz topatzen edota Espainiako hiri desberdinetan dira eta Euskal Herrian ez, edota online dira... Gainera, gaur egun ikastaroak eskaintzen dituzten web orri asko ez dira fidagarriak eta zaila da kondizio guztiak betetzen dituen ikastaro bat aurkitzea, baliogarria izatea... Nire ustez Foru Aldundiek erraztu beharko lituzkete prestakuntza eta ikastaroak, informazioa eskuragarri jarri eta zabaldu.

(10) Emozioen lanketaren barnean zein alderdiri emango zenioke garrantzi gehien? Zein izango zen gehien azpimarratuko zenukeena Haur Hezkuntzan?

Alderdi guztiak dira garrantzitsuak eta konplementagarriak, baina bat aukeratu beharko banu autonomia emozionala lantzea izango litzateke orokorrean, baina Haur Hezkuntzan kontzientzia emozionala, oinarritzko alderdia dela uste baitut, modu sinplean eta erakargarrian landu ahal da eta beharrezkoa da hau landuta izatea beste dena landu ahal izateko.

(1) Adina: 37 urte

(2) Sexua: Emakumea

(3) Bizilekua: Hiria

(4) Zenbat denbora daramazu irakaskuntzan? Zure ustez hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? Behar adina denbora eskaintzen zaio? Haurren beharretara egokitzen da?

11 urte daramatzat irakaskuntzan. Nire ustez nahiz eta orokorrean saiatzen garen hezkuntza emozionala lantzen ez da osotasunean lantzea lortzen, izan ere, formakuntza falta zaigu. Egia da, ni neu adibidez saiatzen naizela denbora eskaintzen eta egoera desberdinez baliatzen emozioak lantzeko, baina onartzen dut ez dudala lortzen guztiz lantzea. Nire ustez geletan gaur egun dugun aniztasuna eta baldintzak kontuan izanda oso zaila da orokorrean edozein esparru modu egokian eta aniztasuna kontuan hartuz lantzea, matematika, hizkuntzak... eta bereziki emozioak. Beraz, esango nuke naiz eta saiatu ez dela lortzen haurren behar guztiak asetzea, denboraz gain faktore asko baitaude gaia lantzea mugatzen dutenak, programazioa gehienbat.

(5) Zure ibilbide profesionalean zehar eman diozu inoiz garrantzia berezirik emozioen lanketari? Jarri duzu inoiz beste alor, ikasgai edota ikaskuntza baten aurretik?

Bai, nire ustez oso garrantzitsua da emozioak lantzea, gure buruarekin ondo egoten laguntzen digu, lasaitzen, motibatzen, harremanak sustatzen eta giro lasai eta egokia sortzen. Horregatik, nik adibidez nire bost urteko gelan “mindfulness” jarduerak egiten ditut haurrekin jolastokitik itzultzen garen bakoitzean eta bazkalondoren itzultzen garenean. Oso modu egokia dela iruditzen zait lasaitzeko eta txipa aldatzeko; zentratzen laguntzen die.

(6) Gizarteak eta oro har irakasleek jakintza/prestakuntza egokia dutela uste duzu?

Nire ustez irakasleoi formakuntza sakonagoa falta zaigu gai honen inguruan eta gizarteari orokorrean ikuspegia aldatzea, izan ere, normalean txorakeria bezala hartzen dira emozioak, zerbait irrelebantea bezala, gudan eraginik izango ez balute bezala, landu beharrik ez dagoen gai bat bezala. Eta garrantzia ematen dioten askoren atzean moda edo tendentzia jarraitzea dago... asko ez dira konsziente zenbateko eragina duten batez ere haurrengan eta ze beharrezkoa eta oinarrizkoa den lantzea.

(7) Ezagutzen dituzu emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzara bideratutako programak? Zeintzuk?

Badakit Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako programa berri bat dagoela baina egia esan ez dakit ondo zein jarduerak osatzen duten, nik mindfulness eta jarduera solteak egiten ditut haurrekin.

(8) Zure ustez, nahiz eta emozioen lanketaren inguruan hainbat prestakuntza/formakuntza/ikastaro dauden, erraza da baliabide hauek topatzea?

Nire ustez ez da batere erraza emozioen inguruko ikastaroak topatzea, Euskal Herrian ez behintzat. Aurkitu izan ditudanak Bartzelonan edo Espainiako beste hiriren batean izan dira, edo bestela online, baina webgune ezezagunetan.

(9) Emozioen lanketaren barnean zein alderdiri emango zenioke garrantzi gehien? Zein izango zen gehien azpimarratuko zenukeena Haur Hezkuntzan?

Nik gehienbat kontzientzia emozionala landuko nuke Haur Hezkuntzan, izan ere, nire ustez oinarritik, zailtasun txikienetik handira landu beharko lirateke emozioak eta oinarritzkoena eta zailtasun txikiena duena nik uste kontzientzia emozionala lantzea da, nahiz eta ez izan lan erraza hau ere.

15.eranskina

BEHAKTA ERREGISTROA:

Talde osoaren eta haur bakoitzaren banakako erregistro taula hauetan, ikus daitekeenez 1-5 bitarteko balioen arabeko estimazio-eskala erabili dut. **1** zenbakia *inoiz ez/batere ez* adierazteko, **2** zenbakia *gutxitan/gutxi* adierazteko, **3** zenbakia *batzuetan/erdizka* adierazteko, **4** zenbakia *askotan/ondo* adierazteko eta **5** zenbakia berriz, *beti/oso ondo* adierazteko.

ESKU-HARTZEAREN AURRETIK EGINIKO BEHAKETA TAULA. HAUR TALDE OSOA:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Elkarren emozioak/sentimenduak eta hauen aurrean izandako jarrerak/jokabideak errespetatzen dituzte?			X		
Emozioak ozenki modu askean eta guztientzat azaleratzen dituzte?			X		
Gelan egoera desberdinen aurrean emozio ezberdinak agertzen direnean, irakaslearengana jotzen dute gertatzen dena azaltzeko?				X	
Emozioak kudeatzeko orduan zailtasunak badituzte irakaslearengana jotzen dute?				X	
Emozioak lantzeko beharra nabaritzen da?					X
Lotsati edo deseoroso sentitzen dira emozioen inguruan hitz egiten?				X	
Emozio negatiboak ulertzeko eta baloratzeko gai dira?		X			
Besteen emozioekiko enpatia erakusten dute? Besteen azalean jartzeko gai dira?			X		
Talde moduan jokatzeko dute. Hau da, ez dago inor bazterturik.				X	
Orokorrean talde lasaia da.			X		

OHARRAK:

-Orokorrean haurren artean desberdintasun batzuk daude. Ez dute berdin hartzen zein jokatzeko adibidez HAURRA 1ek bere emozioa adieraztean edota HAURRA 12k adieraztean. Haurraren arabera, elkarrekin desberdin jokatzeko dute.

-Orokorrean hoberen eramanen direnen artean gehiago errespetatzen dira.

-Askotan, emozioak gordetzen dituzte azaleratu ordez. Haiengana zuzentzean, galdetzean, azaleratzen dute gehienbat sentitzen dutena. Gehienbat, HAURRA 6ri kostatzen zaio; batez ere espresatzerakoan (aurpegiko keinuen bidez...).

-Normalean, emozio negatibo zein positiboan aurrean irakaslearengana zuzentzen dira. Adibidez, gelako haur batzuk elkarren etxera jolastera doazela kontatzera etortzen dira super pozik, edota HAURRA X triste dagoela esatera hurbiltzen dira X arrazoiarengatik... Hala ere, besteei emozioak azaltzeak lotsa eman ohi die, ez dute askatasun eta lasaitasunez azaltzen euren sentipena.

-Orokorrean gehienak baina batez ere HAURRA 1 hurbiltzen da irakaslearengana bere emozioak erregulatzeko zailtasunak dituenen.

-Emozio negatiboak arbuiahi ohi dituzte, txarrak izango balira bezala tratatzen dituzte. Batez ere, mutikoren bat triste jartzean edota negar egitean, negar ez duela egin behar bezalako esaldiak entzun ohi ditut. Baita,

negar egiteari uzteko eta lasaitzeko bezalako esaldiak ere, negar egitea lasaitzeko modu bat dela ahaztuz.
 -Batzuetan, zaila egiten zaie besteen lekuan jartzea; batez ere HAURRA 3 edota HAURRA 8ren lekuan jartzea.
 HAURRA 8k beste haurrak baino jokabide bereziagoak ditu eta beste hurrei berarekin interakzionatzea
 kostatzen zaie. HAURRA 3ren kasuan, bere taldekideekin du arazoa; horregatik aldatu dugu taldez.
 -Oso haur jatorrak eta argiak badira ere, oso mugituak eta berritsuak dira.

HAUSNARKETA:

Argi dago emozioen inguruko alderdi batzuk landuak dituzten arren beste asko lantzeko dituztela. Hori dela eta, gehienbat elkarren emozioak errespetatzen ikastea, bata bestearen lekuan jartzen ikastea, emozioak adierazteko beldurra/lotsa/segurtasun eza galtzea, emozio negatiboenganako arbuiazioa deuseztatzea eta taldea gehiago indartzearen beharra dago.

PATIOAN BURUTUTAKO BEHAKETA ERREGISTROA:

Eskoletako patioak gizartearen islada direla iruditzen zait, nolabait esateko, mikrogizartetxo bat dago bertan non hurrek kalean ikusten, pertzibitzen eta inkonszienteki barneratzen dutena produzitzen duten. Hori dela eta, oso interesgarria eta baliagarria iruditzen zait patioa ere behatzea, izan ere, modu honetan ikasgelan landutakoa ea benetan (ikasgelatik kanpo) praktikan jartzen duten ala ez ikusteko aukera izango dut, eta praktikan jarriz gero ea modu egokian jartzen dituzten edo ez.

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Hurrek emozio negatiboen aurrean badakite zer egin/nola erantzun				X	
Hurrek emozio desberdinei aurre egiteko irakasleen laguntza eskatzen dute (triste daudenean, negarrez, etab.)				X	
Hurrek emozio desberdinak sexu batekin ala bestearekin lotzen dituzte			X		
Irakasleak emozioen erregulazio-kudeaketan parte hartzen dute (edo ez, "arazoa" euren kasa konpontzen uzten diete)			X		
Sexuaren arabera, kanpo faktoreak direla medio, emozio baikorrakoak dituzte sexu batekoek beste sexukoek baino	X				
Hurrek emozio baikor zein ezkorren aurrean naturaltasun berdinarekin jokatzeko dute			X		
Hurrek Bisquerraren emozioen inguruko 5 blokeak egoki betetzen dituzte			X		

OHARRAK:

-Normalean, egoera desberdinen aurrean irakasleongana jotzen dute hurrek laguntza eske. Hala ere, badaude haur batzuk zeinak izkina batean eserita jarri eta bertan geratzen diren negarrez, laguntza eskatu ordez.

-Batzuetan, gure gizartean ohikoa den moduan mutilek negarrik egin behar ez dutela, ez direla beldurtu behar (ausartak izan behar direla) eta horrelako esaldiak entzun izan ditut adin desberdinetako haurren ahotatik (3-5 urte bitarteko haurrak).

-Egoeraren arabera, “arazoak” euren artean konpontzen uzten diete. “Arazo” nahiko gogorra edo larria bada berriz, eurak sartzen dira. Hala ere, ohikoena euren artean konpontzeko eskatzea izan ohi da, baldin eta bigarren aldiz arazo berdinaz kexatzera haur berdinak etortzen ez badira.

-Haurrek emozio baikor zein ezkorren aurrean ez dute naturaltasun berdinarekin jokatzeko, batez ere adinaren arabera. Izan ere, txikienen artean ez da desberdintasun hau nabaritzen baina 5 urteko haurren artean bai. 4-5 urteko haur askok barneratuta dute sexu desberdintasuna emozioen alderdian (mutilek negar egitea ez dute ondo ikusten, baina neskek negar egitea bai).

- Bisquerraren estadioen inguruan aipatu beharra dago guztiek ez dituztela estadio guztiak betetzen; ez osotasunean behintzat.

HAUSNARKETA:

Argi dago adinaren arabera egoera aldatu egiten dela baina orokorrean patio orduan ikusten dena gure gizartearen islada zuzena da eta emozioen lanketa beharrezko dela ikusten da. Izan ere, harremanak sustatzeko beharrezkoa da lehendabizi besteak beste gure buruarekiko konfiantza sustatzea, emozioak erregulatzeko jakitea eta besteak ongi ulertzea. Hau da, besteen lekuan jartzeko gai izatea eta euren emozioak identifikatzeko zein ezagutzeko gai izatea beharrezko dira harreman estuetan.

HAUR BAKOITZAREN ERREGISTRO TAULA

HAURRA 1:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?				X	
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?			X		
Emozioak erregulatzeko gai da?		X			
Autonomia emozionala garatua du?		X			
Konpetentzia soziala garatua du?			X		
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?		X			
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?		X			
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)			X		
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X

Bazterturik ikusten da.			X		
OHARRAK:					
<p>-Orokorrean emozio propioak identifikatzeko gai bada ere, baditu egunak nola sentitzen den ez dakiena. Zer gertatzen zaion ez dakiena edota behintzat sentitzen duena nola adierazi ez dakiena.</p> <p>-Besteen emozioak identifikatzeko unean batzuetan zailtasunak izaten ditu. Norbaitek nola sentitzen den azaltzen badio ulertzeko gai da baina ez bere kasa ondorioztatzeko beste pertsonak nola sentitzen diren, kasua kasu.</p> <p>-Oso zaila egiten zaio emozioak erregulatzeko, zailtasun ikaragarria du. Ikastetxe barneko zein kanpoko laguntza jasotzen du zailtasun honi aurre egiteko. Apurka-apurka hobetzen doan arren oraindik ere gorabehera handiak ditu. Zaila egiten zaio batzuetan formaltasuna mantentzea gelan (alfombran besteekin batera esertzea, lasaitzea, adi egotea...)</p> <p>-Autonomia emozionala ez du oso garatua, laguntza behar du motibazioa izateko, eta baita batzuetan autoestima indartzeko ere.</p> <p>-Konpetentzia sozialari dagokionez, nahiz eta besteekin harremantzen saiatzen den, askotan alderdi honetan zailtasunak izaten ditu.</p> <p>-Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia ez du guztiz garatua. Egunerokotasunerako, bizitzarako gizartera moldatu beharreko jarrerak ditu. Txandak errespetatzea kostatzen zaio, zerbait egin nahi ez badu oso burugogor jartzen da eta kasketa harrapatzen du (negarrez hasten da eta asko kostatzen zaio bere onera etortzea).</p> <p>-Emozioak azaleratzeko erraztasuna ez du. Batzuetan nahiz eta galdetu ea zer gertatzen zaion berak ere ez daki edo ez daki azaltzen behintzat. Hala ere, garrasi egiten du edo negar... modu horretako jokabideak hartzen ditu.</p> <p>-Emozio negatiboak bizitzea gaizki darama, bere buruarekin haserretzen da, bere burua jotzen du...</p> <p>-Batzuetan baztertua sentitzen da besteekin harremantzeko zailtasunak dituelako.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Bisquerrak azaldutako 5 estadioetan zailtasun nabarmenak ditu eta horiek lantzea zein indartzea komeni da. Bestalde, irakasleen zein inguruko laguntza eskatu eta gustura jasotzen duenez, emozioen lanketa errazten duela aipatu beharra dago.</p>					

HAURRA 2:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?				X	
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?			X		
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	

Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)			X		
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?				X	
Bazterturik ikusten da.		X			
OHARRAK:					
<p>-Emozioak erregulatzea kostatzen zaio. Izan ere, orokorrean egunero oso nekatuta iristen da ikastetxera eta ordu asko igarotzen ditu bertan. Horrek asko eragiten dio emozioak erregulatzerako orduan. Askotan lasai egotea kostatzen zaio. Bere gustokoa ez den zerbait egin behar denean jokabide desegokia erakusten du. Bere gustokoa den zerbait egitean aldiz, gehiegi aztoratzen da urduritasunarengatik eta bere barneko emozioengatik.</p> <p>-Ezin daiteke esan bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia guztiz garatua duenik nahiz eta honetan aurretik aipatutakoak duen eragin zuzena.</p> <p>-Behin baino gehiagotan mutilek negarrik ez dutela egin behar bezalako komentarioak entzun ditut bere ahotik.</p> <p>-Orokorrean ez da bazterturik ikusten, oso harreman ona du beste hurrekin. Hala ere, zehazki IRAKASLEA 3rekin baztertua sentitzen dela nabaritu dut, besteak baino zorrotzagoa delako berarekin eta batzuetan modu desegokiak edo ez hain egokiak erabili izan dituelako berarekin.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Oso haur alaia, argia eta energiaduna da; orokorrean emozioen hainbat alderdi ongi landuak eta garatuak dituena. Hala ere, bi alderdi nagusi lantzea komeni zaio bere garapena osotasunean emateko: erregulazio emozionala eta bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatzea. Baita, emozioen inguruko sexuen arteko desberdintasuna ezabatzea ere.</p>					

HAURRA 3:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?			X		
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?			X		
Emozioak erregulatzeko gai da?		X			
Autonomia emozionala garatua du?	X				
Konpetentzia soziala garatua du?		X			
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?			X		
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?	X				
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		

Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?	X				
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)			X		
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)			X		
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?		X			
Bazterturik ikusten da.				X	

OHARRAK:

-Orokorrean emozioak identifikatzerako orduan zailtasun batzuk izaten ditu. Hala ere, zailtasun hauek batzuetan segurtasun ezak eragiten dizkio. Beraz, ezin daiteke ziur esan edo definitu emozioak zenbateraino identifikatzeko gai den edo ez.

-Emozioak erregulatzeko zailtasuna erakutsi izan du behin baino gehiagotan. Hala nola, heziketa fisikoko ekintzetan parte hartzeko unea iristean; behin baino gehiagotan gelditu da parte hartu gabe berak eskatzen duelako. Momentu horietan bere buruarekiko segurtasun eta konfiantzarik gabe sentitzen da, beldurtuta eta uzkurtuta. Gainera, behin baino gehiagotan negarrez hasi izan da ekintzaren bat egitera behartuta sentitu delako irakaslearen zein beste haurrengandik.

-Ez du garatua autonomia emozionala. Ez du segurtasunik bere buruarengan, izugarri kostatzen zaio konfiantzazko gune bat sortzea eta eroso sentitzea. Batez ere, ahozko hizkuntza erabiliz berarengana zuzendu dituzten galderari erantzutea egiten zaio gogorra.

-Emozioak ez ditu azaleratu nahi izaten, asko kostatzen zaio. Hala ere, egia da bakarka agian gehiago askatzen dela eta une horietan berarentzako gertutasun handiagoko uneak direnez alderdi honen inguruko zerbait ateratzen duela. Hala eta guztiz ere, zailtasun handia du aipatu bezala emozioak kanporatzeko, baina batez ere hau azaltzeko/komunikatzeko.

-Emozioak lantzeko proposatutako jardueretan ez du ia parte hartu, ez da eroso sentitu eta atzera bota da. Ikastetxeko psikologoak gomendatu zigun moduan ez dugu behartu parte hartzera eta alderdi asko landu gabe geratu da zoritxarrez. Hala ere, egia da nahiz eta jarduera askotan parte ez hartu besteek jardueretan zer egiten duten behatzen egoten dela. Talde handian egin diren jardueretan soilik hartu du parte.

-Segurtasun eta autonomia falta handia du. Fitxak edo bestelako edozein jarduera burutzean gelan denbora guztian, behin eta berriz, irakasleonek presentzi, begirada eta oniritzia bilatzen du. Ez da fidatzen berak egiten duenarekin, ez da gai ikusten/sentitzen lanak/fitxak bakarka egiteko.

HAUSNARKETA:

Segurtasun falta ikaragarria du bere buruarekiko, autonomia emozionalaren faltarekin batera. Beraz, gehienbat bi alderdi horiek dira gehien lantzea komeni zaizkionak.

Bestalde, ez du laguntzarik eskatzen gehien behar duen uneetan ere, gelako izkina batean jartzen da. Laguntza ez eskatze horrek ez dio mesederik egiten; beraz, hori ere landu beharreko aspektua izango litzateke.

Horretaz gain, baztertua ikusten da askotan, batez ere gela barruan. Izan ere, gelaz kanpo, jolas-orduan, gelako haur batzuekin aritzen da jolasean. Gelan ordea, lotsatu eta itxi egiten da askotan.

HAURRA 4:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?				X	
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?			X		
Konpetentzia soziala garatua du?			X		
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?			X		
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)			X		
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

- Batzuetan besteen emozioak identifikatzea kostatzen bazaio ere, orokorrean ez du zailtasun handirik.
- Oso haur espresiboa da eta bizitzen dituen emozioak oso sakon bizitzen ditu. Batzuetan, urduri dagoenean urduriegi jartzen da eta oso zaila egiten zaio lasaitzea; aulkitik altsatzen da, komunera joan-etorri dezente egiten ditu... Apur bat triste badago berriz zerbait konkretuagatik, txikikeri batengatik, egoera txiki horretatik izugarrizko mundua egiten du eta zaila egiten zaio pentsamendu horretatik ateratzea.
- Bereziki autokonfiantza garatzea falta zaio. Etxean ia dena eginda ematen diote (berak onartzen du) eta hori dela eta gauza txiki asko egiteko gai ez dela uste du: berokia lotzeko, artaziak erabiliz fitxak ongi mozteko, fitxa batzuk betetzeko...
- Oso haur hiztuna da, eta asko kostatzen zaio entzutea. Hori dela eta, askotan klaseak mozten ditu, irakaslearen azalpenak, beste haurren azalpenak, eta isilik egon behar duela esaten zaionean ez da gai isiltasuna mantentzeko.
- Ez da ohartzen beharrezkoa dela txandak errespetatzea, besteak entzutea, besteen iritzia errespetatzea...
- Normalean beti adierazten ditu bere emozioak. Triste sentitzen denean hurbiltzen da triste dagoela esatera adibidez amarekin egon nahi duelako eta horrelakoak.
- Nahiz eta triste dagoenean eta negar egiteko beharra sentitzen duenean negar egin, eduki izan ditu komentario desegokiak sexuen bereizketa markatzen. Beste haur bat (mutila) negarrez ikustean, berarengana hurbildu eta ea zer gertatzen zaion galdetu ostean, ez duela negarrik egin behar azaltzen dio: "los niños no lloran" komentarioa egin izan du behin baino gehiagotan.

HAUSNARKETA:

Batzuetan besteen emozioak identifikatzea kostatzen bazaio ere, orokorrean ez du zailtasun handirik. Erregulazio emozionala apur bat lantzea komeni zaio eta baita autokonfiantza ere. Horretaz gain, konpetentzia sozialeko aspektu batzuk ere landu beharra ditu; bereziki, txandak errespetatzea, besteak entzutea eta haien iritzia errespetatzea. Azkenik, barneratua dituen sexu bereizketa rola deuseztatzeko lan egin beharra dago.

HAURRA 5:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?				X	
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?				X	
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?				X	
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?				X	
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)			X		
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)		X			
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)					X
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Batzuetan, egoeraren arabera emozioak azaleratzen ditu, bizipen batekin lotuta. Hau da, aiton-amonen etxera joaten den bakoitzean, haur guztiengana eta irakasleengana hurbiltzen da oso pozik dagoela esanez, aiton-amonen etxera doalako bazkaltzera. Bere poza azaleratzeko beharra izaten du. Hala ere, egoeraren arabera ez zaio gustatzen nola sentitzen den azaltzea eta zergatia esatea; batzuetan berarentzako gorde nahi izaten baitu.

-Batzuetan ez du irakaslea bilatzen bere emozioak erregulatzeko laguntzeko. Hau da, triste dagoenean negarrez hasten da baina irakaslea berarengana hurbildu eta zer gertatzen zaion galdetu arte, izkina batean bakarrik geratzen da.

- Praktikaldira zehar behin bakarrik entzun badiot ere esaten, negarrez ari zen mutiko bati mutilek negarrik ez dutela egin behar esan zion. Hala ere, beste hainbat egoeretan mutilek ere batzuetan negar egiten dutela

onartu izan du, berak ere egiten duela triste dagoenean... Beraz, ez da oso barneratua duen ideiaia sexu bereizketarena alderdi emozionalaean.

HAUSNARKETA:

Aspektu gehienak nahiko garatuak baditu ere, garatu beharreko alderdi printzipala emozioak kudeatzeko zailtasuna duen unean irakaslearengana zein beste pertsona batengana laguntza eske joateko jarrera da. Izan ere, ikustarazi behar zaio konfiantza dugun pertsonengan konfiatuz gero eta hauei laguntza eskatuz gero, hobeto sentiarazten lagun gaitzaketela, emozioak erregulatzen lagunduz.

HAURRA 6:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?					
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?	X				
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?	X				
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?			X		
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)	X				
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)					
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.			X		

OHARRAK:

-Nahiz eta emozio propioak zein besteenak identifikatzeko gai den, ezin daiteke esan emozioak erregulatzeko gai denik, ezta gai ez denik ere. Izan ere, ez du emoziorik transmititzen ez aurpegiko keinuen bidez, ez izaeraz baliatuz... Ez da desberdintzen noiz dagoen pozik eta noiz triste edo haserre. Beti darama tristura-bakarti-erosotasun ezaren aurpegia.

-Emozioak azaleratzea zein espresatzea oso zaila egiten zaio. Agian pozik dagoela esaten du bere anaiarekin etorri delako eskolara, baina ez aurpegian ez gorputz jarreran ez du adierazten.

-Oso haur lotsatia denez, bere sentimenduak ozenki adieraztea ez zaio gustatzen eta intimidatuta sentitzen da. Hala ere, bakarka zein talde txikitan ez du arazorik bere sentimenduak hitzez azaltzeko.

-Triste dagoenean eta batez ere ostegun arratsaldetako eskolaz kanpoko jarduera duenean, negarrez hasten da eskolatik joan behar garen unean. Baina, nahiz eta negarrez hasi, ez da inorengana hurbiltzen laguntza edo babes bila, irakasleak hurbiltzen gara berarengana.

-Normalean, HAURRA 15ekin soilik harremantzen da. Gainera, jolas-orduan, bere neba txikiarekin aritzen da jolasean beti.

HAUSNARKETA:

Emozioen adierazpena indartzea komeni zaio; asko kostatzen baitzaio eta horrek azken finean besteekin harremantzerako orduan zailtasunak sorrarazten dizkio. Behin hori landuta, emozioen erregulazioan zentratuko nintzateke bere jarrera nolakoa den aztertzeko. Behin bi aspektu horiek landuta, beste haurrekin harreman estuagoa lor dezan jarduera desberdinak planteatzea egokia izango litzatekeelakoan nago, beste haurrekin hartu-eman handiagoa lortzeko.

HAURRA 7:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)					X
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Nahiz eta orokorrean emozioak erregulatzeko gai den batzuetan, emozio uneetan (irteeretan, antzerki emanaldietan, Olentzeroren etorreran...) kosta egiten zaio zirrara unea neurtzea eta asko ez aztoratzea.

-Tarteka bizi dituen egoeren arira emozioak ere adierazten ditu (adibidez aiton-amonen etxera joaten denean

bazkaltzera, arratsaldean oso pozik eta indarberriturik sartzen da gelara. Nola ez, poztasun horren zergatia azalduz). Hala ere, ez du sentitzen askotan emozioak adierazteko behar hori.

-Emozioak kudeatzeko unean zailtasunen bat duenean edo momentu ahulen bat duenean (zerbaiten ondorioz negarrez hastean gehienbat) tarteka irakasle edota beste haur batengana jotzen badu ere laguntza zein babes eske, hau ez du beti betetzen. Batzuetan, egoeraren arabera, kostatzen da deskonfiantza barrera haustea eta laguntza eskatzea. Nahiz eta laguntza nahi duen eta eskertzen duen, eskatzeko pausua ematea da kostatzen zaiona.

HAUSNARKETA:

Nahiz eta orokorrean emozioak erregulatzeko zailtasunik ez duen, aztoramen uneetan modu egokiagoan erregulatzeko lor dezan, ongi etorriko litzaiokoe alderdi hau apur bat gehiago lantzea jolas desberdinen bidez. Bestalde, nahiz eta bere emozioak azaleratzeko beharra ez eduki askotan, bere kasuan ez da kontuan hartuko nukeen zerbaitekin. Azken finean, izaeraren arabera batzuk emozioak behin eta berriz kanporatzeko beharra eta nahia sentitzen dute baina beste batzuk aldiz, ez dute horrenbesteko beharrik sentitzen. Amaitzeko, indartu nahiko nukeen puntua emozioak erregulatzeko unean zailtasunik edukiz gero, laguntza eskatzeko edo bilatzeko pausua errazago ematen ikastea edota lantzea izango litzateke.

HAURRA 8:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?				X	
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?				X	
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?			X		
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?			X		
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzearen erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.			X		

OHARRAK:

- Konpetentzia soziala ez du oso garatua. Gainera, bai hizkuntzan bai komunikazioan zailtasun handiak ditu. Hori dela eta, besteekiko harremana sustatzea oso zaila egiten zaio.
- Hizkuntzaren arazoa dela eta, harremanetan eragina edukitzeaz gain, ikasterako unean ere izugarritzko eragina du, eta baita bizitzarako eta ongizaterako konpetentziak lantzerako unean ere.
- Ikastetxean erabiltzen diren hizkuntza desberdinak asko ulertzen ez dituenek, zaila egiten zaio irakasleari entzutea eta klasean adi egotea, atentzioa jartzea eta mantentzea; nahiz eta gero nahiko potentzial ona duen haurra izan, jarduerak orokorrean (besteek egiten dutenari begiratu) ongi burutzen baititu.
- Askotan, atentzioa prestatzen ez duenean beste haurrak molestatzen saiatzen da, beste haurren arreta bereganatzen. Ikastearekiko interes eza erakusten du.
- Ez dago oso integratua taldean, ez direlako elkar ulertzen haurrak.
- Komunikazio eskasaren ondorioz, haurrari zerbait gertatzen zaionean eta negarrez hurbiltzen denean, askotan zergatia jakitera ezin izaten da heldu.
- Haserretzen denean, ez dio inori kasurik egiten, berearekin atera nahi izaten du. Lurrera botatzen da eta ez du nahi izaten jaiki, arrastaka mugitzen hasten da berearekin atera nahian. Oso burugogorra da.

HAUSNARKETA:

Nahiz eta orokorrean emozioen alderdia nahiko landua eduki, hainbat alderdi ditu hobetzeko eta oso zaila du hobetzea komunikazio egokia sustatzea ezinbestekoa baita, bai konpetentzia soziala indartzeko bai bizitzarako eta ongizaterako konpetentziak lantzeko. Beraz, komunikazioa hobetzen saiatuko nintzateke lehendabizi, eta ondoren aipatutako konpetentziak. Izan ere, konpetentzia horietan duen hutsunea aipatutako komunikazio faltak eragina da. Hala ere, horretaz gain, komunikazio faltak eragindako aspektuak soilik ez dira hobetu zein indartu beharrekoak. Zer dela eta? Bada, emozioak erregulatzeko nahiko zailtasun handia duelako. Batez ere, txikikeriengatik hartzen dituen haserrealdiak erregulatzeko kostatzen zaio eta gaizki egin duela edota jokabide desegokia izan duela ulertzea eta onartzea.

HAURRA 9:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)		X			
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				

Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez)					X
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Emozioak erregulatzeko zailtasun handirik ez badu ere, haserrealdietan ez daki ongi nola enfokatu/kanalizatu bere amorrua. Egoera horietan, beste haurrak jotzeko jarrera hartzen du, amorrurengatik negarrez hasten da, bere buruarekin ere haserretzen da...</p> <p>-Nahiz eta haserrealdietan emozioak erregulatzeko zaila egin, hartzen duen jarrera ez dagoela ondo ulertzeko eta onartzeko gai da. Hala ere, instintiboki ateratzen zaion erantzuna da.</p> <p>-Nahiz eta irakasle zein beste haurrekin inolako arazorik gabe irekitzen den haurra den, emozio desberdinen aurrean zailtasunen bat topatzen badu ere eta laguntza edota babesa behar badu ere, oso gutxitan eskatzen du, oso gutxitan jotzen du laguntza eske. Bakardadean eramatea gustatzen zaio. Hori dela eta, hasiera batean denbora bat uzten zaio bere kasa lasaitu dadin eta berarengana hurbiltzea onartzen duenean hurbiltzen gara babesa emanez; batez ere triste dagoen momentuetan gertatzen da hori.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Lantzea komeni diren bi alderdi printzipalak emozioen erregulartasuna eta emozioen inguruan sortutako zailtasunen aurrean laguntza zein babesa eskatzeko hartu beharreko jarrera da. Haur Hezkuntzatik landu beharreko alderdia da erregulazio emozionalarena, izan ere, zenbat eta aurrerago landu, iadanik barneratu dituen jokabideak aldatzea/hobetzea gehiago kostatuko zaio. Bestalde, oso garrantzitsua da haurrei azaltzea konpontzen edo aurrera egiten ez dakigun egoeretan ezinbestekoa dela gure zein besteen onerako laguntza eskatzea. Besteengandik jaso dezakegun laguntzaren bidez errazagoa delako gure emozioak erregulatzeko eta gu geu hobeto/babestuago sentitzea, egoerari buelta eman eta aurrera jarraitzeko.</p>					

HAURRA 10:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.)			X		

Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean noizean behin hurbiltzen da irakasleongana, baina orokorrean nahiko kostatzen zaio.</p> <p>-Ez zaio gustatzen negarrez ikustea eta negarrari eusten saiatzen da triste dagoen uneetan. Eutsi ezin dion uneetan aldiz, gelako txoko/izkinez baliatzen da “ezkutatzeko”. Oso gutxitan jotzen du irakasleongana, beste haurrak dira haur hau negarrez dagoela abisatzera etortzen direnak normalean.</p> <p>-Denboraldi luze baten ondoren bere emozioak kudeatu ezin dituela ikustean, orduan gerturatzeko irakasleongana babes eske.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Batez ere lantzea komeniko litzatekeena, emozioen kudeaketan laguntza behar duen uneetan irakasleongana zein beste haurrengana hurbiltzeko jarrera bultzatzea da. Horretaz gain, landu beharreko beste alderdi bat emozio negatibo zein positiboak eta askotan hauek azaleratzeko ditugun era desberdinak naturaltasunez onartzea eta hartzea da. Batez ere, triste edota amorrugatik negarrez dagoen uneetan, negarra lasaitzeko modu/baliabide bezala ulertzea eta onartzea egokia izango litzateke.</p>					

HAURRA 11:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?			X		
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?			X		
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleongana zuzentzen da, etab.</i>)				X	

Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Askotan besteen gainetik jartzen da.</p> <p>-Ez ditu beti errespetuzko jarrerak erabiltzen beste haur zein irakasleekin,</p> <p>-Asko gustatzen zaio besteekiko kontrola izatea, agintzea eta besteak baino hobeto geratzea.</p> <p>-Gelako aniztasuna ez du modu egokian onartzen. Hau da, zailtasun gehien dituzten pertsonetikiko jarrera ezkorra, alde batera uztekoa, eta euren agintzekoa (berearekin ateratzeko) hartzen du.</p> <p>-Batzuetan irakasleak esandakoa betetzea kostatu egiten zaio.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Haur honen jokabidea hobetzeko egitea komeni dena, konpetentzia soziala lantzearekin batera bizitzaren eta ongizatearen konpetentzia ere garatzea da. Izan ere, hutsune garrantzitsuak ditu bi alderdi horietan (errespetua besteekiko zein besteen iritziekiko, aniztasuna errespetatzea, berdinen arteko harremana ematea eta ez jartzea besteen gainean, besteekiko ematen dituen aginduak aholku bilakatzea...) eta ezinbestekoa da gizarteko kide den heinean gure gizartera eta bertan ezarritako oinarritzko balio, eskubide eta jokabide etikoetara bideratzea.</p>					

HAURRA 12:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	

Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)					X
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Emozioak erregulatzeko erraztasuna badu ere, egoera zehatz batzuetan laguntza behar izaten du, batzuetan ez delako gai bere kasa lasaitzeko. Adibidez, HAURRA 7k egiten ari ziren fitxa gaizki egin duela esan dionean, oso erasotua sentitu da, ez zaio batere gustatu komentarioa, min asko egin dio eta negar batean hasi da. Negarraldiak nahiko luze jo dio eta negar egiteari utzi dionean ere triste zegoela ikusten zen. Nahiz eta HAURRA 7k min egiteko intentzioarekin egin ez dion komentarioa, oso gaizki hartu du. Hori dela eta, IRAKASLEA 1 hurbildu behar izan da berarengana eta hitz egitearen poderdiaz lortu du haurra guztiz lasaitzea eta ohartaraztea horrelako egoeren aurrean beste modu bateko jarrera ere har daitekeela eta beste haurrak intentzio txarrarekin ez duela egin...</p> <p>-Emozioen kudeaketan laguntza behar duen momentu gutxi horietan, batzuetan kostatzen da egiten zaio irakasleongana zein beste haurrenaga hurbiltzea laguntza zein babes eske.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Orokorrean emozioen alderdi desberdinak nahiko landu eta garatuak dituen arren, garatu eta hobetu daitezkeen bi alderdi daude: emozioen erregulartasuna eta emozioen kudeaketan zailtasunak dauden momentuan norbaitengana zuzentzeko jarrera bideratzea; batez ere, bere ongizaterako.</p>					

HAURRA 13:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?				X	
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?				X	
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)			X		
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				

Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Emozioak erregulatzerako unean zailtasunak ditu.</p> <p>-Egoera desberdinen aurrean batzuetan ez du jaiten nola jokatu edota modu desegokian jokatzen du (garrasi eginez, besteak joz, besteei barre eginez...).</p> <p>-Gaizki sentitzen denean edota minduta frustrazioan erortzen da.</p> <p>-Emozioak kudeatzerako orduan zailtasunak izaten dituenean ez da inorengana zuzentzen laguntza eske; noramalean irakasleak hurbildu behar izaten gara berarengana.</p> <p>-Emozio negatiboak batzuetan ez ditu guztiz natural bizitzen, "ezkututzen" saiatzen da.</p> <p>-Hasiara batean (ni praktiketan hasitakoan) konpetentzia soziala zein bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia ez zituen guztiz ongi garatuak. Gerora aldiz, izugarritzko aldaketa/aurrerapausua eman zuen aste batetik bestera, beste haur bat zirudien. Ziurrenik inguruko alderdi edoa faktoreren batean aldaketak emango ziren eta horren ondorioz aldaketa gauzatu.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Nahiz eta aurrerapen bikaina eman duen denbora gutxian emozioei loturiko aspektu desberdinetan, oraindik ere lan handia geratzen zaio emozioak erregulatzen ikasteko bidean eta emozio-kudeaketaren inguruan zailtasunik topatuz gero, norbaitengana jotzeko aspektuan. Hori dela eta, haurra bere osotasunean eta modu egokian garatzeko, aipatutako alderdiak indartu beharra daude jolasaren bidez.</p>					

HAURRA 14:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)					X
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				

Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? <i>(edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez)</i>					X
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Emozioak erregulatzerako unean oso gutxitan, baina tarteka zailtasunak ditu.</p> <p>-Tarteka amaren falta sumatzen du, batez ere zubien eta opor egunen ostean, eta tristurak negar egitera bultzatzen du. Gainera, negar egiten hasi eta asko kostatzen zaio lasaitzea, bere onera itzultzea.</p> <p>-Batzuetan ez du bere buruarekiko konfiantza handirik erakusten. Berria den zerbaiten aurrean hasiera batean beldurtu egiten da edota segurtsunik gabe sentitu, gaizki egingo duenaren sentsazioa izaten du eta apur bat galduta sentitzen da.</p>					
HAUSNARKETA:					
Orokorrean oso ondo garatuak eta landuak ditu emozioen inguruko alderdi desberdinak. Hala ere, zerbait indartu zein hobetzekotan emozioen erregulartasunean jarriko nuke begia, eta baita autonomia kompetentzia apur bat gehiago indartze eta sakontzean ere.					

HAURRA 15:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?				X	
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?				X	
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?			X		
Kompetentzia soziala garatua du?				X	
Bizitzarako eta ongizaterako kompetentzia garatua du?				X	
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? <i>(Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.)</i>				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? <i>(Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.)</i>	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? <i>(edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez)</i>				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X

Bazterturik ikusten da.		X			
OHARRAK:					
<p>-Autonomia emozionalaren konpetentzia ez du oso garatua. Orokorrean autokonfiantza lantzea falta zaio, eta baita automotibazioa zein autoefikazia ere.</p> <p>-Orokorrean ez du bere emozioak azaleratzeko beharrik sentitzen, ez ditu asko kanporatzen (hitzez behintzat).</p> <p>-Oso haur gutxirekin harremantzen da.</p> <p>-Emozio negatiboak erregulatzea nahiko kostatzen zaio.</p> <p>-Beste haurrekin komunikatzea kostatzen zaio.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Orokorrean, denoi bezala, emozioen alderdi guztiak gehiago lantzea eta hauetan gehiago sakontzea komeni zaio. Baina, batez ere, emozioak erregulatzea, autonomia emozionala lantzea eta beste haurrekin komunikazioa (konpetentzia soziala) garatzea komeni zaio.</p>					

HAURRA 16:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?					X
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Emozioak erregulatzeko gaitasun handia du.
 -Nahiz eta emozioak azaleratzeko beharra ez duen izaten, azaltzen dituen momentuan erraztasun handiz azaleratzen ditu, bai bakarka bai besteen aurrean.
 -Batzuetan pozik dagoenaren itxura egiten saiatzen da edota zerbaitek min edo gaizki sentiarazi diola ezeztatzen du nahiz eta benetan min egin edota gaizki sentiarazi komentarioren edo jokabideren batek. Hala ere, egia esan oso gutxitan egiten du hori.

HAUSNARKETA:

Emozioen alderdia oso landua eta garatua du. Hala ere, indartu daitezkeen aspektu printzipalak emozioak kudeatzeko unean zailtasunak dituen momentuan laguntza eskatzeko jarrera hartzea eta emozio negatiboak emozio positiboak bezain natural bizitzea, onartzea eta bideratzea da.

HAURRA 17:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?				X	
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?				X	
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?			X		
Konpetentzia soziala garatua du?				X	
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?				X	
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?			X		
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.		X			

OHARRAK:

-Orokorrean autokonfiantza eta automotibazioa lantzea zein indartzea komeni zaio .
 -Normalean ez du bere emozioak azaleratzeko beharrik sentitzen, ez ditu asko kanporatzen (hitzez behintzat).
 -Beste hurrekin harremantzea batzuetan kostatu egiten zaio.

-Beti betiko lagun-taldean mugitzen da, ez da haur askorekin harremantzen.
 -Emozio negatiboak erregulatzea nahiko kostatzen zaio.
 -Beste hurrekin komunikatzea kostatzen zaio.

HAUSNARKETA:

Emozioen alderdi guztiak gehiago landu eta sakondu beharko lituzke. Baina, batez ere, emozioen erregularizazioa lantzea, autonomia emozionala lantzea eta beste hurrekin komunikazioa (konpetentzia soziala) garatzea komeni zaiola iruditzen zait. Izan ere, beste alderdiak nahiko modu orekatuan garatuak dituela uste dut, nahiz eta aipatu moduan hauek indartzea ere ez zaion batere gaizki etorriko.

HAURRA 18:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Emozioak erregulatzeko orduan batzuetan zailtasunak ditu.
 -Haserretzen denean, batzuetan zaila egiten zaio bere burua autoerregulatzea.
 -Batez ere txikikeriengatiko haserrealdietan, modu desegokian jokatu du (garrasi eginez, beste haurrak joz...)
 -Norbaitekin minduta sentitzen denean, beste askorekin ere ordaintzen du. Hau da, bere mina/frustrazioa/gorrotoa momentuan parean egokitzen zaionarekin askatzen du batzuetan.

-Batzuetan, emozioak azaleratzea kostatzen zaio hasieran. Hau da, gehiago eutsi ezin dion arte itxaroten du emozioak azaleratzeko;gehienbat emozio negatiboak direnean.
 -Emozio negatiboekin batzuetan ez du positiboekin bezain natural jotatzen. Batzuetan kostatu egiten zaio emozio negatibo horiek onartzea eta azaleratzea.
 -Emozioak kudeatzerako unean zailtasunen bat duenean, normalean irakasleongana jotzen duen arren laguntza eske, batzuetan ez da laguntza/babes hori eskatzera hurbiltzen.

HAUSNARKETA:

Nahiz eta orokorrean hainbat alderdi ongi garatuak dituen, alderdi batzuk gehiago lantzea eta indartzea komeni zaio. Batez ere, emozioak erregulatzea, azaleratzea, kudeatzerako orduan topatutako zailtasunei aurre egiteko laguntza bilatzea eta emozio negatiboak positiboak bezain natural bizitzea eta onartzea.

HAURRA 19:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleongana zuzentzen da, etab.</i>)					X
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)					X
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Emozioak erregulatzerako orduan batzuetan zailtasunak izaten ditu; batez ere, minduta edota triste sentitzen den momentuetan.
 -Emozioak azaleratzea, pertsona batzuen aurrean beste batzuen aurrean dagoenean baino gehiago kostatzen zaio. Hau da, batzuen aurrean deseroso sentitzen da, konfiantza handirik gabe, eta segurtasun ez zein urduritasun horiek emozioak azaleratzerako unean asko baldintzatzen dute. Gehienbat jolas-orduan

gertatzen zaio (irakasle asko daudelako berarekin harremanik ez dutenak, ezagutzen ez dituenak).
 -Esku-hartzeko jardueretan aldiz, ez du inolako arazo edota zailtasunik eduki emozioak azaleratzeko zein espresatzerako edota hauen zergatia azaltzerako unean; konfiantza eta konfort gunean eroso sentitu baita.

HAUSNARKETA:

Orokorrean emozioen inguruko hainbat alderdi ongi garatuak eta landuak baditu ere, aspektu batzuk hobetzeko eta indartzeko aukera du. Gehienbat, emozioak erregulatzea, azaleratzea eta batzuekin konpartitzea kostatzen zaio. Beraz, landu eta indartu beharreko puntu nagusiak horiek direlakoan nago. Horretarako, emozioak libreki eta naturaltasun osoz bizitzeko zein azaltzeko alderdia direla ikustarazi behar zaio; ez baitago zertan lotsatu edo emozioak ezkutatu/jaso beharrik, ez dute kalterik sortzen eta harremanetarako (bereziki komunikaziorako) ezinbesteko dira.

HAURRA 20:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?					X
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)					X
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Emozioak erregulatzeko gaitasun handia du.
 -Bereziki autoestima, autokonfiantza, automotibazioa eta autoefikazia oso garatu eta indartuak ditu.
 -Oso erraza egiten zaio besteen lekuan jartzea.
 -Nahiz eta emozio positiboak zein negatiboak partekatzeko erraztasun handia duen, negatiboak ez ditu naturaltasunez bizitzen batzuetan; batzuetan horiek ezkututzen edota ukatzen saiatzen baita.

HAUSNARKETA:

Emozioen alderdia oso ongi garatua badu ere, badago aspektu bat indartu zein hobetu daitekeena. Aspektu hori, emozio negatiboak emozio positiboak bezain natural bizitzea eta onartzea da. Behin hori landuta, emozio negatiboak emozio "txarrak" bezala ez identifikatzea lortuko du, eta emozio positiboekin egiten den moduan askatasunez eta naturaltasunez azaleratzea zein espresatzea. Horrela emozio positibo eta negatiboak guztiok bizi ditugula eta hauek onartzea, naturaltasunez bizitzea eta maila berean errespetatzea lortuko du.

HAURRA 21:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

- Nahiko landua duen arren emozioak erregulatzearen alderdia, haserrealdiak dituenen beste hurrekin, batzuetan zaila egiten zaio egoera horiek sentimentalki modu erregulatu mantentzea.
- Taldea txikian eta lagunartean talde handian baino erraztasun handiagoz azaleratzen ditu emozioak eta partekatzerako unean berdin gertatzen zaio.
- Nahiz eta akademikoki dituen zalantzak galdetzerako hurbiltzeko inolako lotsa edota zailtasunik ez duen eta konfiantza osoz askotan hurbiltzen den, emozioak kudeatzerako orduan zailtasunekin topatzean, ez du erraztasun bera erakusten. Batzuetan irakasleak hurbildu behar izaten gara une horietan laguntza/babesa eskaintzen, barrera txiki bat sortu eta itxi egiten baita batzuetan momentu horietan.
- Batzuetan emozio negatiboekiko ukazioa erakusten du. Nahiz eta gaizki edota triste dagoela ikusi (triste

aurpegiarekin, gorputz jarrera tristearekin...) edo demostratu, ondo dagoen ala zer gertatzen zaion galdetzean, ondo dagoela erantzuten du, ez zaiola ezer gertatzen; momentuan bizi duen tristura ezkututzen saiatzen da.

HAUSNARKETA:

Nahiko ondo landuak eta garatuak ditu emozioen inguruko hainbat alderdi desberdin. Hala ere, aspektu batzuk indartzeko beharra duela iruditzen zait. Emozioak erregulatzeko aspektua hobetu behar du, eta baita emozioak azaleratzeko zein partekatzeko dituen gaitasunak gehiago garatu ere. Horretaz gain, emozioak kudeatzeko orduan izan ohi dituen zailtasunei aurre egiteko laguntza eskatzeko jarrera garatzea komeni zaio, izan ere, kanpoko laguntzak asko lagundu diezaioke bere ongizatea bermatzen. Azkenik, emozio negatiboak positiboak bezain ondo onartzen, errespetatzen eta naturaltasunez bizitzen ikastea ezinbesteko izango zaiolakoan nago. Beraz, hori ere landu beharreko alderdia dela deritzot.

HAURRA 22:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?			X		
Autonomia emozionala garatua du?			X		
Konpetentzia soziala garatua du?				X	
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?				X	
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)					X
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

- Orokorrean beti izan baditu ere emozioak erregulatzeko uneen zailtasunak, gurasoen banaketaren ostean oraindik eta zailtasun handiagoekin topatu da. Orduetik, urduriago eta sentikorrago dago.
- Autoestimua eta autokonfiantza indartzea komeni zaio.
- Gezurria denez eta objektu desagertu guztien aurkitzaile (besteen objektuak lapurtzen ditu), ez ditu

errespetua eta ongi dagoenaren eta gaizki dagoenaren arteko desberdintasun guztiak barneratuta. Irakasleak ohartzen ez bagara berea ez den objektu bat hartu duela, objektu hori beretzat hartu eta etxera eramaten du.

- Emozioak kudeatzerako orduan zailtasunak dituenean irakasleongana jotzen du beti. Gainera, batez ere gurasoen banaketaren ondorioz geroz eta gehiago eskatzen edota bilatzen du babes/laguntza hori.
- Batzuetan emozio negatiboak ezkututzen saiatzen bada ere, orokorrean onartzen, errespetatzen eta naturaltasunez bizitzen saiatzen da. Askotan, pozik dagoela azaltzen duen modu berean azaltzen du triste dagoela, eta emozio horren zergatia.

HAUSNARKETA:

Emozioen alderdi batzuk landuak baditu ere, alderdi guztiak indartzea ondo letorkioke, izan ere, hutsune dezente nabaritu dizkiot. Hala ere, hutsune handienak, emozioen erregulazioan, konpetentzia sozialean eta autonomia emozionalean ditu. Hori dela eta, jolasaren bitartez ezinbesteko ikusten dut aspektu horiek lantzea eta garatzen laguntzea haurren ongizaten eta garapen integrala lortzeko.

HAURRA 23:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?					X
Autonomia emozionala garatua du?					X
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?					X
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?					X
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)			X		
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

- Emozioen inguruko hainbat alderdi desberdin oso ondo garatuak eta landuak ditu.
- Autokonfiantza oso handia du.
- Emozioak erregulatzerako unean ez du zailtasunik, baina bai emozioak kudeatzerako orduan (oso gutxitan

bada ere).

-Emozioak kudeatzerako orduan zailtasunak dituen momentu gutxi horietan, ez du laguntza eske jotzen ez irakasleongana ez beste haurrengana. Horrelako egoeren aurrean, nahiz eta oso oso gutxitan izan, irakasleak hurbiltzen gara berarengana laguntza/babesa eskainiz.

-Nahiz eta 5 urteko haurra izan oso pertsona heldua, orekatua eta zentzuduna da.

-Emozio negatiboen aurrean ez du positiboen aurrean adierazten duen bezalako naturaltasuna ateratzen. Emozio negatiboak ekiditen eta tarteka ezkututzen saiatzen da. Komunera joateko baimena eskatu izan du, eta bertan erlaxatu bakarka negar egin ostean.

HAUSNARKETA:

Orokorrean oso ondo landuak/garatuak ditu emozioen inguruko alderdi gehienak. Aipatu bezala, pertsona heldua, orekatua eta zentzuduna da; horrek, asko laguntzen du emozioen inguruko alderdi desberdinak garatzen, indartzen eta barneratzen. Hala ere, egokia izango litzateke ondo menperatzen dituen alderdiak gehiago sakontzea eta jorratzea, lanketari jarraipen progresibo bat emanez. Horretaz gain, bereziki lantzea komeni zaion alderdia emozioak kudeatzerako orduan zailtasunekin topatuz gero, lotsa, beldurra zein bestelako barrerak kendu eta laguntza eskatzeko jarrera hartzea da. Bestalde, emozio negatiboak naturaltasun handiagoz bizitzen ikastea komeni zaio.

HAURRA 24:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)				X	
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez</i>)				X	
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				

OHARRAK:

-Emozioak erregulatzerako unean batzuetan zailtasunak izaten ditu. Batez ere, emozio negatiboak erregulatzerako orduan.

-Autokonfiantza indartu beharra du. Izan ere, ez duenez oso indartua, emozioak azaleratzerako unean edota hauek partekatzerakoan, zailtasunekin/ziurtasun ezarekin topatzen da. Hanka sartuko ote duen beldur egoten da batzuetan, eta sentrazio horrek ez dio uzten aurrera egiten.

-Emozioak kudeatzerako unean zailtasunekin topatuz gero, orokorrean laguntza bilatzen eta eskatzen du. Baina, egoeraren arabera, batzuetan, kostatzen da pausu hori ematea. Hori dela eta, batzuetan irakasleak hurbildu behar izaten gara laguntza eskaintzen.

-Emozio negatiboak ez ditu positiboak bezain modu naturalean bizitzen. Batzuetan, emozio negatiboak ezkututzen saiatzen da edota egoera horretatik ihes egiten, bera ongi egongo balitz bezala. Hau da, bere burua ez ezik besteak ere engainatzen saiatzen da pozik edota ongi dagoenaren itxura eginez.

HAUSNARKETA:

Emozioen alderdi desberdinak nahiko ondo landuak baditu ere, hainbat alderdi daude gehiago sakondu eta indartu ditzakeenak. Batez ere, emozioak erregulatzerako unean agertzen zaizkio zailtasun handienak, emozio negatiboak erregulatzerako momentuan. Bestalde, autonomia emozionalaren barnean bereziki autokonfiantza lantzea oso ondo etorriko litzaioke. Izan ere, emozioak azaleratzeko zein partekatzeko unean izan ohi dituen zailtasunak eta ziurtasun eza horri lotuak daudelakoan nago. Beraz, behin autokonfiantza landuta, beste bi puntuak honekin batera jarraian hobetuko litzatezkeela uste dut. Horretaz gain, emozio negatiboak positiboak bezain modu naturalean bizitzeko jarrera sustatzea ere ongi etorriko litzaiokeela iruditzen zait.

HAURRA 25:

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?					X
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?					X
Emozioak erregulatzeko gai da?				X	
Autonomia emozionala garatua du?				X	
Konpetentzia soziala garatua du?					X
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?					X
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?				X	
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?				X	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?				X	
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du? (<i>Triste dagoenean lagun edo irakasleengana zuzentzen da, etab.</i>)					X
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu? (<i>Mutilak ez dira beldurtu behar, etab.</i>)	X				
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu? (<i>edo bere</i>)					X

<i>burua engainatzen du triste dagoela ez erakusteko pozik dagoenaren itxura eginez)</i>					
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?					X
Bazterturik ikusten da.	X				
OHARRAK:					
<p>-Emozioak erregulatzerako unean oso gutxitan izaten ditu zailtasunak. Gainera, zailtasun horiek emozio negatiboak erregulatzerako momentuan soilik agertzen dira, baldin eta agertzen badira.</p> <p>-Autokonfiantza ez du guztiz indartua. Horrek, emozioak azaleratzerako unean zein hauek partekatzerakoan, zailtasunak eta ziurtasun eza sortarazten dizkio. Hanka sartuko ote duen beldur egoten da batzuetan, eta sentsazio horrek ez dio uzten aurrera egiten.</p> <p>-Emozioak azaleratzeko eta partekatzerako unean, asko eragiten dio inguruneak. Hau da, inguruan nor dagoen arabera, egoera zein den arabera, konfiantzazko giroan dagoen ala ez kontuan hartuz, modu batean edo bestean azaleratzen eta partekatzen ditu emozioak. Konfiantzazko ingurune batean, beti ere lasaiago eta askatasun handiagoz azaleratzen/partekatzen ditu.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Emozioen alderdi desberdinak nahiko ondo landuak baditu ere, hainbat alderdi daude gehiago sakondu eta indartu ditzakeenak. Batez ere, emozio negatiboak erregulatzerako momentuan agertzen zaizkio zailtasun handienak. Horretaz gain, autonomia emozionalaren barnean bereziki autokonfiantza lantzea oso ondo etorriko litzaioke. Izan ere, emozioak azaleratzeko zein partekatzeko unean izan ohi dituen zailtasunak eta ziurtasun eza horri lotuak daudelakoan nago. Beraz, behin autokonfiantza landuta, beste bi puntuak honekin batera jarraian hobetuko litzatezkeela uste dut. Bestalde, aipatu beharra dut, emozioak azaleratzeko eta partekatzerako unean, asko eragiten diola inguruneak. Hau da, inguruan nor dagoen arabera, egoera zein den arabera, konfiantzazko giroan dagoen ala ez kontuan hartuz, modu batean edo bestean azaleratzen eta partekatzen ditu emozioak. Konfiantzazko ingurune batean, beti ere lasaiago eta askatasun handiagoz azaleratzen/partekatzen ditu.</p> <p>Horretaz gain, emozio negatiboak positiboak bezain modu naturalean bizitzeko jarrera sustatzea ere ongi etorriko litzaiokeela iruditzen zait.</p>					

16.eranskina

Argi eduki behar da proposamena (*Emozioak dantzan tailerra*) talde zehatz baten ezaugarrietara eta baldintzetara egokitutako txoko zein jardueraz osatua dagoela, zehaztasun, berezitasun eta espezifikotasunak kontuan hartuz. Beti ere, proposatutako jarduerak prestatzerako unean 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan ezarritako helburu eta edukiak kontuan izanik. Hori dela eta, proposatutako txoko zein jarduera hauek oinarritzat hartuz, talde desberdinen ezaugarrietara zein baldintza/espaziora molda daitezkeela azpimarratu behar da. Beti ere, taldearen errealitate eta ezaugarrietara ahalik eta gehien hurbiltzen nahiz egokitzen/moldatzen garela ziurtatuz. Izan ere, eskoletan aurkitzen den errealitate, aniztasun eta dibertsitateira moldatu edota egokitu daitekeen proposamena dela esan daiteke.


Jarraian, Emozioak dantzan tailerra osatzen duten txoko eta jardueren nondik norakoa, jarduera bakoitzak duen helburu nagusia, erabili beharreko materiala, espazioa eta denboralizazioa azaltzen dira, taldekatzearekin batera. Baina lehendabizi, argi utzi nahi da Bisquerraren (2009) 5 estadioetatik zeintzuk eta zenbatetan landuko diren:

Zehazki kontzientzia emozionala lantzeko bost ekintza, erregulazio emozionala lantzeko bi ekintza, autonomia emozionala lantzeko bi ekintza eta konpetentzia soziala zein bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia lantzeko ekintza bat planteatu da, ekintza gutziak jolas moduan eramanez aurrera. Hala ere, esan beharra dago jarduera guztietan zeharka bada ere aipatutako estadioak/blokeak gehiagotan landu direla; bereziki adibidez konpetentzia soziala zein bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia jarduera guztietan lantzen da bigarren maila batean.

Emozioak dantzan tailerra txokoen bidezko metodologian dago oinarrituta. Bertan, hasierako jarduera bat topa daiteke, haurrak nolabait gaian kokatu zein murgiltzeko asmoz. Behin gaian murgilduta, sei txoko desberdin antolatu dira hasiera batean haurrak taldeka txoko ezberdin horietatik igarotzeko aukera izan dezaten, emozioen alderdi desberdinak lantzeko aukera edukiz; izan ere, denbora bat pasatu ondoren eta txokoen dinamika ezagutu ondoren zirkulazio-librea sustatu ahalko litzateke (beti ere, taldearen ezaugarrien eta baliabide pertsonalen arabera). Horretaz gain, haur talde osoarekin burutzeko musika jarduera bat planteatu da eta amaitzeko, jarduera bat sortu da haur talde guztiarekin batera burutzeko, proposamenari amaiera ireki bat emateko asmoz (eskulan bat). Amaiera honekin,

fase bat amaituko litzateke eta beste bat hasi; txokoetan moldaketa txikiak egin daitezke apur bat moldatuz taldearen ezaugarri nahiz maila berrietara egokitzeko. Horrela, tailerra beti joango da haurren erritmora eta beharretara egokitzen, mailaz igotzen fase edota ekitaldi bakoitzaren ostean. Hau da, matematika ikasgaiari gertatzen den moduan, lehendabizi gehiketarik ikasten dira, fase hori eta gero kenketak, gero biderketak, gero zatiketak... mailaz/zailtasunez igotzen joaten da. *Emozioak dantzan* tailerrean ere gauza bera egin beharko litzateke, txoko bakoitzaren barneko jardueretan zailtasun maila igoz. Izan ere, haurrei zailtasun txikiak (erronkek) motibazioa eragiten diete aurrera egiteko; beti baitaude ikasteko eta geroz eta lorpen handiagoak lortzeko gogoz.

Taldekatzeari dagokionez, 25 haur direnez, gelako dibertsitatea kontuan hartuz talde misto bakoitza bost haurrek osatuko dute. Bost talde baina sei txoko daudenez, beti geratuko da libre txoko bat errotazio bakoitzean. Hala ere, lehenago aipatu bezala, tailerreko egunak aurrera doazen heinean eta haurrek bertako funtzionamendua ikasten dutenean zirkulazio-librea sustatuko da eta honekin batera talde finakoak desagertuko dira. Denboralizazioari eta espazioari erreparatuz aldiz, tailer hau ikasturte osoan zehar eskaini daitekeen tailer finko bihurtu daiteke, espazio/gela finko bat eskainiz. Hala ere, errealitate desberdinetara egokitu daitekeenez 1000 eretara molda daiteke, egoeraren arabera; jolastokian espazio bat eskaini ahal zaio, ikasgelan espazio bat nahiz astean ordu kopuru bat eskaini ahal zaio eta astero proposameneko txoko bat landu, proposameneko txokoak jarduera solte bihurtu edota hiruhileko bakoitzean aste bat soilik eskaini (espazio, denbora edota baliabide falta dela eta adibidez)... Hala ere, proposamena ikasturte osoan zehar gela finko batean egiteko pentsatua dagoenez (astean zehar 4 ordu eskainiz), modu horretan nola planteatuta dagoen azalduko da segidan. Txoko bakoitzari 15 minutu inguru eskainiko zaizkio; beti ere haurren beharrak, jarduerarekiko erantzuna (positiboa, negatiboa) eta erritmoa errespetatuz. Izan ere, txokoren batean haurrak gehiegi aztoratzen edota aspertzen badira, moldaketak egin beharko dira bai txokoari bai denboralizazioari dagokionez; ezinbestekoa baita zerbait landu edota lortu nahi bada haurren interesetatik abiatzea. Hori dela eta, haurren ongizatea, erosotasuna eta motibazioa pizteko honako hau izango litzateke tailerraren antolaketa:



Ekema edo plano honetan kolore **urdinez** agertzen den espazioa “**Termometro txokoa**” da. Bertan, alfonbra eta puf batzuk egongo dira (taldekideen kopuruaren arabera, kasu honetan bost) gune dibertigarri, baina aldi berean lasai, eroso eta intimo bat sortuz. Bestalde, laukizuzen urdinak txoko honen espazioaz gain armairu/apalategi bat ere irudikatzen du, bertan txoko honetan erabiliko den materiala egongo da.

Kolore **laranjaz** agertzen den espazioa aldiz, “**Gutun txokoa**” da. Bertan, bost mahai irudikatzen dira, eta bost mahai hauek edozein aukeratu ahal izango dute hurrek txoko honi egokitzen zaion jarduera burutzeko. Hala baina, espazio erdia **berdez** irudikatua dago, honek “**Eguneroko txokoa**” irudikatzen duelarik. Beraz, “Gutun txokoak” eta “Eguneroko txokoak” espazio bera erabiltzea planteatzen da, izan ere, gutunak eta egunerokoa sortzeko material bera egongo da eskuragarri armairuan/apalategian eta mahaiak erabiliko dira euskarri moduan.

Kolore **marroiz** adierazita dagoen espazioa berriz, “**Kutxa magikoen txokoa**” da. Laukizuzen forma duen zatiak apalategia irudikatzen du, bertan egongo baitira kutxa magikoak eta material desberdina. Horretaz gain, alfonbra bat ere agertzen da non kutxak bertara aterako diren eta hurrek jarduera aurrera eramango duten.

Bestalde, kolore **morearekin** “**Aho-bizi eta belarri-prest txokoa**” adierazi da. Txoko honetan, laukizuzen moreak txokoaren espazioa eta apalategi bat irudikatzen du. Horretaz gain, jarduera aurrera eramango den lekua ere irudikatua dago; alfonbrak eta puf-ak irudikatu dira esleitutako espazioaren barnean hurrak nahi duten lekuan eta moduan eseri ahal izateko.

Kolore horiarekin adierazitako txokoa berriz, “Muxu panpinaren txokoa” da. Bertan, apalategi bat dago adierazita non Muxu eta material desberdina egongo den. Horretaz gain, aipatzekoa da Muxuren jarduera alfonbra arroxak markatzen duen gunean emango dela; modu horretan espazioa aprobeixatu baitaiteke.

Azkenik, argitu beharreko azken gunea, gunea arrosa da. Espazio honetan, “Literaturan murgiltzen” jarduera eta “Musikaz blai” jarduera burutuko dira. Talde handian egiteko jarduerak direnez, txoko guztiak hutsik dauden unean burutuko dira jarduera hauek aurrerago azalduko den bezala. Espazio honetan alfonbra handi bat dago haur guztiak bertan sartzeko modukoa dena eta arbel digital bat zeinak besteak beste musika jartzea edota giroa girotzea ahalbidetuko duen. “Maringo” jarduerari dagokionez, eskulanak mahaiak agertzen diren espazioan burutuko dira.

Tailerrean zentratuz, jarraian agertzen dira txoko eta jarduerak banan-banan deskribatuak:

1.- Literaturan murgiltzen jarduera

Koloretako Munstroa album ilustratua irakurriko da talde osoaren aurrean, izan ere, emozio desberdinen aipamena egiten da bertan eta liburu egokia da emozioen gai/alderdiari hasiera emateko; nolabait denak gaian murgiltzeko. Albuma kontatu ondoren, haur bakoitzari marrazki bat egiteko eskatuko zaio non emozio bat adierazten/azaltzen duen. Marrazki hauetan pertsona, animalia, paisaia zein objektu desberdinekin topa gaitzke. Haurrek irudimen handia dutenez, adibidez zeru ilun bat margotu eta tristura transmititzen duela esan dezakete, edo eguzkiak poza transmititzen duela... Marrazkiak amaitzean, korroan eseri eta banan-banan bakoitzak bere marrazkia erakutsi eta azalduko die besteei. Ondoren, erlojuaren norabidean istorio bat osatzeko eskatuko zaie marrazkia ondokoaren marrazkiarekin uztartuz. Esaterako, batek txakur bat negarrez margotu badu eta bere ondokoak mendi bat, bi marrazkiak uztartuz istorioaren hasiera honelako zerbait izan liteke: “bazen behin, pintxo izena zuen txakur bat triste-triste zegoena (esan dezake txakurraren marrazkia egin duen haurrak), egun batean mendira joan zen (jarraitu dezake mendiaren marrazkia egin duen haurrak)...” Azkenik, marrazki guztiak uztartuz osatutako istorioarekin amaitzean, mural bat osatuko da egindako marrazkiak itsatsita.

Helburua:

Jarduera honen bitartez, emozioen gaian murgiltzea eta batez ere *kontzientzia emozionala* lantzea lortuko da euskara lantzearekin batera.

Materiala:

Erabili beharreko materialari erreparatuz, *Koloretako Munstroa* album ilustratua, orri zuriak eta margoak soilik behar dira lehenengo saiorako. Urrengo saioetan beste album zein ipuin batzuk erabiliko dira.

Denboralizazioa:

Azaldutako guztia egiteko, ordu eta erdi beharko litzateke gutxi gorabehera. Hori dela eta, jarduera bitan zaitituko litzateke astuna ez egiteko. Batetik, *Koloretako Munstroa* albuma irakurtzea, marrazkia egitea eta hau korroan erakutsi zein azaltzea. Bestetik, beste saio batean, marrazkien jarduera birgogoratu eta hauek uztartuz istorio bat sortzea.

2.- Termometro txokoa

Termometro erraldoi bat sortuko da guztien artean eta gero horman itsatsita egongo da bakoitzak bere argazkia termometroaren marra desberdinetan edota desberdinen artean kolokatzeko aukera izango duelarik momentuan sentitzen duenaren arabera. Hau errutina moduan landuko litzateke, tailerrera sartzan diren momentutik irteten diren momentura bitartean dutelarik aukera argazkia lekuz mugitzeko, momentuan bizi duten emozioaren arabera.

Hori horrela izanik, termometroaz gain, txoko honetan liburu desberdinak ere jarriko dira armairuan/apalategian, liburutegitxo baten moduko gune bat sortuz. Gainera, liburutegitxo honetan gozatzeko liburuak, amesteko liburuak eta emozio desberdinak sentitzeko liburuak soilik topatuko dira. Zergatik? Modu honetan emozio desberdinak (zirrara, intriga, beldurra, tristura, poza...) sentiaraztea sustatuko delako ahalik eta ingurune isil eta lasaienean.

Helburua:

Jarduera honen bitartez ere, gehienbat *kontzientzia emozionala* lantzea lortuko da literaturarekiko interesa piztearekin batera.

Materiala:

Erabili beharreko materialari erreparatuz, batetik, hurrek gozatzeko, amesteko eta emozio desberdinak sentitzeko liburuak behar dira. Bestetik, termometroa osatzeko kartulina, margoak, artaziak, kola, horman itsasteko “txikleak” eta hurren aurpegiaren argazkiak.

3.- Eguneroko txokoa

Txoko honetan hurrek marrazki bat egingo dute, gelan nola sentitu diren idatzi eta emozio horren zergatia azalduko dute, edota zerbaitek kezkatzen duen (eskolan ala eskolatik kanpo) marraztu/idatzi...Hala ere, hurrak nahi duenaren eta gaitasunaren arabera idatzi bakarrik edota marraztu bakarrik ere egin dezake. Eguneroko hau etxera egunero eramateko aukera izango dute, irakasleak zein familiak izan dezan hurraren emozio/sentimenduen berri, familia eta eskolaren arteko harremana sustatuz hurraren ongizatearen bila.

Helburua:

Jarduera honen bitartez ere, gehienbat *kontzientzia emozionala* lantzea lortuko da. Baita, eskola eta familiaren arteko harremana sustatzea ere, hurraren ongizatea bermatuz.

Materiala:

Erabili beharreko materialean zentratuz, arkatzak, borragomak, margoak, gometak, orri zuriak, pintzelak, pintura, ikatza, errotulkiak eta grapagailua (orri zurien bidez eguneroko bat sortzeko) behar dira.

4.- Aho-bizi eta belarri-prest txokoa

Txoko honetan bost puf egongo dira eta hurrei aukera emango zaie nola sentitzen diren azaleratzeko (aho-bizi txartela hartuta) taldean duen berak hautatutako ikaskideren bati zein hezitzailearen bati edota taldekide guztiei (belarri-prest txartela hartuta jezarriko da/dira adi-adi eta arretaz entzuteko). Hala ere, nahi izanez gero, gela osoaren aurrean hitz egiteko aukera ere emango zaio aho-bizi txartela duenari. Autokonfiantza eta automotibazioa ezinbestekoak dira emozioak norbaiti azaleratzeko orduan, eta jolas honek aukera ona ematen du hori sustatzeko. Baita, protagonismo une bat izateko ere. Aipatutako txartelen esleipena hurrek erabakiko dute, hau da, beraiek erabakiko dute zein rol beteko duten (aho-bizi ala belarri-prest). Baina, desorekaren bat gertatuz gero, irakasleak/hezitzaileak hartuko du parte rol aukeraketan. Jolasa euskarri baten bidez burutzea errazagoa denez, emozio desberdinak adierazten dituen erruleta bat sortuko da. Horrela, haur bakoitzak bere txandan erruleta biratzean, geziak emozioa bat adieraziko/seinalatuko du eta emozio horren inguruan hitz egitera bultzatuko ditu hurrak. Hala nola, geziak “haserre” laukia seinalatzen badu, zein momentutan jartzen den haserre, zerk edota nork haserretzen duen, azkenekoz noiz haserretu zen eta zergatik... azalduko die erruletari eragin dion hurrak besteei.

Helburua:

Jarduera honen bitartez *kontzientzia emozionala, konpetentzia soziala eta autonomia emozionala* lantzea lortuko da. Baita, euskal-mintza eta hiztegia lantzea ere.

Materiala:

Erabili beharreko materialari dagokionez, sei txarteltxo (bi, aho-bizi adierazten dutenak eta lau, belarri-prest adierazten dutenak) haurren rolak markatzeko (txartelak txandatzen joango dira denak izateko aho-bizi eta belarri-prest) eta bost puf.

5.- Gutun txokoa

Gutun txokoan ikaskide bati gutun/marrazki bat egingo zaio, haur bakoitzak bere taldeko bati. Modu horretan, guztiek jasoko dute gutuna, ez da inor gutunik gabe geratuko. Gutun horretan, emozio/sentimendu edo zerbait positiboa transmititu beharko diote batak besteari. Zer lor daiteke horrela? Autoestimua, autokonfidantza eta automotibazioa sustatzea.

Helburua:

Jarduera honen bitartez, *gehienbat autonomia emozionala* lantzea lortuko da.

Materiala:

Erabili beharreko materialari erreparatuz, orri zuriak, arkatzak, gometxak, errotulkiak eta margoak soilik behar dira.

6.- Muxu panpinaren txokoa

Txoko honetan Muxu izeneko panpina bat egongo da. Muxuk, pertsonen moduan emozio eta sentimendu desberdinak bizitzen ditu egoera desberdinen aurrean. Hori dela eta, irakaslea arduratuko da egunero emozio desberdinen inguruko egoera bat asmatzen. Egoera asmatu ostean, Muxuk egoera horietan zer egiten duen ere zehaztuko du irakasleak, aholku muduan; izan ere, modu horretan haurrak egoera antzekoetan aurkitzen direnean gutxi gorabehera zer egin jakingo dute. Hau da, egoera desberdinetan nola jokatu, emozioak nola erregulatu, jakingo dute edota behintzat aukera posible bat zein den ikusi.

Esate baterako, tristura lantzeko honako istorio hau erabil daiteke:

Gaur Muxu oso triste egon da goizean. Bere jostailurik gustokoena apurtu zaiolako... horrenbeste gustatzen zitzaion diaboloa apurtu zaio...

Zuek jarri zarete triste inoiz? Zuek ere triste jartzen zarete jostailuak apurtzen zaizkizuenean?
.....(Haurren erantzunak)

Baina badakizue zer dioen Muxuk? Formula magiko bat duela horrelako egoeren aurrean topatzen denean erabiltzeko! Iada pasatu zaiola tristura esan dit, izan ere, gurasoei esan die zer gertatu zaion bere diaboloko maiteari. Eskerrak gurasoei azaldu dien zer gertatu zaion; izan ere, ezer esango ez balu, konponbiderik gabe geratuko zen. Hori dela eta, esan diote lasai egoteko, izeba Mertxek konponduko duela bihar. Eta berak ez badu lortzen konpontzea, Aitaren txikitako diaboloko uzteko eskatuko diotela aitonari.

Beraz, azkenean ez zaio ezer gertatu, diaboloko zaharra konpontzen saiatuko da eta bestela bere aitaren diaboloko zena hartuko du berarentzat. Super ondo zaindu eta tratatuko du diaboloko hemendik aurrera... Beraz, badakizue; horrelako zerbait gertatzean ezkutatu orde hobe izaten da guraso zein irakasleoi esatea, ez baikara haserretuko, laguntzeko prest gaude!

Zuek Muxuk gaur egin duena egin ohi duzue? Familia edo irakasleoi kontatuko zeniguten horrelako zerbait gertatuz gero? Zergatik?

.....(Haurren erantzunak)

Beste istorio-adibide bat honako hau izan liteke:

Gaur Muxu oso triste esnatu da goizean. Izan ere, atzo arratsaldean hockey-ean jolasten zegoela, izotz-pistan erori eta ezkerreko besoa hautsi zuen... Korrika ospitalera joan eta igeltsua jarri zioten besoan... Hori dela eta, gaur goizean gurasoek lagundu behar izan diote pijama kendu eta eskolara etortzeko arropa janzen, gosaltzen, orrazten... Umore txarrez, triste eta negarrez pasatu du eskolara etorri aurretik goiza.

Zuek jarri zarete triste inoiz? Zuek ere triste jarriko zinatekete horrelako zerbait gertatuz gero?

.....(Haurren erantzunak)

Baina badakizue Muxuk formula magikoak erabiltzen dituela horrelako egoerei aurre egiteko... Halako batean, atzo izugarritzko zortea izan zuela ohartu da; izan ere, beso bat hautsi zuen bai, baina bestea ez, bi hankak ongi ditu eta burua ere bai. Erorikoa beraz ez zen izan izan ahal zuen bezain txarra... Gainera, ohartu da familia, irakasle eta lagun asko

dituela asko maite dutenak eta laguntzeko prest daudenak (arropa erantzeko edo janzteko, jatekoa emateko, jolasetan parte hartzeko...). Horretaz gain, apurka-apurka konturatu da nahiz eta ezkerreko besoa ezin duen erabili beso batekin soilik, geroz eta gauza gehiago egiteko gai dela. Beraz, ikusten duzuen oso baikorra eta kemen handikoa da gure Muxu! Begira zer pozik dagoen orain... Hala ere, alaiago egongo litzateke zuen besarkada edo musuren bat jasoko balu...

Zuek ere Muxu bezain baikorrak eta kementsuak zarete? Berak egin duen bezala zuek ere gauzei alde ona ateratzeko prest zaudete? Familia, irakasle eta lagunek eskainitako/emandako laguntza/maitasuna garrantzitsua dela uste duzue? Zergatik?

.....(Haurren erantzunak)

Helburua:

Jarduera honen bitartez, *erregulazio emozionala* lantzea lortuko da. Baita, enpatia lantzea ere, besteen lekuan jartzera bultzatuko baititu.

Materiala:

Erabili beharreko materialean zentratuz, Muxu panpina eta irakasleak prestatuturiko egoera eta emozio desberdinak agertzen diren istorioak behar dira. Baita, egoeraren arabera Muxu panpinak edukiko duen osagarria ere. Hala nola, bigarren adibidean ezkerreko besoa benda batekin bilduta eramango luke; beraz kasu honetan material moduan benda beharko genuke.

7.- Kutxa magikoen jarduera

Jarduera honetan bi kutxa magiko daude, kutxa barruan testura eta mota desberdinetako materiala sartuta daudelarik. Kutxa bakoitzak zulo txiki bat du alde batean, esku bat sartzeko moduko zulo txikia. Modu honetan, hurrek eskua kutxan sartu behar dute banan-banan eta bertan ukitzen duten objektu bakoitza zer den asmatzen saiatu (kutxan 10 objektu edo gehiago sartzea komeni da). Horretarako jakina, ezin da objektua kutxatik atera, ukimenaren bidez soilik asmatu behar da zer den kutxa barruan dagoen hori. Horrek, emozio desberdinak sorrarazten dizkie hurrei, intriga, tentsioa, beldurra, nazka, poza... Hori dela eta, jarduera amaitzean nola sentitu diren galdetzea komeni da, zein emozio/sentimendu bizi izan dituzten jakiteko (emozio bat baino gehiago bizi ditzakete jakina).

Helburua:

Kontzientzia emozionala lantzea lortu nahi da.

Materiala:

Kartoizko bi kutxa eta objektu desberdinak, ahal izanez gero testura eta forma desberdinetakoak.

8.- Musikaz blai jarduera

Musika estilo desberdinak hautatuko dira, musika klasikoa, opera, musika modernoa, rock-a, euskal musika, atzerriko musika, etab. Modu honetan, alfonbran sakabanatuko dira haurrak eta musikak transmititze dien emozioa adierazi beharko dute gorputzaren bitartez, keinuen bitartez zein dantzaren bitartez; haur bakoitzak bere adierazteko, komunikatzeko edota espresatzeko modua izango baitu. Jarduera hau txandaka, talde txikietan zein talde handian burutu daiteke, estilo desberdinekin jolastu daiteke eta hasiera batean gorputz espresio hutsa dena denbora aurrera doan heinean antzezlan bilakatu. Hasiera batean irakasleak jarriko du inizatiba eta eredu izango da; haurrak dinamika hartzen joan ahala irakaslea bigarren plano batean geratuko da. Espresio libreaz gain, dantza gidatuak ere landuko dira, musika estilo desberdinekin.

Helburua:

kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala eta autonomia emozionala lantzea lortuko da.

Materiala:

Arbel digitala edota erradioa eta musika estilo desberdinak.

Denboralizazioa:

Haurren interesaren arabera malgutasunez jokatu da bestelako jarduera guztietan bezala; hori dela eta, nahiz eta gutxi gorabehera 20 minutu inguru iraungo duen jarduera izan, haurren nahiaren arabera izango da.

9.- Maringo jarduera

“Maringo Olarizun bizi den har koloretsua da. Bere gorputzean zehar sentimendu desberdinak gordetzen ditu, kolore desberdinetan plasmatuak. Izan ere, emozio desberdinak bizitzen ditu egunero guk bezala... batzuetan pozik egoten da, besteetan triste, batzuetan haserre, noiz behinka urduri... zuek ere emozio desberdinak bizitzen dituzue? edo beti zaudete pozik, edo beti triste?...”

Egun hauetan zehar ikusi dugu emozio eta sentimendu desberdinak daudela, guztiak direla onak, eta Maringo harrak bezala guk guztiok ere geurekin eramaten ditugula emozio

desberdinak, bihotzean. Hori dela eta, Maringo harraren eskulana egingo dugu emozioen lehenengo astearekin amaitzeko.”

Materiala:

Arropa eskegitzeko egurrezko pintzak, kolore desberdinetako ponpoiak, begi txikiak, errotulagailu fin beltzak eta kola zuria.

Prozedura:

Egurrezko pintza bat hartu eta kolore desberdineko hiru ponpoi aukeratu. Behin ponpoiak aukeratuta, pintzaren alde batean kola zuria bota eta hiru ponpoiak bata bestearen ondoan, jarraian, itsatsi. Ondoren, lehortzen utzi eta ordu batzuk geroago (edota urrengo egunean) begiak itsatsi lehenengo ponpoiari. Azkenik, begiak itsatsitako ponpoi berean ahoa marraztu errotulagailu beltzarekin (irribarre bat, haserre,...).

Helburua:

Emozioen lanketa borobiltzea, emozio desberdinez osatutako har bat irudikatuz.

Denboralizazioa:

Gutxi gorabehera 30minutu; hala ere, betiko moduan haurren erritmoak errespetatuko dira. Beraz, hurrek markatuko dute erritmoa eta honekin batera denbora.

Hasiera batean azaldu bezala, Haur Hezkuntzako curriculumean oinarrituz planteatutako txoko eta jarduerak dira guztiak. Horren harira, 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan oinarrituta zehaztutako helburuak honako hauek dira:

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko helburu hau bete nahi da:

Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea ez ezik, sentimendu eta bizipenak ere adieraztea, hitzik gabeko eta ahozko hizkuntzaz (euskal-mintza erabiliz) komunikatuz norberaren portaera zein elkarbizitza erregulatzeko eta gainerako pertsonak aintzat hartzeko.

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremutik berriz, honako helburu hau bete nahi da:

Norbera pertsona berezia dela ohartzea irudi orekatu eta positibo bat osatuz eta gizartean jokatzeko oinarritzko irizpideak jarraituz ongizate emozionala izateko.

Edukiei dagokienez aldiz, jarraia azaltzen dira jarduera bakoitzean lantzen diren edukiak:

1.Literaturan murgilduz jardueran landuko diren edukiak:

Edukiei erreparatuz, honako hauek dira jarduera honetan lantzen diren bigarren zikloko edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean.

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.
- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak hausnartzea, balioestea eta betetzea.
- Elkarbizitzaren oinarritzko arauak bereganatzea. Batez ere, aurreko puntuarekin batera korroan txanda errespetatzerako unean edota bestea hitz egiten ari denean isiltasuna mantentzeaz gain arretaz entzutean.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea. Jardueran eginiko marrazkiaren zergatia aipatzean, zer transmitzen dion edota zein emozio adierazi duen azaltzean.
- Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea. Euskal-mintza sustatuz eta landuz.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea. Txandak errespetatu, besteak hitz egiten ari direnean entzun, etab.

4. MULTZOA. Arte-komunikazioko beste modu batzuk.

- Proiektu kolektiboak egiten parte hartzea eta ingurune arte-ekoizpenen gaineko interesa izatea. Bakoitzak indibidualki egin duen marrazkia korroan erakutsi ondoren guztien artean istorio bat osatzean, elkarrekintza kolektiboa sustatuko da artea eta imaginazioa erabiliz.

2.Termometro txokoan landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak hausnartzea, balioestea eta betetzea.
- Elkarbizitzaren oinarritzko arauak bereganatzea. Goiko puntuarekin batera, liburuak elkartrukatzean, isiltasuna eskatuz gero hau betetzea, etab.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea. Izan ere, liburu desberdinekin egongo dira kontaktuan, emozioak lantzearekin batera literatura sustatzeko asmoz.

3.Eguneroko txokoan landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean.
- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean. Autonomoki, askatasun osoz, utziko zaie nahi duten eran egiten egunerokoa. Gainera, idatzizko saiakeretan zein marrazkietan betiko moduan motibazioa eta segurtasuna transmitituko zaie euren ahalmenetan sinesteko.

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Elkarbizitzaren oinarritzko arauak bereganatzea. Taldekaturik daudenez, talde bakoitzak margo kutxa konkretu bat du eta borragoma kopuru mugatua. Beraz, materiala elkartrukatzean, txandak errespetatzea... landu daiteke.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Testu irakurgarriak egiteko interesa izatea, eta hizkuntza idatziaren arauak betetzeko bidea urratzea.

4.Aho-bizi eta belarri-prest txokoan landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean.
- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean. Aurreko puntuarekin batera, hizkuntza aldetik zailtasunak badaude norbere buruan fidatzea, laguntza behar izatekotan eskatzea...

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. Besteak azaldutakoa berdin berdinean errespetatu eta onartzea, inolako desberdinatsunik gabe.
- Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea. Konfiantza eta segurtasun gune zein harremana sortuko da euren artean.

- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak hausnartzea, balioestea eta betetzea. Hitz egiten ari denari entzun, txandak errespetatu, etab.
- Elkarbizitzaren oinarrizko arauak bereganatzea.
- Haurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean. Haur guztiak berdin errespetatzea elkar.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea.
- Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea. Euskal-mintza sustatuz eta landuz.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea.
- Ahozko hizkuntza komunikaziorako eta norberaren eta gainerako pertsonen portaera erregulatzeko bitartekoa dela jakitea eta balioestea.

5.Gutun txokoak landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean.
- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean. Zerbait idatzi edo marrazterako unean topatzen dituzten zailtasunen aurrean konfiantzaz aurre egitea.

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea. Horiek ezagutuz, gutun pertsonalagoa burutuko dute.
- Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa lantzea. Gutuna helaraziko zaion eta jasoko duenarekiko harreman estuagoa lortuko da.
- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak hausnartzea, balioestea eta betetzea.
- Elkarbizitzaren oinarrizko arauak bereganatzea.
- Haurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean. Gutziek egingo eta jasoko dute gutuna, inor baztertua ez sentitzeko, denek jaso ahal izateko mezu politik. Autoestimua eta elkarrekiko konfiantza sustatuz.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Pertsona helduek eta haurrek eguneroko bizitzako egoeretan dituzten komunikazio-xedeak ulertzea eta horietara egokitzea. Gutunek zertarako balio duten landuko dute, egoera errealetatik abiatuz alderdi desberdinak lantzea errazagoa baita.
- Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.
- Testu irakurgarriak egiteko interesa izatea, eta hizkuntza idatziaren arauak betetzeko bidea urratzea.

6.Muxu panpinaren txokoan landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.
- Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea.
- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak hausnartzea, balioestea eta betetzea.
- Elkarbizitzaren oinarrizko arauak bereganatzea.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Informazio, beharizan, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea.
- Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea.
- Ahozko hizkuntza komunikaziorako eta norberaren eta gainerako pertsonen portaera erregulatzeko bitartekoa dela jakitea eta balioestea.

7.Kutxa magikoen txokoan landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean.

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.
- Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea.
- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak hausnartzea, balioestea eta betetzea.
- Elkarbizitzaren oinarrizko arauak bereganatzea.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

1. MULTZOA. Hitzeko eta idatzizko komunikazioa

- Informazio, beharizan, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea.
- Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea.

- Ahozko hizkuntza komunikaziorako eta norberaren eta gainerako pertsonen portaera erregulatzeko bitartekoa dela jakitea eta balioestea.

8. Musikaz blai jardueran landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean.
- Egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea.
- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean eta jolasetan parte hartzea eta saiatzea.

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea.

«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukietan zentratuz aldiz:

2. MULTZOA. Gorputz-hizkuntza

- Gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egin edo komunikatzeko asmoarekin.
- Dramatizazio eta imitazioko jolasetan, dantzetan eta gorputz-adierazpena darabilten bestelako jolas-jardueretan parte hartzea.

- Gainerako pertsonen adierazpen, azalpen eta antzezpenekiko interesa eta begirunea izatea.

4. MULTZOA. Arte-komunikazioko beste modu batzuk

- Genero eta estilo askotako obra batzuk entzutea.
- Ikus-entzunezko bitartekoetatik igortzen diren mezuak interpretatzen hastea eta haien bidez mezuak igortzen hastea.

9. Maringoren jardueran landuko diren edukiak:

«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiei dagokienez:

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean.
- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean.

2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.

- Elkarbizitzaren oinarriko arauak bereganatzea.

4. MULTZOA. Arte-komunikazioko beste modu batzuk

- Proiektu kolektiboak egiten parte hartzea.

Ebaluazioari erreparatuz aldiz, ebaluatuko dena, batetik, haurrek zer nolako erantzuna eman duten jardueren aurrean, nolakoa izan den euren parte-hartzea, nola sentitu diren, eta emozioen inguruan alderdi asko garatu/landu dituzten ala ez jardueren bidez izango da. Bestetik, jarduerak egokiak diren ala ez, hutsunerik topatu den edota zerbait moldatzeko beharra ikusi den aztertuko da, proposatutako tailer honen balio erreala ebaluatuz,

eraginkorra den ala ez jakiteko. Haurren ebaluazioari dagokionez beraz, esku-hartzea burutu aurretik, ekintzek irauten duten bitartean zein praktikaldia amaituko den azken astean egingo da behaketa taulen bidez; honen bitartez datuak eta informazioa jasoko baitira. Modu horretan, burututako jarduerak haurrengan ea nolabaiteko hobekuntza/garapena ekarri duten aztertu ahal izango da. Gainera, zertan huts egin den, baldin eta egin bada, ere jakiteko aukera ahalbidetuko du.

Tailerra ebaluatzeko ekintza aldiz, proposamena amaitutzat ematean burutuko da. Honekin zer-nolako aldaketak, hobekuntzak eta proposamen berriak planteatzeko aukerasortuko dira. Horretarako, jarraian agertzen den txantiloia erabiliko da:

TAILERRA AMAITZEAN BETE BEHARREKO TXANTILOIA				
INDIKADOREAK	BAI	BATZUETAN	EZ	OHARRAK
Jarduera guztiak izan dira egokiak				
Denboralizazioa egokia izan da				
Jarduera aurrera eramateko hautatu den espazioa egokia izan da				
Taldekatzea egokia izan da				
Jarduerak dinamikoak izan dira				
Jarduerak haurren interesa sustatu dute				
Jarduera zehatzen bat asko kostatu zaie aurrera eramatea				
Zein da gehien gustatu zaien jarduera?				
PRAKTIKALDIAREN AMAIERAN BETE BEHARREKO TXANTILOIA				
Buruturiko jarduerak zerbaiterako balio izan dute				
Emozioen inguruan hasiera batean baino ezagutza handiago eskuratu dute hurrek				
Jarduerak Bisquerraren 5 blokeak garatzen lagundu dute				
Burututako jardueraren bat errepikatzeko eskatu dute hurrek				
Hurrek euren artean, familian zein irakaslearekin emozioak azalertzera bultzatu zuten jarduerak fruituak eman dituzte				

Haurren ongizatean aldaketa on nabarmenak eman dira (lasaiago daude, emozioak erraz erregulatu dituzte, etab.)				
---	--	--	--	--

17.eranskina

Proposamena praktikan jarrita:

Lehen aipatu bezela, moldaketak ugari egiteko aukera ematen duen proposamena da aurkeztutakoa. Horietako bat, aparteko gela finko bat eskaini ezin daitekeelarik tailerra gela barrura bertaratzea eta txokoak txoko izatetik jarduera izatera igarotzea da; tailerra praktikan jartzeko egin behar izan den bezala. Izan ere, faktore desberdinengatik (ikastetxeak jarritako mugak, ikasketa programazioan atzerapena ez sortzea, espazio falta, baliabide falta, etab.) ezin izan da hasiera batean planteatu bezala eraman praktikara. Zehazki honako moldaketa hauek burutu behar izan dira tailerra egoera/baldintza/errealitate berrira egokitzeko:


Tailerrean izatez txokoak talde txikietan parte hartzeko planteatuak daudenez, gela barrura ere modu berean eraman dira; horretarako, txokoak jarduera huts bihurtuz. Jarduera bakoitza, taldez talde burutu da, egun berean baina une/ordu desberdinetan talde bakoitzarekin. Hori dela eta, egun oso bat eskaini zaio jarduera bakoitzari. Espazio, baliabide eta materialei dagokienez ere, jarritako gunek, baldintza eta aukeretara egokitu behar izan da. Hori dela eta, jarraian azalduko da zer nolako moldaketak egin behar izan diren txoko/jarduera bakoitzean.

1.- Literaturan murgiltzen jarduera

Jarduera hau hasiera batean proposatu bezala eraman da aurrera. Materiala eta denboralizazioa egoki bete dira. Oso jarduera dibertigarria eta arina izan da, asko gustatu zaie haurrei, denek izan baitute parte hartzeko eta protagonista izateko aukera.



Haurrek eginiko marrazki batzuk (lan honen egileak ateratako argazkiak).



HAURRA 9k eginikoa



HAURRA 20k eginikoa



HAURRA 1ek eginikoa




HAURRA 22k eginikoa



HAURRA 18k eginikoa



HAURRA 7k eginikoa



HAURRA 24k eginikoa

HAURRA 23k eginikoa



Erabilitako album ilustratua (lan honen egileak ateratako argazkia)

2.- Termometro jarduera:

Termometro jarduera, dagoeneko sortua zegoen “sentimenduen txokoa”n egin da. Termometro baten ordeztu, sentimendu desberdinak adierazten dituzten marrazkiak daude horman itsatsita. Hori dela eta, txokoetan moldaketa handirik ezin izan denez egin, txoko hau bere horretan berrerabili eta erabilpen berri bat ematea proposatu da.

Jarduera hau taldeka egin da (lehenago aipatu bezala bosteko taldeetan). Aurreko egunean irakurritako *Koloretako Munstroa* (2012) albuma gogorarazi zaie; albumaren inguruko galderak eginez gaien berriz sartzeko. Horren ostean, jardueraren nondik norakoa azaldu zaie. Egoera desberdinak deskribatu zaizkie, eta deskribatu den egoera orotan euren argazkia hartu eta une horretan sentituko/biziko luketenaren arabera leku batean ala bestean itsatsi behar izan dute. Itsatsi ondoren, emozio/sentipen horren zergatia galdetu zaie. Amaitzeko, eurak momentuan sentitzen dutenaren arabera euren argazkia itsasteko eskatu zaie, eta jakina, emozio/sentipen horren zergatia.

Horretaz gain, ikastetxeko emozioen inguruko hainbat liburu bildu eta jarri dira txoko horretan libreki eurek irakurtzeko/ikusteko zein hala eskatuz gero irakasleak irakurtzeko. Irakasleak irakurri zein kontatu dituenak euskaraz kontatu eta itzuli behar izan ditu. Ipuin zein album ilustratu horietako batzuk honako hauek izan dira: *Cuando estoy contento* (2006), *Cuando estoy enfadado* (2006), *Cuando soy amable* (2007), *Cuando tengo miedo* (2007), *Cuando estoy triste* (2007), *Cuando me siento solo* (2007), *Cuando estoy celoso* (2008), *Tximeleta belarriak* (2008), *Cosas que me gustan de mí* (2011), *Nola sentitzen zara?* (2012), *Katua banintz* (2013), eta *Besarkada bat* (2015).



Erabilitako album zein ipuin batzuk (lan honen egileak ateratako argazkia)

3.- Eguneroko txokoa

Jarduera hau, ezin izan da aurrera eraman. Izan ere, programazioa asko atzeratuko luke jarraipen bat eman behar zaiolako, horrek gelaren erritmoa lerro bereko beste gelekiko atzeratuko luke, praktikaldia amaitzean jarraipenik ez zukeen izango... Beraz, arrazoi desberdinengatik ezin izan da aurrera eraman.

4.- Aho-bizi eta belarri-prest jarduerak

Jarduera hau taldeka egin da. Lehenik eta behin aurreko egunetan *Koloretako Munstroa* album ilustratuarekin burututako jarduerak ekarri zaizkie gogora. Ondoren, *Koloretako*

Munstroa album ilustratuan oinarritutako erruleta erakutsi zaie eta zer nolako jarduera egingo den azaldu.

Jarduera honetan, aipatu bezala *Koloretako Munstroa* albumean oinarritutako erruleta egin da. Egin beharrekoa, erruletako gezia biratu eta gezian erakutsitako emozioa noiz, non edota zein egoeratan sentitzen/bizitzen duten azaltzea da. Nola? txanda errespetatuz. Erruleta erabiltzea egokitu zaion haurrak aho-bizi rola hartu du eta besteek aldiz belarri-prest rola. Hau da, Aho-bizi rola duenak hitz egiten duen bitartean besteek, belarri-prest direnek, isilik eta arretaz entzun beharizan dute. Jarduera honetan irakasleak batez ere moderatzaile lana bete du.



Haur talde bat aho-bizi belarri-prest jarduera egiten (lan honen egileak ateratako argazkiak).



5.- Gutun jarduera

Jarduera hau aurrera eramateko, etxetik gutun bat eraman da eginda. Gutun hori, irakaslearen Muxu lagunak bidalitako gutun bat dela azaldu da, izugarri maite duen lagun batek idatzia. Bertan, “asko maite zaitut” jartzen du eta ostadar baten marrazkia agertzen da. Gutuna

erakutsi eta ea eurek ere beren lagun bati horrelako gutun bat egin nahi dioten galdetu zaie. Asko gustatu zaie ideia eta orduan zer nolako gutuna egin behar duten azaldu zaie.

Gutunak positiba izan behar du, zerbait polita, lagunari gustatzen zaion horretan pentsatu eta emozio positiboren bat transmititzen saiatu behar dira. Idatzizkoa zein marrazki bidezkoa izan daiteke, eta erditik tolestu ostean gutuna sobre bilakatu behar da. Bertan, norengana zuzenduta doan idatzi behar dute, eta gutun barruan aldiz nork egina den.

Horretaz gain, haur guztiek jaso dezaten gutuna, haur bakoitzak bere taldekide bati egin behar dio, zehazki bere ezkerretan eserita dagoen haurrari. Modu horretan guztiek gutun bat jasotzea bermatuko da, denak sentitzeko maitatuak eta lagunartean, baztertze edota bakartze sentimendurik ez sortzeko. Jarduera hau talde guztiek aldi berean egin dute, alegia, talde handian burutu da jarduera.



Haur guztien gutunak bilduta, haur baten gutuna eta gutun “eredua”

6.- Muxu papinaren jarduera:

Jarduera hau taldeka landu da. Horretarako, irakaslearen laguna Muxu aurkeztu da; aurreko egunean gutuna bidali zion laguntzua (pelutxezko hartz txiki bat). Gaur irakaslearekin eskolara etorri nahi duela azaldu zaie haurrei eta apur bat ezagutzeko aurreko astean bizi izan zuten egoera kontatu zaie. Egoera zehatz bat azaldu zaie eta egoera horren aurrean Muxuk eginiko hausnarketa, ateratako ondorioak eta hartu zituen erabakiak azaldu zaizkie (hasiera batean proposatu zen moduan).



Muxu panpina

7.- Kutxa magikoen jarduera

Jarduera hau hasiera batean proposatu bezala eraman da aurrera. Hala ere, egia da moldaketa txiki bat jasan duela, izan ere, puzzle txokoa erabili da jarduera hau burutzeko, ez da txoko/espazio berri bat sortu, material berria soilik sartu da (kutxa magikoak).

8.- Musikaz blai jarduera

Jarduera hau hasiera batean planteatu bezala burutu da. Talde handian egin da, baina lehenengo fasea soilik burutu ahal izan da: gorputz espresio librea, alegia. Hasiera batean irakaslea eredu izan da musika desberdinen doinuek transmititzen dituzten emozioak gorputza erabiliz transmititzen. Ondoren, haurrak soilik aritu dira libreki euren imaginazioaren fruitu izan diren mugimenduen bidez emozioak askatzen. Beste faseak, dantza gidatuak eta antzezlanak ezin izan dira gauzatu denbora asko eskatzen duten jarduerak direlako eta denbora hau ez delako egon eskuragarri.

9.- Maringo jarduera:

Jarduera hau hasiera batean proposatu bezala eraman da aurrera. Materiala eta denboralizazioa egoki betez.



Haurrek sortutako Maringo harrak

Segidan, hiru hilabetetan zehar jasotako egunerokoa eta ebaluazio txantiloiak daude:

EGUNEROKOA:

Praktikaldian nentzen bitartean burututako egunerokoa da hau. Bertan, 2019ko azaroaren 4tik 2020ko urtarrilaren 24ra bitartean Carmelitas Sagrado Corazon ikastetxeko 5 urteko gela batean jasotako oharrak daude bilduak. Hala ere, aipatu beharra dut, eguneroko honek biltzen duena emozioen inguruan zentratutakoa soilik dela. Legediak eskatzen duen haurren anonimotasuna zaintzeko asmoz, eguneroko honetan zehar aurretik (behaketa tauletan) erabilitako izenak (HAURRA 1, HAURRA 2, HAURRA 3, IRAKASLEA 1, IRAKASLEA 2,...) erabili ditut.

2019/11/04 ASTELEHENA

Praktikaldiaren lehen egun honetan, ikastetxea eta bertako hezkuntza proiektua eta metodologia apurka-apurka ezagutzeari eta honen aplikazioa nolakoa den aztertzeari ekin diot. Baita, nola ez, haurrak eta irakasleak ezagutzeari ere. Nire ikasleek, tutoreaz gain bi irakasle dituzte; batetik, gaztelera ikasgaia ematen duen irakaslea eta bestetik ingelesa eta gorputz hezkuntza (ingelesean) ematen dituen irakaslea. Gainera, irakasle hauetaz gain, beste bi irakasle gehiago ere egoten dira gurekin gelan, bat astelehenetan soilik eta bestea asteartetik ostiralera bitartean egongo dela azaldu didate. Irakasle hauek, laguntza gehiago behar duen haurraren beharrak asetzeko etortzen dira gelara, izan ere, nahiko umore aldaketa bortitzak izan ohi dituen haur bat dugu gelan. Ikastetxe bertako laguntzaz gain, astean bitan joaten da jolas-ordu garaian ikastetxetik kanpoko laguntza jasotzera.

Azaldu didatenez, haur honen egoera nahiz eta aurreko urteetatik hobetzen doan, geroz eta arreta gutxiago behar duen eta gaitasun handiagoa duen emozioak erregulatzerako orduan, oraindik ere zailtasun bereziak ditu bere emozioak/umorea kontrolatzeko zein erregulatzekeo garaian. Hala ere, horrek ez du eragiten bere jakintza edota gaitasun-mailan; haur oso azkarra eta trebea baita irakurketan, idazketan, matematikan, etab. Bitxikeria moduan, ohartu naiz uneoro (edo ahal duen denbora guztian behintzat) erraldoiaren papera betetzen duela. Hau da, erraldoi bat izango balitz bezala portatzen da, momentuan jantzita duena (amantala, jertsea, berokia...) erraldoiaren jantzi bihurtzen du; mahuketatik besoak ateratzen ditu besorik edukiko ez balu bezala eta “dantzatzen” zein erraldoien moduan “biltzen”, gorputza alde batera eta bestera mugitzen, hasten da manga hutsak aurrerantz eta atzerantz mugituz. Izugarritzko obsesioa du erraldoiekiko, behin eta berriz aritu da egun osoan zehar gauza bera egiten. Irakasleek, patio orduan soilik uzten diote erraldoi “bihurtzen”, klase

orduetan nahiz eta behin eta berriz amantaleko mahuketatik besoak ateratzen hasten den, saiatzen den aldiro deitzen diote arreta, eta haurrak kaso egin ohi du.

Gaur zehazki patio aurretik eduki du kasketa klasean lantzen ari diren “ahatetxo itsusia”-ren fitxa margotzeko denbora eman ez diolako, nahiz eta gela osotik 2 hurrek soilik amaitu duten eta irakasleak azaldu duen patio ondoren jarraituko dugula. Fitxa amaitu ez duela ikustean, bere buruarekin eta besteekin haserretu da. Hala nola, hasieran bere burua eskuarekin kolpatuz eta ondoren aulkian eserita negarrez, burumakur, gainontzekoak patiora irteteko berokia janzten ari ziren bitartean. Guztiek ilara egin dutenean patiora jaisteko, bera bakarrik lasaitu da eta ilaran jarri da, ezer gertatu ez balitz bezala. Patioan oso lasai eta gustura ibili ondoren klasera poz-pozik itzuli da eta fitxarekin jarraitu du. Bazkalordutik bueltan ordea, bere ikaskide baten ondoan eseri nahi zuelako eta honen ondoan beste bi zeudelako haserretu da, kasketa arrapatuz; baina, 5 minutu ondoren lasaitu eta pozik jarri da beste baten ondoan. Hemendik haurra haur honen inguruan hitz egiteko “HAURRA 1” izena erabiliko dut.

Beste haur bati dagokionez, egun osoan zehar oso umore txarrez egon da, goizetik arratsaldera. Klasean egon den denbora guztian atentzio eskatzen saiatu da modu desberdinetan (kasurik ez egiten, eskatu zaionaren kontrakoa eginez, denak eserita bazeuden bera zutik jartzen, mimoak eskatzen, aspertuta dagoela esaten, amarekin egon nahi duela esaten, nekatuta dagoela esaten, negar egiten eta besteak beste kasketa txikiak hartzen) eta batez ere nire atentzioa; berria naizenez eta ezagutzen ez dudanez, nire atentzioa lortzen saiatu da uneoro, mimoak eskatzen, uskeria batengatik izugarritzko bola egiten, negarrez hurbiltzen, etab. Irakasleek azaldu didate ordu asko igarotzen dituela ikastetxean, ia etxean baino gehiago, eta batzuetan oso pozik/indartsu egoten dela baina beste batzuetan berriz gaurko moduan: umore txarrez, haserre, triste... Hemendik aurrera haur honen inguruan hitz egiteko “HAURRA 2” izena erabiliko dut.

Gaurkoan, beste hurrekiko emozioen inguruan ez dut ezer deigarririk, aipagarririk sumatu. Aipatutako egoeren aurrean berriz, IRAKASLEA 1 eta IRAKASLEA 2k modu ulerkorrago eta goxoagoan, enpatia gehiagorekin tratatu dituzte haurrak IRAKASLEA 3k baino; IRAKASLEA 3 zorrotzagoa dela iruditu zait, izan ere, lehenengo momentutik esan dit adibidez HAURRA 2ri kasurik ez egiteko, egongo ez balitz moduan jarduteko berarekin atentzioa deitzen saiatzen den momentuetan.

2019/11/05 ASTEARTEA

Gaurkoan HAURRA 1 negarrez iritsi da eskolara, amarekin egon nahi zuela protesta eginez. IRAKASLEA 1ekin geneukan klase eta HAURRA 1 nola zegoen ikusirik, lasaitzen saiatu da berarekin hitz eginez, zein gauza politak eta dibertigarriak burutuko ditugun eskolan azalduz. Jarraian, makinistarekin batera ilaran lehena jarri eta eskua emanda igo du klasera. Behin klasean sartuta, bere kasa lasaitu da eta egun osoan zehar orokorrean oso pozik egon da, asteartetik ostiralera bitartean berarekin egongo den IRAKASLEA 4k, “Ahatetxo itsusia”-ren bigarren fitxa betetzen ari zirela haurrak, beste haur bati lagundu dion arte. Berari soilik eskaini beharrean laguntza bere ikaskide bati eskaini dionean laguntza IRAKASLEA 4k, haserretu, bere burua kolpatu, eta fitxan margotu behar zuen zatia modu desegokian margotzen hasi da, zirriborro bat eginez gainean. Hau ikusita, IRAKASLEA 4 bera lasaitzen saiatu ordez, gelditzeko agindu dionaren sentsazioa eman dit. Hala ere, aipatu beharra dut haurrak kasu egin diola eta geratu egin dela; beraz, agian HAURRA 1 modu honetan lasaitzen da. Baina, nik uste dut badaudela beste modu batzuk haurra lasaitasun/konfort egoerara itzularazteko, emozioak erregulatzen irakatsiz adibidez, hitz eginez eta bere amorrua nola bideratu erakutsiz; ez bere barneko emozioak agindu batekin moztuz, baina hau nire iritzia soilik da. Gaurkoan ere, erraldoi bat izango balitz bezala portatu da ahal izan duen guztietan; une hauetan oso pozik, zoriontsu, lasai eta kementsu dagoela ikusten da.

Bestalde, HAURRA 2, gaur ere oso triste eta nekatuta etorri da. Uneoro saiatu da gaur ere irakasleonek atentzioa deitzen, klasean zein patio orduan. Horretaz gain, HAURRA 3, gelako beste haurren gaitasun-mailarekin eta erritmoarekin alderatuz, nahiko zailtasun handiak dituen haurra, egun osoan zehar bere buruarekiko segurtasunik gabe, lotsaturik, “beldurturik” bezala zegoela ikusi dut klaseko jarduerak egiteko unean (matematikako fitxa, ahatetxo itsusiaren fitxa...). Zenbakiekin, idazmenarekin, irakurmenarekin, etab. zailtasun handiak ditu eta segurtasun ezak oraindik eta zailtasun handiagoa eragiten dio. Gainera, nahiz eta beste hurrekin komunikatzeko zailtasunik ez duen, irakasleekin ez da horrenbeste komunikatzen, laguntza behar duenean ez da bera hurbiltzen laguntza eske beste guztiak (beste haur bat kenduta) bezala, irakasleak joaten dira berarengana, irakasleekiko ere segurtasun falta du. Irakasleak hurbiltzen ez badira, fitxak egiterako unean izugarritzko zailtasuna du, atentzioa jartzea kostatzen zaio eta ez du aurrera jarraitzen jarduerarekin; edozer egiteko uneoro norbait alboan behar duenaren sentsazioa eman dit.

Gaurkoan beste hurrekiko emozioen inguruan ez dut ezer deigarririk/aipagarririk sumatu. Aipatutako egoeren aurrean aldiz, IRAKASLEA 1, IRAKASLEA 2 eta IRAKASLEA 5ek modu ulerkorrago eta goxoagoan, enpatia gehiagorekin tratatu dituzte HAURRA 1 eta HAURRA 2, IRAKASLEA 3k baino. HAURRA 3rekin aldiz, IRAKASLEA 1, IRAKASLEA 3, IRAKASLEA 5 eta ni egin dugun jarduera guztietan egon gara bere erreakzioak aztertzen eta laguntza behar zuen uneetan laguntza eskaintzen. Uneoro animoak ematen, egin duena goraiatzeko eta konfiantza-segurtasun egoera/harremana sortzen saiatu gara. IRAKASLEA 2k ingelesa eta gorputz hezkuntza ematen du eta nola fitxarrik egiten ez duten HAURRA 3 ez da horren deseroso sentitu nahiz eta bere klaseetan segurtasun ezarekin batera “bakardade” sentazioa duela ere transmititu didan.

2019/11/06 ASTEAZKENA

Gaurkoan, HAURRA 4k HAURRA 1ekin izan duen komentarioak arritu nau. Izan ere, HAURRA 1ek klasean egin dugun ahatetxo itsusiaren eskulana etxera eramanez nahi zuen, eta IRAKASLEA 5ek ezin duela eramanez azaldu ostean, kasketa arrapatu eta negarrez hasi da. Momentu horretan, HAURRA 4 hurbildu eta negarrik ez duela egin behar esan dio, ez duela inongo minik hartu negar egiteko. Momentu honetan ohartu naiz, komentario hori etxean edo ikastetxean norbaiti entzun diona dela, oso zabaldua baitago komentario hori. Negar egitea mina hartzearekin lotzen da askotan eta ez da beste emozio bat bezala ikusten askotan, ez da geure burua lasaitzeko eta amorrua husteko baliabide natural bezala ikusten, nire ustez. Negar egitea beraz, gaizki ikusia dago. Irakasleek honen aurrean ez dute ezer esan, eskulana ezin dela etxera eramanez horman itsatsi behar dugulako azaldu eta aurrerago eramango duela etxera esan dio IRAKASLEA 5ek, eta negar egiteari uzteko agindu (aipatu beharra dut ez dutela ahotsa aldatzen ezta aginduak modu txarrean eman ere). IRAKASLEA 1ek ere aurrerago izango duela aukera etxera eramateko azaldu dio, eta egindako lana goraiatu du, lan bikaina egin duela eta hurrengoan eramango duela etxera familiari erakusteko azalduz. Berehala, bere kasa lasaitu eta poz-pozik jarri da. Gaurkoan ere, erraldoiaren papera hartu du hainbat alditan; irakasleek argi utzi didate obsesio bat duela erraldoiekin, aurreko urtean trenekin izan zuen moduan.

HAURRA 2 beste bi egunetan bezala atentzioa eskatzen saiatu da uneoro; triste eta nekatuta etorri da gaur ere. Ez du besteak molestatzeko joerarik izan baina aurreko egunetan aipatu bezala irakasleontzat atentzioa bilatzen du eserita egon behar den unean zutik jarriz, film labur edo abestiren bat entzuten ari garenean aspertuta dagoela aipatuz (nahiz eta berez ez

dagoen aspertuta, atentzioa deitzeko esaten du)... Hala ere, gaur zehazki mindfulness egiten ari ginen bitartean (patiotik buletan beti egiten dute lasaitzeko, izan ere, oso aztoratuta iristen dira patiotik), berak ez du parte hartu nahi izan eta jarduera honen azken atala masajea ematea denez bikoteka, ez dio eman nahi izan masajea bere bikoteari eta ezta bikotekideak emandakoa jaso ere, bere bikotekidea baztertzen zuen. Hala ere, IRAKASLEA 1ek derrigortu egin du egitera, bestela txikien gelara (2 urtekoen gelara) jeitsiko duela esanez. Agindua ematean, HAURRA 2k kasu egin eta jardueran parte hartu du.

HAURRA 3 atzoko moduan ikusi dut, eta beste haurrekiko aldiz, ez dut ezer berezi edo aipagarririk sumatu emozioen inguruan.

2019/11/07 OSTEGUNA

Gaurkoan, greba eguna izan da ikastetxean eta horren ondorioz, irakasle batzuk falta zirenez, eguneroko errutina aldatu behar izan dugu eta gela bakoitza bere tutorearekin egon da soilik, ez dugu gaztelera eta ingelesa eduki.

HAURRA 1 gaurkoan oso oso pozik eta alai iritsi da ikastetxera eta oso pozik aritu da orokorrean lanean, arreta berezia eskaini behar izan diogun arren gaurkoan ez du kasketarik arrapatu. Gaurkoan ere, erraldoiaren papera betetzen saiatu da uneoro.

HAURRA 2 triste eta bereziki oso nekatuta etorri da gaur ere eskolara, normalean baino nekatuago eta atentzio gehiago deitzen egon da. Izugarrizko kasketa arrapatu du matematikako fitxa amaitzeko denbora eman ez diolako eta IRAKASLEA 1ek bihar amaituko dulea esan diolako, izan ere, bere ikaskide batzuk amaitu dutela ikusi du eta berak ere amaitu egin nahi zuen. Negarrez eta umore txarrez egon da orduerdian, eta jantokira ere horrelaxe joan da. Jantokiko begiraleak esan digu negarrez aritu dela orduerdian berarekin egon direnean, ea zer gertatzen zaion galdetuz eta lasaitzen saiatu diren unean. Bakarrik utzi duten momentuan aldiz, bost minututan isildu eta lasaitu dela azaldu digu, atentzioa deitzeko eta berarekin egoteko egin duela azalduz. HAURRA 3 berriz, betiko moduan ikusi dut, ziurtasun faltarekin.

Greba eguna izan denez, arratsaldean film bat ikusten aritu gara, “Coco”. Film honetan, santu guztien egunean Mexikon egiten duten errituala agertzen da marrazki-bizidunen bitartez modu dibertigarri eta hunkigarri batean. Izatez, oso film polita da baina

gelako bi haur HAURRA 5 eta HAURRA 6 beldurtu egin dira. HAURRA 5 IRAKASLEA 1en gana hurbildu da filmak beldurra ematen diola esanez, eta honek ez dela ezer gertatzen, filmean gertatzen dena gezurretakoa dela... azaldu dio. HAURRA 6 nigana etorri da negarrez, filmak beldurra ematen diola esanez; besoetan hartu, nire mantalean eseri eta lasaitzen saiatu naiz. Nire mantalean egonda, segurtasuna lortu, lasaitu eta filma ikusten jarraitu du. Beste haurrekiko aldiz, ez dut ezer berezi edo aipagarririk sumatu emozioen inguruan.

2019/11/08 OSTIRALA

Gaur, HAURRA 2 oso pozik etorri da gelara, deskantsatuta eta oso alai. Oso umore onez, gogotsu, lanerako gogoarekin eta atentzioa deitu gabe egon da egun osoan zehar; beste pertsona bat zirudien. Egin beharreko jarduera guztiak oso oso gustora eta ongi burutu ditu, inolako laguntzarik eskatu gabe. Oso azkarra eta inteligentea da.

Haurra 1 nahiko ondo portatu da, nahiz eta atentzioa eskatzen egon den eta erraldoiaren papera betetzen. “Elmer” elefantearen fitxa puntzoiarekin moztu behar izan den unean izan du kasketa handiena, izan ere, puntzoiarekin zuloxoak egitean une batean nahastu egin da eta ez du guztiz ondo zulatu. Hori dela eta, bere buruarekin haserretu da eta puntzoiarekin zuloak fitxa guztian zehar egiten hasi da. Hau gertatu denean, IRAKASLEA 5ek fitxa kendu dio eta lasaitzeko eskatu. Beste fitxa bat eman eta hasieratik egin behar izan du jarduera; bigarren aldi honetan ongi eta gustura aritu da. Bestalde, izan dituen atentzio eskaera txikiak, beraren gainean soilik egotea nahi izan duelako izan dira, momentuko haserrealdi txikiak, segituan pasatu zaizkionak.

HAURRA 7 nahiko lotsatia eta isila da. Normalean oharkabea pasatzen den haurra da, ez da besteak bezain berritsua. Gaur ordea, etxetik ipuin bat ekarri du klasean kontatzeko eta nirekin batera kontatu du ahulki gainean jarrita. Oso pozik eta gustura ikusi dut, hasieran urduri eta lotsaturik baina kontatzen aritu garen bitartean geroz eta lasaiago eta segrutasun handiagoarekin nabaritu dut, nire begirada bilatuz. Momentu horretan, garrantzitsu dela sentitu du haurrak, eta ipuina kontatzen amaitzean guztiek esan diote oso polita izan dela eta oso ondo kontatu duela, segurtasun/erosotasun egoera eskainiz.

HAURRA 3 betiko moduan ikusi dut eta beste haurrekiko aldiz, ez dut ezer berezi edo aipagarririk sumatu emozioen inguruan.

2019/11/11 ASTELEHENA

Gaurkoan, asteburu hotz eta euritsuaren ostean orokorrean denak etorri dira oso aztoratuta, urduri, emozionatuta eta berritsu. Izan ere, elurra ikusi dugun lehen asteburu eta egunak izan dira eta horrek asko aztoratu dituela ikusi dut gaur.

Bestalde, gaurkoan aipagarriena HAURRA 8 eta HAURRA 9ren arteko burruka izan da. HAURRA 8k txinera, ingelesa, gaztelera eta euskara hizkuntzak ezagutzen ditu; nahiz eta euskaraz zein gazteleraz komunikatzeko gai ez den. Hori dela eta, irakasleokin komunikatu behar duenean, “e,e” zarata eginez hurbiltzen da; zerbait esateko edo adierazteko orduan “e,e” zarata eginez adierazten du, guk ingelesez egiten diogun arte. Hala ere, apurka-apurka badoa gazteleraz zein euskaraz hitz batzuk ikasten. HAURRA 9k aldiz, alemana, ingelesa, euskara eta gaztelera hizkuntzak ezagutzen ditu eta gai da lau hizkuntzetan komunikatzeko. Gainera, etxean alemanaz eta gazteleraz gain ingelesa ere erabiltzen du. Hori dela eta, erraztasun handia du ingelesarekin. Hau guztia kontuan hartuta, ez da arritzekoa bi haur hauek normalean beti batera egotea; elkarren artean ingelesez aritzen baitira.

Horren harira, aipatu nahi dut gaur patio orduan gertatu dena. Bi haurrak (HAURRA 8 eta HAURRA 9) burrukan hasi dira, hasieran jolasean, superheroiak izango balira bezala baina azkenean HAURRA 8k min hartu du eta jolasa benetako burrukaldia bihurtu da. Irakasleok burrukaldia gelditzean, HAURRA 9k HAURRA 8ri negar ez egiteko agindu dio, bera hasi dela jotzen eta ez duela minik hartu, beraz negar egiteari uzteko, negar berak bakarrik egin dezakeela berak hartu duelako min handiena. Honen aurrean irakasleok azaldu diogu ez dela horrela, biek hartu dutela min eta horren arrazoia arauak ez dituztela errespetatu izan dela, izan ere, arau nagusienetako bat elkarri minik ez egitea da. Gertaera hau jazo denean ohartu nahiz HAURRA 9k adibidez ez dakiela besteen emozioak ongi identifikatzen, ezta bestearen lekuan jartzen ere.

Beste alde batetik, HAURRA 2 oso pozik eta ondo egon dela aipatu nahiko nuke, HAURRA 1 eta HAURRA 3 berriz, betiko moduan ibili dira. Gainerako haurrei dagokienez aldiz, ez da emozioen inguruan ezer berezirik gertatu.

2019/11/12 ASTEARTEA

Gaurkoan HAURRA 1 bereziki mainontzi etorri da goizean, mimo eske, kontaktua eskatu du unero eta etxera joan nahi zuela esan dit, amarekin batera egoteko. Horretaz gain,

betiko moduan bat-bateko umore aldaketekin egon da goizean zehar baina arratsaldean egia esan oso oso lasai eta gustura egon da klasean.

Besteak, goizean oso oso berritsu etorri dira, aztoratuta eta garrasi asko egiten, atzo baino gehiago. Irakasleak behin eta berriz egon behar izan gara isiltzeko eskatzen eta patio aurreko klasean adibidez ezin izan dugu ia klaserik eman, aztoratuegi zeudelako, euren emozioak kontrolatu ezinik nahiz eta behin eta berriz lasaitzeko eskatu zaien. Patio ondoren, mindfunless egin dugu eta nahiko lasaitu dira; beraz, une hori aprobetxatuz IRAKASLEA 1ek IRAKASLEA 3ren klasean zer gertatu den galdetu die haurrei, ea zergatik portatu diren horren gaizki... hurrek barkamena eskatzeko eta hausnartzeko denbora izan dute egin dutenaren inguruan eta egia esan oso hausnarketa kolektibo aberasgarria izan da guztientzat. Modu honetan, entzunak izan garenean eta eurei bizitako egoera baten inguruan hausnartzeko eskatzean, emozio eta sentimendu desberdinak agertu dira euren hitzetan. Hala nola, “kulpa” sentitu dute IRAKASLEA 3 haserretu egin delako eurekin, IRAKASLEA 3 triste jarri dela ikusi dute jarrera desegokia eduki dutelako, honek nola jokatu zein portatu behar duten klasean hausnartzera bideratu ditu, etab. Horretaz gain, ez da emozioen inguruan ezer aipagarrik gertatu.

2019/11/13 ASTEAZKENA

Gaurkoan izan dugun egoerarik adierazgarriena, jolastokitik bueltan izan duguna izan da. IRAKASLEA 1ekin mindfulness egin dugu apur bat lasaitu daitezten, eta une honetan HAURRA 1 bat batean negarrez hasi da, ez duela mindfulness egin nahi esanez, etxera joan nahi duela aipatuz. Hori dela eta, IRAKASLEA 1 berarekin (bikoteka jarrita) aritu da mindfulnesseko ariketak egiten saiatzen, nahiz eta honek ez dion utzi negar egiteari. Mindfulnessekin amaitzean ere, negarrez eta triste jarraitu du eta orduan irakasleak komunera ura edatera ea joan nahi duen galdetu dio, lasaitzeko asmoz. Honek, baietz erantzun dio eta edalontzia hartuta joan da komunera, baina han IRAKASLEA 5rekin topatu da eta zer egiten zuen bertan galdetu dionean, azaldu dio urduri dagoela eta ezin duela lasaitu. Orduan, IRAKASLEA 5ek esan dio klasera itzuli eta marrazki bat egiteko lasaitu dadin; HAURRA 1ek kasu egin dio eta errotulagailu gorria hartuta zirriborro bat egin du orri zuri batean, amorru dena askatuz eta lasaitzea lortuz. Jarduera hau egin ondoren, oso lasai geratu da. Hori ikustean, ohartu naiz kontziente dela HAURRA 1 zein sentimendu nahiz emozio bizitzen dituen. Arazoa hortaz, ez da kontzientzia emozionalaren lanketa behar duela; batez ere, erregulazio

emozionalaren lanketa behar baitu. Aipatutakoaz gain, ez da ezer berezirik gertatu emozioen inguruan.

2019/11/14 OSTEGUNA

Gaurkoan, gehien arritu nauena HAURRA 3k gaztelerako ikasgaiari izan duen jarrera izan da, izan ere, irakaslea aste hauetan zehar landu duten “Elmer” ipuinaren inguruan galderak egiten hasi denean, oso urduri jarri dela iruditu zait eta zer esanik ez galdera zuzenean berari egin dionean. Oso galdera sinplea eta erraza zen, irakasleak nahita galdetutakoa, oro har haurrak jarri ohi duen segurtasun hesia (koraza) apurtzeko asmoz. Hala ere, nahiz eta oso galdera erraza izan (Elmer-en ipuineko elefanteak duen kolore bat esatea izan da zehazki irakasleak eskatu diona, orainarteko fitxa guztietan agertu diren koloreetako bat esatea, alegia.), HAURRA 3k ez du erantzun nahi izan, buruarekin ezetz esan du lehenengo, ondoren ingurura begiratu du eta are urduriago jarri da, larritasun puntuarekin. IRAKASLEA 3k lasai egoteko esan dio, ez dela ezer gertatzen asmatzen ez badu,... eta horrelakoak esanez saiatu da HAURRA 3 lasaitzen eta erantzutera animatzen; baina, alferrik izan da. Momentu horretan oso txiki ikusi du bere burua HAURRA 3k, eta negarrez hasi da, inguraturik sentitu baita, irteerarik ikusten ez zuelarik. IRAKASLEA 3k haurra atsekabeturik, triste, urduri, segurtasun ezarekin eta beldurtuta ikustean, lasaitzeko eskatu dio eta ea nork lagunduko dion HAURRA 3ri galdera erantzuten galdetu du ozenki. Jarraian, HAURRA 5ek erantzun du HAURRA 3ri eginiko galdera, eta horren ostean beste galdera batzuk egiten jarraitu du irakasleak. Horretaz gain, ez da ezer deigarririk gertatu haurren artean emozioen alderdian zentratuz.

2019/11/15 OSTIRALA

Gaurkoan gertatu den egoerarik aipagarriena, haurrak korroan eserita zeudela bi mutikoren arteko hizketaldia izan da. Haurrak oso aztoratuta igo dira jolas-ordutik eta irakasleak behin eta berriz isiltzeko eskatzen aritu behar izan gara. Momentu batean, denak isilik geunden unean, HAURRA 10 hitz egiten hasi da eta orduan HAURRA 11ak isiltzeko oihuaktu dio. Une horretan, HAURRA 10 gaizki sentitu da HAURRA 11ak garrasi egin diolako, eta negarrez hasi da. Orduan, HAURRA 4k esan dio ez duela negarrik egin behar, mutilek ez dutela negarrik egiten eta gainera ez diola jo negar egiteko, ez duela inongo minik. Momentu horretan, esan diogu mutilek zein neskek egiten dutela negar, eta ez dela soilik fisikoki min hartzean negar egiten; beste edozein arazo edo egoeren aurrean ere negar egin daitekeela azalduz. HAURRA 11ri aldiz, ez dela oihukatu behar azaldu diogu, arrazoi desberdinak emanez.

Hala nola, beste pertsoneri min egin ahal diegulako HAURRA 10ekin pasa den bezala, etab. Azkenik, elkarri barkamena eskatzeko aukera eman diegu.

Ondorioztatu dudana izan da, oraindik ere nahiz eta geroz eta gizarte “modernoago” batean bizi garen, iraganeko kontu zaharkitu berekin jarraitzen dugula; aurreiritzi eta estereotipo berekin. Haurrei, mutilek ez dutela negarrik egiten sinistarazten diegu, negar egitea ahulena dena ikusaraziz (modu horretan, neskak ahultzat hartzen dituzte), euren emozioak askotan nola kanporatu zein kontrolatu ez dakitela uzten ditugu (negar egitea sentimendu/emozioak kanporatzeko baliabidea baita, lasaitzeko erabiltzen duguna, besteak beste). Hau aldatu beharra dago, beraz, funtsezkoa da Haur Hezkuntzatik lantzen hastea.

2019/11/18 ASTELEHENA

Gaurkoan arreta gehien deitu didana HAURRA 3ren transformazioa izan da. Gaur, makinista izan da eta ondorioz errutina egitea egokitu zaio (zein egun den jarri, zerrenda pasatu, zein etorri den eta zein ez, ze eguraldi egiten duen, bere izena arbelean idatzi eta zenbat hizki dituen irudikatu, eta azkenik, txokoak aldatu). Orokorrean, beste egunetan zehar aipatu dudan moduan, oso neska lotsatia, isila eta urduria da; segurtasun falta ikaragarria du edozein jarduera egiterako orduan, bakarka zein taldeka. Hala ere, gaur oso eroso eta pozik egon dela errutinak egiten sentitu dut; nahiz eta, ez dakizkien izenak eta irakasleak belarrira esan behar izan dizkion, eta oro har besteek behar duten baino laguntza handiagoa behar izan duen errutinak aurrera eramateko. Hala ere, bere izena besteetan baino askoz hobeto idatzi du, eta bere izenaren hizki kopurua ere oso ondo idatzi du (nahiz eta berez ez dakizkien zenbakiak). Horrekin ondorioztatu dugu, agian dituen zailtasun asko, duen segurtasun falta dela eta sortzen zaizkiola; giro erosoan sentituta normalean baino hobeto egin baitu guztia. Gainera, gainerako haurrekin zein irakasleekin besteetan baino konplizitate handiagoz jokatu du, segurtasun handiagoz. Horretaz gain, gaur ez dut ezer berezirik pertzibitu beste haurrengan.

2019/11/20 ASTEAZKENA

Gaurkoan aipagarriena iruditu zaidana jolas-orduan bizi izan dudana egoera izan da. Eguraldi ona egin duenez Haur Hezkuntzako kanpoko patiora irten gara eta bertan jarri berri duten parkea estreinatu dugu. Parke berri honetan, burdinezko zubi moduko bat dago non gainera eskalatu eta behin goian egonda burdinezko makilen artean gorputza pasatu ondoren makil horietako batetik zintzilikatu daitekeen. Oso dibertigarria iruditu zaie eta haur pila bat

hurbildu dira bertara, ilara eginez bata bestearen atzetik igotzeko (3, 4 eta 5 urteko haurrak, izan ere, adin horretako beste hurrekin elkarbanatzen dugu patioa).

Momentu batean, nire gelako HAURRA 10 zubi goraino igo da, baina zintzilikaturik jarri beharreko unean zubitik jaitsi ahal izateko, kikildu egin da. Ni une horretan zubi alboan nengoen laguntza eskatzen zidaten hurrei laguntzen, eta nahiz eta berak ez didan laguntzarik eskatu, ohartu nahiz oso urduri eta beldurtuta zegoela, erortzeko beldurrez. Izan ere, izugarrizko kola egiten ari zen, eta nahiz eta HAURRA 11ak mugitzeko edo bestela beldurra ematen badio laguntza eskatzeko esan dion, ez dio kasurik egin eta ez diola beldurrik ematen esan du oihuka; ez du onartu nahi izan beldur zela, nahiz eta urrutitik igartzen zitzaion. Hori dela eta, lehendabizi ea zer egiten zuen ikusi nahi izan dut, ea bere burugogortasuna eta beldur zela onartu nahi eza noraino iristen zen. Bat batean, HAURRA 9 eta HAURRA 12 agertu dira eta egoera ikusita esan diote ez dela ezer gertatzen beldur badu, eskatzeko laguntza andereino Ainitzeri (niri seinalatuz). Orduan, niri begiratu eta laguntza eskatzea erabaki du, beraz, besoetan hartu eta jaitsi dut. Baina une horretan, HAURRA 4 eta honen liderra/idoloa HAURRA 13 agertu dira, eta barre egin diote beldur zelako, nire laguntza behar izan duelako. Hori dela eta, HAURRA 10 lotsaturi, negarrez hasi da.

Egoera honekin argi ikusi dudana da, batzuek zailtasuna dutela beldur direnean beldur direla onartzeko eta laguntza eskatzeko; emozio hau ez baitago ondo ikusia oro har gizartean, ahultzat hartzen edota etiketatzen ditugulako batzuetan emozio hau bizitzen duten pertsonak. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zait emozio hau bizitzen, kudeatzen eta naturaltasunez kanporatzen irakastea hurrei, emozio guztiak errespetuz tratatuz. Bestalde, ez da ezer gehiago gertatu emozioen inguruan.

2019/11/21 OSTEGUNA

Gaurko egoerarik aipagarriena HAURRA 8k goiz osoan zehar izan duen ezin-egona izan da. Bai ikasgelan, bai patioan oso aztoraturik egon da, geldirik egon ezinda, mugimendu konstantea eskatzen. Gainera, oso goiz mugitua eta aztoratua edukitzeaz gain, ez da ongi portatu lagunekin, bultzatu, jo eta molestatu egin ditu, besteak beste. Hori dela eta, behin eta berriz egon gara bere atzetik, atentzioa deitzen eta berarengana hurbildu eta zer gertatzen zaion galdetzen. Hala ere, alferrik izan da guztia, ez baitu ezer esan. Kanpotik ikusita, bazirudien ezin zituela bere barnean sentitzen ari zen emozioak erregulatu.

Horregatik, mindfulness jarduera burutu dugu, HAURRA 8 eta honekin batera beste guztiak ere lasaitzeko asmoz (besteak ere HAURRA 8 aztoratuta ikustean aztoratu egin baitira). Baina, nahiz eta orokorrean haur guztiek lortu duten jarduera ondo egitea eta funtzionatu dien, HAURRA 8ri ez zaio gauza bera gertatu, apur bat lasaitzea lortu badu ere, ez da guztiz lasaitu; barneko tentsio/emozioarekin jarraitu baitu. Bestalde, ez da ezer gehiago gertatu emozioen inguruan.

2019/11/22 OSTIRALA

Gaurkoan izan dudan egoerarik adierazgarriena HAURRA 14k goizean izan duen jarrera izan da. Haur hau beti geratzen da jantokian bazkaltzen baina gaurkoan etxera joan behar zuen bazkaltzera, zehazki aiton-amonen etxera, amonaren urteak ospatzera. Hori dela eta, oso oso pozik eta aldi berean urduri/irrikaz egon da goizean zehar; batez ere patio ondoren, geldirik egon ezinda. Horregatik, behin baino gehiagotan atentzioa deitu behar izan diogu ez delako eserita egon egon beharreko tokian, hara eta hona mugitzen ibili delako, garrasika/ohiuka...

Nahiz eta mesedez lasaitzeko eskatu, ezin izan ditu bere emozioak ongi kudeatu, ez du lortu urduritasuna uxatzea eta lasaitzea. Gainera, momentu batean, lasaitzeko eskatu diodanean, eskuetatik heldu eta “ai ezin dut! lo intento pero es que estoy muy contenta!” esan dit. Hau da, emozioak erregulatzeko/kudeatzerako orduan zailtasuna zuela azaldu dit.

2019/11/25 ASTELEHENA

Gaurkoan HAURRA 6ren jarrerak deitu dit arreta. Astelehenero lez eskolaz kanpoko kirol-jolasen jarduera izan du arratsaldean eta badirudi (irakasleak azaldu didanez) ez zaiola batere gustatzen eskolaz kanpoko jardueretara joatea, nahiz eta gero bertan orokorrean ongi pasatu (begiraleek esaten dutenez). Hori dela eta, goiz osoa ongi igaro ondoren eskolan, bazkal ostean, arratsaldean, behin eta berriz tripako mina zuela esaten jardun da irakasleoi baina irakasleak esan dit ia-ia astelehenero berdin jarduten duela gurasoei deitu eta etxera joan ahal izateko. Inoiz gezurrik esaten ez duen haur lasaia, lotsatia, apur bat serioa, argia eta zintzoa da (arauak errespetatzen dituen) berez, baina astelehen arratsalde gehienetan oso triste egoten da eta gaixotasun desberdinak asmatzen ditu (eztarriko, buruko zein tripako mina, etab.). Hala ere, eskola-kirolera gustura joaten den galdetuz gero, baietz esaten du beti, ez da ausartzen ez zaiola gustatzen esatera, ez dela ondo sentitzen bertan esatera, ezta triste dagoen galdetzean triste dagoela esatera ere... Orokorrean emozionalki komunikatzea kostatzen zaio.

Bestalde, gaurkoan HAURRA 3ren aurrerapenarekin oso oso arrituta geratu gara irakasleak. Izan ere, gaur egin dugun fitxa oso ondo, azkar eta laguntzarik gabe egin du, oso ondo jardun da lanean bere atzetik edo gainean egon behar izan gabe; segurtasun eta konfiantza osoz aritu baita lanean. Honekin ikusi dugu, apurka-apurka akademikoki hobetzen ari dela emozionalki hobetzen ari den heinean. Izan ere, pixkanaka-pixkanaka irakasleongana irekitzen ari da, bere konfiantza eta konfort gunea eraikiz ikasgelan.

2019/11/26 ASTEARTEA

Gaur goizean, irteera bat izan dugu “Beraka” Gaseizko elkarte bat bisitatzera. Bertan, famili zein pertsona txiroentzako oinarrizko baliabideak jasotzen dituzte eta hainbat boluntariok finantziatzen, kudeatzen eta eramaten dute aurrera jaki-tokia/despentsa. Orokorrean oso ongi eta pozik egon dira bisitan zehar zein bertan emandako azalpenak entzutean. Baina, HAURRA 1-i dagokionez, oso urduri egon da bisitan zehar; behin eta berriz errepikatu dit urduri zegoela eta ezin zuela gelditu, niri eskua emanda egon eta lasaitu den arte. Horretaz gain, HAURRA 15 nahiko beldurtu da jaki-tokia ikustera sartu garenean, izan ere, nahiko leku zaharra da eta apalategiz josia (produktu desberdinekin beteta daudelarik). Horregatik, IRAKASLEA 1-engana hurbildu da eta honek lasaitu du. Honekin, haurrek helduongana jotzen dutela ondorioztatu daiteke arazo-emozional desberdinen aurrean.

2019/11/27 ASTEAZKENA

Gaur goizean, “berunezko soldadutxoaren”-ren antzezipena ikusi dugu ingelesez antzerki-gelan (Haur Hezkuntzako ikasleak eta Lehen Hezkuntzakoak bertaratu gara). Oso antzezipen polita, erakargarria eta aktiboa izan da, eta ikaragarri gustatu zaie haurrei. IRAKASLEA 1 eta ni egon gara nire gelako haurrak gainbegiratzen, bakoitza punta batean jarrita, denak kontrolatu ahal izateko. Hori dela eta, ni eseri naizen aldean HAURRA 1 nuen ondoan eta antzezipenaz bere ondoan disfrutatu dut; oso pozik, kontzentraturik eta momentu batzuetan urduri egon da antzezipenean zehar. Igaro dituen edota hobeto esanda bizi zein sentitu dituen emozio guztiak hitzez adierazi dizkit behin baino gehiagotan. Hala nola, “estoy muy contento”, “ay! ¿que le va a pasar ahora?, estoy muy nervioso” eta horrelakoak esanez. Hala ere, keinuen bidez ere erakutsi du nola sentitzen zen, zein emozio ari zen bizitzen: hankak geldirik eduki ezinik gora eta behera mugitzean urduritasunez, pozik egon den uneetan irribarre eginez, etab.

Gaurkoan ere, HAURRA 3 izugarri ondo aritu da lanean, besteen erritmoa jarraituz eta egin beharreko fitxak zein jarduera desberdinak modu egokian burutuz. Gainera, aurrekoan

azaldu bezala, guztia emozionalki geroz eta hobeto eta eskola inguruan erosoago sentitzearen ondorio nagusia delakoan gaude.

2019/11/28 OSTEGUNA

Gaur HAURRA 8 oso aztoratuta egon da egun osoan zehar; borrokatzen aritu da bere lagunekin (hasieran jolas moduan baina azkenean benetan) eta borrokatzeaz gain zirikatzen lanean ari ziren bitartean. Bere gainean egon behar izan gara egun osoan zehar. Gainera, HAURRA 1, HAURRA 2, HAURRA 7 eta HAURRA 9rekin haserre zegoela esan digu eta azkenik, gurekin ere haserretu da eguerdian (ez molestatzeko HAURRA 7 esan diogunean), etxera bazkaltzera joateko unean. Une horretan, gelako txoko batean geratu da etzanda, ez zuen nahi jaiki, ez zuen nahi jantzi berokia, ezta etxera joan ere. Halako batean, denok ilaran jarrita geundela altxatzea eta berokia jantziaraztea lortu dugu bazkaltzera joan ahal izateko. Hala ere, haserretzen den bakoitzean egin ohi duen bezala, mantxo-mantxo ibiltzen hasi da, gogorik gabe, eta eskutik helduta eraman behar izan dut eskola kanpora. Bertan, betiko moduan bere aita zegoen zain baina gaurkoan ez du joan nahi izan berarengana, niri eusten zidan eskutik, orduan aitak eskutik heldu eta eraman egin du.

Bestalde, gaurkoan ere, HAURRA 3 izugarri ondo aritu da lanean, besteen erritmoa jarraituz eta egin beharreko fitxak zein jarduera desberdinak modu egokian burutuz.

HAURRA 1-i erreparatuz, gaurkoan jolas orduan oso triste eta bakarrik egon dela behatu dut. Orduerdiko patioak dira eta ia orduerdi osoa egon da patioko bazter batean eserita, berarengana hurbiltzean bakarrik jolastu nahi zuela esan dit. Beraz, bakarrik jolasten utzi diot nahiz eta triste zegoen sentsazioa eman didan. Hala ere, zer moduz sentitzen zen galdetzean pozik zegoela esan dit.

2019/11/29 OSTIRALA

Gaurkoan ere, HAURRA 8ren jokaerak asko arritu nau. Goizean, oso pozik sartu da gelara baina sartu eta berehala HAURRA 2, HAURRA 4, HAURRA 9 eta HAURRA 13rekin haserretu da arrazoi desberdinengatik (kasurik ez diotelako egin, berarekin ez zutelako nahi jolastu, patioan harrapaketan jolasten zeudenean harrapatu egi dutelako, etab.). Gelan geundela haserretu denean, gelako txoko batean eseri eta negarrez hasi da, eta patio orduan haserretu denean berdin. Gainera, haserretu den une horretan ez du nahi izan irakasleak hurbiltzea hasieran, baina gero hurbildu garenean azkenik lortu dugu lurretik altsatu eta

besarkatuz lasaitzea. Hala ere, ez dugu lortu berarekin hitzez komunikatzea, zer gertatu zaion beste hurrek esan digute; horrelako uneetan ez baitu ezer esaten, kanporatzen, negar egin eta txoko batean bakarturik geratzeko ohitura du. Zailtasuna du emozio negatiboak kudeatzerako orduan.

2019/12/02 ASTELEHENA

Gaurkoan, ikasgelan abenduari hasiera emanez, “Olentzerori zer galdu zaio?” antzerkia ikusi dugu euskaraz. Oso polita, jostagarria eta umoretsua izan da antzezpena eta honek eragin zuzena izan du ikasgelan bizi izan ditugun bizipenekin. Hasieran, antzerkira joan baino lehen oso oso urduri etorri dira orokorrean denak, bazekitelako amantalak jantzi eta berokiak eskegi ondoren antzerkia ikustera gindoazela. Gainera, Olentzero eta Mari Domingi etorri behar ziren gu bisitatzerantz antzezlanean... horrek are urduriago jarri ditu denak.

Hala ere, antzerkian zehar HAURRA 1 izugarri ondo portatu da; nahiz eta urduri zegoen bere emozio zein sentipenak kontrolatzen jakin du obrak iraun duen bitartean. Izan ere, hasieratik lortu du adi egotea, arreta mantentzea eta antzerkiko istorioan murgiltzea. Beraz, asko arritu nau, zentzu onean.

HAURRA 2 aldiz, lo geratzen ari zela negar-zotinka hurbildu da nigana oso nekatuta zegoela esanez, eta nire ondoan leku bat nuenez, bertan jarri da eserita haiseran (denbora guztian ni eskutik helduz). Baina azkenean, “mimo fata” zuenez, nire mantalean jarrita lokartu da. Harrigarria da haur honek etxetik ekartzen duen maitasun eta kontaktu fisiko falta, normalean uneoro egoten baita kontaktua eskatzen (eskua ematen, besarkadak, petralaldiak hartzen...). Irakasleek azaldu didatenez etxean nahiko egoera zaila bizitzen ari da.

HAURRA 8ren jokabideari erreparatuz gero, bereziki gaurkoan izan duen pasotismoa izugarria izan da. Bere munduan egon da antzerki osoan zehar eta baita klasea eman dugun orduetan ere. Nahiz eta nire aurrean jarri dudan irakasleari atentzio gehiago jartzeko, egin beharreko jardueraz ohartzeko, segundoro despistatu da. Horretaz gain, HAURRA 4k, HAURRA 9k eta HAURRA 13k patio orduan berarekin jolastu nahi izan ez dutela eta, negar batean hurbildu da nigana. Momentu horretan lasaitzen saiatu naizen arren, gelara igo arte ez dut lortu lasaitzea, gainera ez ninduen askatu nahi... Hala ere, apurka-apurka bere onera itzuli den bezain pronto besteekin batera alfonbran eser araztea lortu dut. Baina, esan beharra dut nahiko triste egon dela etxera joateko ordua etorri den arte.

2019/12/03 ASTEARTEA

Gaurkoan HAURRA 1ek goiz erdia triste pasatu du. Hasieran, klasean geundela oso pozik eta gustura ibili da baina patiotik bueltan, izugarrizko negar saioa bota du iruditu zaiolako HAURRA 3k “kolatu” egin duela. Negar batean etorri da nigana eta lasaitzen saiatu naizen arren gelara iritsi arte ez da lasaitu. “Bukle” moduko batean sartu da eta ezin zuen lasaitu, orduan ura edatera joan nahi duela eskatu dit eta bat-batean komunetik bueltan askoz ere lasaiago itzuli da. Klase horretan, triste baina nahiko lasai eta ongi aritu da jarduerak burutzen.

Bazkaltzetik bueltan ordea, euskararen eguna ospatuz Baskoniako bi jokalaria etorri eta eurekin egon ostean, denbora librea izan dute patioan jolasteko. Une horretan, HAURRA 4 eta HAURRA 13 elkarrekin jolasten ari ziren (ohi bezala) HAURRA 4 HAURRA 13ren jertsetik eutsita jarri eta korrika egiten. Orduan, HAURRA 1 eta HAURRA 15 hurbildu zaizkie beraiek ere jolastu nahi dutela esanez. Orokorrean ia beti, ez esatearren beti, HAURRA 1 bera bakarrik jolasten da, ez da beste hurrekin komunikatzen (irakasleonek ustez komunikazio arazoak dituelako), ez du beraiekin elkarrekintzarik egiten (baldin eta klaseko jarduera gidaturen batengatik ez bada). Hala ere, oso gustura ibiltzen da patioan, ez du inorekin egoteko “beharririk” sentitzen edo kanporatzen behintzat. Beraz, gaurkoan, bere ikaskideengana hurbildu eta beraiekin jolastu nahi duela esatea pausu oso handia izan da beretzat. Baina, zer gertatu da? Bada, HAURRA 15i utzi diotela eurekin jolasten baina HAURRA 1i ez. Orduan, ni egoera behatzen ari nintzela, ikusi dudanean euren artean ez zirela ari, ez zirela gai, arazoa konpontzeko, hurbildu egin naiz eta HAURRA 1 negar batean etorri da niregana, amarekin egon nahi zuela errepikatuz behin eta berriz. Behin arazoa konponduta, beste hurrei egoeraren inguruan hausnartzeko eta pentsatzeko denbora utzi ondoren, denak batera aritu dira jolasten. HAURRA 1 oso oso pozik aritu da jolasean beste hurrekin batera.

2019/12/04 ASTEAZKENA

Gaur HAURRA 1 oso triste heldu da eskolara, amarekin egon nahi duela errepikatuz behin eta berriz negarrez. Gelara igo garen heinean lasaitzen joan da, baina fitxa egiten hasi eta amaitu ez duenean haserretu eta berriz ere negarrez hasi da; ez du ulertu nahi izan arratsaldean amaituko genuela. Patiora jeistean, lasaitu eta pozik ibili da parkean, tarteka irakasleongana hurbilduz gurekin jolasteko. Bazkaltzera joateko unea heldu denean aldiz, zakar-ontzitik paper bat hartzen utzi ez diolako IRAKASLEA 4k, kasketa harrapatu, haserretu eta negarrez hasi da. Hala ere, oraingo honetan azkar lasaitu da.

HAURRA 3ri dagokionez, azken aldian aipatu bezala geroz eta segurtasun handiagoa ari da hartzen bere buruarengan, lasaiago eta alaiago ikusten da gelan bai ikaskideekin bai irakasleekin. Aurrerapen handia egin du bai emozionalki bai akademikoki.

2019/12/05 OSTEGUNA

Gaur HAURRA 2 oso mimati egon da goizean zehar, kontaktu asko eskatu du, nekatuta eta triste zegoela esanez, etxera jona nahi zuela errepikatuz behin eta berriz. Jantokitik bueltan aldiz, oso pozik eta alai igo da gelara, eta arratsalde osoan zehar iraun dio umore onak.

HAURRA 2z gain, HAURRA 11 ere nahiko triste egon da goizean zehar, gurasoekin egon nahi zuela esanez. Hala ere, patio ostean, arratsaldean bezala, oso alai eta pozik jardun du jarduerak egiten.

HAURRA 16ri dagokionez, gaur oso urduri hurbildu zait esanez iada gabonen hilabetean gaudela eta zubian zehar etxean zuhaitza eta jaiotza jarriko duela. Asko gustatzen zaizkiola gabonak azaldu dit, bere lehengusuak bisitatzen baititu, eta gainera olentzerok opari mordoia ekartzen diola. Hau azaldu eta patio ordura arte normalean baino urduriago egon dela iruditu zait, alfombran ohi bezala eserita geldi egon ezinik, mugitzeko beharra zuen barruko emozioak, urduritasuna eta irrika, askatzeko. Beraz, patio orduan, “harrapaketa” jolasean aritu naiz berarekin eta beste haur batzuekin barruko urduritasun dena kanporatu eta lasaitzeko asmoz. Jolas ordua eta gero, askoz ere lasaiago egon da gelan.

2019/12/09 ASTELEHENA

Gaurkoan, HAURRA 2 oso aztoratuta egon da, izan ere, bazekien bere ama tutorearekin hitz egitera zetorrela eta eskolan ikusteko esperantza/gogoa/irrika zuen. Hori dela eta, besteetan baino gehiago saiatu da atenzioa deitzen eta IRAKASLEA 3ren klasean adibidez, ez du batere kasurik egin, gogorik gabe eta oso gaizki bete du fitxa, normalean oso ondo eta azkar egiten duenean. Gainera, behin eta berriz korroan esertzeko eskatu zaionean, gogoak eman dionean jaiki da eta lekuz aldatu, bere aulkian eseri, etab. Horrela portatu da goiz osoan zehar. Jantokitik bueltan aldiz, lasaiago itzuli da eta nahiko ondo portatu da, jardueretan parte hartuz eta irakasleak zein beste haurrak errespetatuz.

2019/12/10 ASTEARTEA

Gaurkoan HAURRA 1 eta HAURRA 8 oso oso pozik eta gogotsu etorri dira, normalean baino alaiago. Gogotsu parte hartu dute jarduera guztietan eta arreta mantentzea lortu dute (normalean asko kostatzen zaie, bereziki HAURRA 8ri).

Gainera, HAURRA 1 uneoro nire inguruan izan dut, besarkadak eta musuak emanez, eta nirekin jolasteko gogoz. Hori dela eta, klaseko jarduerak amaitu eta jolastokira jaistean gaurkoan nirekin jolasten utzi diot beste hurrekin jolastera bidali beharrean, alai baina apur bat mimati baitzegoen. Jarduerak egiteko unean oso motibaturik eta segurtasun handiz ikusi dut, HAURRA 8 bezala.

HAURRA 8ri dagokionez, besteekin gehiago harremantzen saiatu dela iruditu zait, bai txokoetan jolasten aritu diren bitartean, bai jolastorduan. Oso umore onez eta gustura aritu da normalean ia beti ibiltzen den HAURRA 9rekin aparte HAURRA 17 eta HAURRA 18rekin ere. HAURRA 17 eta HAURRA 18 oso haur lasaiak dira, eta nik uste konfiantza edota segurtasuna transmititu diotela HAURRA 8ri.

2019/12/11 ASTEAZKENA

Gaurkoan ere HAURRA 1 eta HAURRA 8 oso alai eta gogotsu egon dira goizean zehar, jarduerak azaldu diren momentuan arreta mantenduz. Baina gehien arritu nauena, HAURRA 13ren jokabidea izan da, izan ere, normalean oso mugitua den haurra da, ez da oso ondo portatzen, arreta mantentzea izugarri kostatzen zaio, tarteka errespetu faltak izan ohi ditu irakasle zein beste hurrekin, tontakeriak egiten pasatzen du ia egun osoa, txokoetan jolastea besterik ez du nahi izaten beti, etab.

Gaur aldiz, oso adi egon da goiz osoan zehar; ea Olentzeroren fitxa noiz egingo dugun galdezka aritu da, oso gustura, ondo eta azkar egin du fitxa; oso lasai egon da korroan besteekin batera; jardueretan parte hartu du eta aportazioak egin ditu; ez da tontakeriak egiten aritu eta besteekiko errespetua mantendu du... beste haur bat zirudien. Oso oso lasai eta gustura somatu dugu bere buruarekin, baina zergatia ez dugu jakin, ez digu ezer berezirik kontatu.

2019/12/12 OSTEGUNA

Gaurkoan, HAURRA 1 eta HAURRA 13ren arteko gatazkaren ondorioz HAURRA 1ek izan duen erreakzioak inpaktatu nau gehien. Izan ere, jolas-orduan, HAURRA 1ek HAURRA 13, HAURRA 4, HAURRA 5, HAURRA 2, HAURRA 9 eta HAURRA 15ekin jolastu nahi izan du elkar eskutik heldu eta patioan zehar korrika, baina HAURRA 13k, “taldeko liderrak” ez dio utzi, berak ezin duela jolastu esan dio. Orduan, HAURRA 1 negar batean hasi da eta patioko izkina batera joan da, bertan eseri eta bere burua jotzen hasi da. Une horretan, ni eta IRAKASLEA 1 berarengana hurbildu gara lasaituz eta ea zer gertatu den galdetuz. Hala ere, kontsolatu eta bere burua lasaitu ezinik negar batean jardun du denbora luzez; bai patioan, bai gelara igotzean. Gelara igo eta denen aurrean gaia ateratzean zein bi aderdiak entzun ostean gure ikuspuntua adieraztean, lasaitu egin da baina oso triste eta mimati egon da bazkal ordua iritsi bitartean, gertatutakoa burutik kendu ezinik; ez baitzuen ulertzen zergatik ez duen jolastu nahi izan HAURRA 13k berarekin. Gainera, negarraldi horretan, HAURRA 1ek behin eta berriz errepikatu du berari guztiekin jolastea gustatzen zaiola. Negarraldia amaitzean, triste dagoela azaldu dit, eta normalean horrelako uneetan kontaktua asko gustatzen ez bazaio ere, gaurkoan bera izan da kontaktua/goxotasuna/besarkatzeko eskatu didana.

2019/12/13 OSTIRALA

Gaurkoan ere, HAURRA 1 oso triste egon da goizean zehar. Izan ere, ez du izan lan egiteko gogorik, plastilinarekin jolasteko gogoa soilik izan du. Hori dela eta, plastilina jasotzeko eskatu zaion unean, fitxa bat egin behar genuelako, izugarrizko haserrealdia arrapatu du. Haserrealdi honetan, nik orain arte berarengan ikusi ez dudana erreakzioa ikusteko aukera izan dut. IRAKASLEA 2, eta IRAKASLEA 4ren esanetan aurreko urtetik izan ez duen erreakzioa izan da. Oihuka hasi da negar batean, oso ozen oihukatuz, bere onera etorri ezinik. Antsietatea, ezin egona eta bere buruarekiko kontrol eza nabaritu zaio. Askok arritu gaitu, bere laguntzailea lasaitzen saiatu den arren ezin izan baitu. Gainera, patioa baino lehen gertatu da hau eta patiora ere negar batean jaitsi da. Bertan, apurka apurka lasaitzen joan den arte izkina batean bakarrik eserita. Ez du nahi izan inor hurbiltzea, ez haur ez heldu. Patioa amaitu denerako, lortu du bere burua lasaitzea eta kontrol/egonkortasun egoera batera heltzea. Hala ere, gelara igotzean apur bat triste zegoela aipatu dit eta nahiko mimati jokatu du nirekin hasiera batean. Egin beharreko jarduera azaltzean aldiz, besteekin batera materialak hartu eta jarduera egiteari ekin dio lasai-lasai eta pozik.

2019/12/16 ASTELEHENA

Gaurkoan gehien arritu nauena, HAURRA 3ren atzerakada izan da. Izan ere, nahiz eta aurreko asteetan aipatu bezala bere buruarekiko segurtasuna lortua zuen eta aurrerapen bikaina egin zuen jarduerak burutzerako unean, gaurkoan berriro ere hasiera batean izaten zuen segurtasun/konfiantza ezera itzuli da. Zer dela eta itzuli da lehengora? Bada, ez dakit. Ez da ezer berezirik gertatu gaurkoan, gabonen aurretiko azken astea dela soilik da zerbait berezi moduan aipatu daitekeena. Gabonak gertu izateak sortzen dion urduritasun eta intrigagatik izan liteke blokeo edota atzerapen hau. Hasiera batean bezala, fitxak banatu ostean fitxari begira geratu da, ez da hasi fitxa egiten berarengana zuzendu arte eta gainera, denbora guztian begirada hutsez dena galdetzen aritu da. Esate baterako, dena azaldu ostean, “hau kolore honekin margotu behar dut, ez?”, “hau zulatzeke puntzoia hartu behar dut, ez?”, etab. Fitxek aparte egin ditugun bestelako jardueretan ere, galduta/ausente/segurtasun zein konfiantza ezarekin aritu da egun osoan zehar.

HAURRA 1 aldiz, gaur izugarri pozik eta lasai egon da egun osoan zehar, gainerako haurrekin jolasten zein gelan fitxak eta bestelako jarduerak burutzen.

HAURRA 8 berriz, gaurkoan HAURRA 17 jotzen aritu da gorputz heziketako orduan. Barnean zuen ezin egon/amorru osoa askatzen saiatu da berarekin, ezer egin ez badio ere. Horregatik, IRAKASLEA 2 eta biok zer egin duen gaizki azaldu eta zigortu egin dugu. Une horretan, oso burugogorra denez, gurekin haserretu eta lurtean botata geratu da negarrez. Berehala, gelara itzultzeko ordua iritsi da eta hasieran izugarri kostatu zaion arren gogoeta egin eta errekapazitatzeari, bere burugogortasunarekin jarraitu eta berearekin atera nahi izan baitu kosta ala kosta, halako batean lortu dugu. Bazkaltzeko orduan triste joan da etxera, baina bueltakoan oso pozik itzuli da, eta etorri bezain pronto HAURRA 17rengana joan da jolastera, bazkal aurretik ezer gertatu izan ez balitz bezala.

HAURRA 6 eta HAURRA 7ri dagokienez, gaur inoiz baino hurbilago izan ditut biak gorputz heziketako klasean. Izan ere, azken 15 minututan IRAKASLEA 2 eta ni eurekin jolasten aritu gara eta nire ustez horrek orain arte bi haur hauekin lortu izan ez dudana konfiantza giro erosoago bat sortzea lortu dut, harreman hurbilagoa sustatuz.

HAURRA 13, aurreko aste osoan bezala izugarri ongi eta lasai egon da klasean. Iada ez du erakusten hasiera batean zuen egon ezina eta lehen baino askoz ere gutxiago zirikatzen

ditu besteak. Orokorrean orain askoz zentratuago, langileago eta lasaiago dago egunero. Beste bat dirudi...

2019/12/17 ASTEARTEA

Gaur ikastetxeak 125 urte egin dituen txokolatada eduki dugu arratsaldean. Hori dela eta, haurrak orokorrean nahiko urduri egon dira egun osoan zehar, errutinatik atera baikaitu txokolatadak. Oro har errutinatik ateratzen gaituen ekintza orok urduritasuna eta irrika sorrarazten die; beraz, nahiko egun mugitua eta aztoratua izan dugu gaurkoa.

HAURRA 2 oso gaizki portatu da; ez digu jaramonik egin irakasleoi, nahi duenean jaiki da korrotik, esan diogunaren kontrakoa egin du atentzioa deitzeko, etab. Horregatik, zigortu egin behar izan dugu eta IRAKASLEA 1ek ondoko gelara bidali du. Gela horretan 10 minutu egon ostean, berriz ere geure gelara ekarri du IRAKASLEA 1ek eta hortik aurrera oso ondo, errespetuz, jokatu du guztiokin.

HAURRA 17ri dagokionez ere, nahiko gaizki portatu da, uneoro HAURRA 1, HAURRA 5 eta HAURRA 8 zirikatzen aritu baita. Azkenaldian, gaurko egunaz gain nahiko urduri eta geldi egon ezinik dabil; ez dakit zer gertatzen zaion baina ez dago orain artean bezain lasai. Gainera, lehen gehienbat HAURRA 6rekin soilik egoten zen, besteekin ez zuen horrenbeste interakzionatzen. Orain aldiz, gehiago ari da askatzen eta harreman gehiago zein sakonagoa lortu du beste hurrekin.

2019/12/18 ASTEAZKENA

Gaur emozioen inguruan izan dugun gertakaririk aipagarriena patioan gertatu da. Jolas-orduan, “zubiri-zubiri, nongori-nongori” jolasera jolasten aritu naiz nire gelako zein beste gelako hurrekin batera. Halako batean, HAURRA 2 arrapatzean (zubi azpitik igarotzen ari zela) eta zer nahiago zuen “txokolatea” ala “makarroiak” galdetu eta “makarroiak” erantzun ostean, HAURRA 12ren atzean jartzea egokitu zaio. Momentu horretatik aurrera, HAURRA 12 eta biok falta ziren partaideak arrapatu bitartean HAURRA 2k, beste haur batzuen moduan HAURRA 12ri helduta egon behar zuen, HAURRA 12ren atzean ilara bat osatuz. Baina, bat batean, ilaratik irten eta berriz ere zubi azpitik igarotzen hasi da. Orduan, ezin duela hori egin azaldu diot, hasieran azaldutako jokua arauak errespetatu behar dituela besteek bezala aipatuz. Zer gertatu da une horretan? Bada, haserretu eta negar batean hasi dela, araua ez zuelako errespetatu nahi. Une horretan, IRAKASLEA 1 azaldu da eta berarekin eraman du

HAURRA 2, oso gaizki egin duela eta guztioi barkamena eskatu behar digula azaltzera. IRAKASLEA 1ekin hitz egin eta gero, buru makur baina lasaituta itzuli da berriz guregana eta jolasean parte hartzen utzi diogu.

Honekin, beste behin argi geratu da emozioak erregulatzeko zailtasuna izan ohi duela haur honek; gustatzen ez zaionaren aurrean ez daki emozioak kontrolatzen eta bere onera etortzea kostatu egiten zaio.

2019/12/19 OSTEGUNA

Gaurkoan, HAURRA 1ek izan duen gorabehera izan da gertakari aipagarriena. Izan ere, nahiz eta goizean oso pozik etorri den gelara, logopeda bila etorri eta berarekin joateko eskatu dionean negar batean hasi da, joan nahi ez zuela esanez. Orokorrean beti oso pozik joaten da, gustuko baititu bertan egiten dituen jolasak. Hala ere, gaurkoan arrazoi ezezagun batengatik hasieran ez du joan nahi izan; baina azkenean, bere burua lasaitzea lortu eta nahiko pozik joan da. Aipatu beharra dut, nahiz eta oso pozik etorri den gelara ohi baino urduriago nabaritu dudala; beraz, horrek jazotakoarekin zerikusi zuzena izan dezakeelakoan nago. Urduritasunak ezinegona dakar eta horrek emozioen desoreka.

2019/12/20 OSTIRALA

Gaurkoan aldiz, gabonen aurretiko azken eguna izanik, Olentzeroren bisita eta opariak izan ditugu gelan. Haurrak nahiko urduri baina pozez zoratzen egon dira egun osoan zehar. Hala ere, ez da gertatu ezer berezirik, atentzinoa deitu didanik emozioen inguruan.

2020/01/08 ASTEAZKENA

Gaur gabonen osteko lehen eguna izan da; orokorrean oso gogorra guztiontzat, haurrentzat zein helduontzat. Haurrengan zentratuz, batzuk pozik eta gogotsu etorri badira ere HAURRA 4 eta HAURRA 14 negarrez etorri dira, amarekin egon nahi dutela esanez eta beste batzuk negarrez ez baina nahiko triste, batez ere HAURRA 3 eta HAURRA 19. Hala ere, behin gelara igota nahiko lasaitu dira guztiak eta orokorean ondo egin dute lan, apur-bat berritsu egon badira ere. HAURRA 14k egun osoan zehar izan ditu gorabeherak, oso mimati egon da eta tarteka negarrez ama etortzen zitzaionean burura. Jantokiaren ostean aldiz, arratsaldean, oso pozik egon da. Baina, HAURRA 4 aldiz, une horretan egon da tristen.

HAURRA 19ri dagokionez, triste etorri bada ere, lagunekin elkartzean berehala lasaitu da. HAURRA 3 berriz, nahiko arraro itzuli da, hasierako tristura desagertu bazaio ere, gabonen aurretik bere buruarengan zuen segurtasun guztia baldin itzuli da. Atzerakada izugarria izan du, ez da eroso sentitu orokorrean gelan eta esate baterako, gorputz hezkuntzako klasean ez du nahi izan parte hartu. Egoera horren aurrean nahiz eta saiatu garen zer gertatzen zaion jakiten, ez digu arrazoirik adierazi eta esaterako gorputz hezkuntzako klasean ez parte hartzen utzi diogu, lasaitu zedin eta konfiantza berreskuratu zezan. Arratsaldean, nahiko pozik eta lasai egon da.

2020/01/09 OSTEGUNA

Gaurkoan ere, HAURRA 4 nahiko triste etorri da eta gorabeherak izan ditu goizean zehar; hala ere, orokorrean nahiko ondo egon da eta irakasleonek hurbiltasuna (kariñoa) eskatu badu ere, eman zaionean berehala lasaitu da.

HAURRA 3ri dagokionez, gaurkoan ere segurtasun falta izugarria erakutsi du. Gainera, HAURRA 11ekin (bere txokokoa den haurrarekin) eztabaida izan du, HAURRA 11ak ez ziolako utzi nahi berarekin eta HAURRA 20ekin jolasten. HAURRA 3ren egoera ikustean, esku hartu dugu eta taldean integratzen saiatu gara. Baina, HAURRA 3 “beldurturik” bezala egon da, ez da batere eroso sentitu. Patio orduan aldiz, HAURRA 4, HAURRA 14 eta HAURRA 15ekin batera aritu da jolasean, oso oso pozik eta gustura.

2020/01/10 OSTIRALA

Gaurkoan HAURRA 3k berdin jarraitu du, segurtasun falta ikaragarriarekin fitxak egiterako unean, ingeleseko ahozko jolasak burutzerako orduan, etab. Bere gainean, hurbil, uneoro egin behar duen hori errepikatzen, espreski beraren ondoan jezarrita fitxak berarekin batera egiten, lasaitzen, etab. egon behar izan gara. Horretaz gain, txokoetan jolasteko unean, puzzle txokoan egotea egokitu zaie gaur bere taldekoei eta taldea bitan zatitu dute puzzle desberdinak egiteko HAURRA 3 bakarrik utziz. Honek, bakardadea eta tristura sentiaraztea eragin dio eta irakasleongana zuzendu da negarrez, gu beste bi txokoetan jolas berriak (material berria) azaltzen baikeunden. IRAKASLEA 1ek bere taldekideekin hitz egin du eta guztiek HAURRA 11ri bota diote errua, berak esan duela taldeak nola banatu azalduz; izan ere, HAURRA 11 da taldeko liderra. Hori dela eta, HAURRA 3ren eta HAURRA 11ren izaera nahiz jokabideak kontuan hartuz ikusi dugu elkarrekin egoteak ez diola onik egiten ez batari ez

besteari. Horregatik, taldeak aldatzea erabaki dugu eta horretan aritu gara arratsaldean, talde orekatuak sortu nahian.

2020/01/13 ASTELEHENA

Gaurkoan HAURRA 14 negarrez etorri da eskolara amarekin egon nahi duela esanez. Gabonetatik buelta apur bat gogorra egiten ari zaio; hala ere, goiza aurrera doan ahala lasaituz joaten da. HAURRA 3ri dagokionez, gaur ere urduri eta bere buruarekiko segurtasun ezarekin jokatu du, uneoro irakasleonek begirada eta oniritzia bilatuz. Gainera, IRAKASLEA 1 eta ni neguko proiektuaren sarrera egiten hasi garenean, guztiak alfombran eserita zeudela eta erakusten ari ginen fitxek adierazten zutena banaka ozenki esaten, bat-batean oso urduri jarri da. Banan-bana fitxek adierazten zutena galdetzen joan gara jolas moduan, zer zen ez zekiten haurrei zer zen esanez, beraiek ozenki errepikatzeko euskaraz. HAURRA 3ren txanda iritsi denean eta zer agertzen zen fitxan galdetzean buruaz eztz egiten hasi da, ez zekiela esanez. Orduan, IRAKASLEA 1ek “hotza” zela esan eta berarekin batera errepikatzeko hitza eskatu dio. HAURRA 3k buruarekin ezetz esanez jarraitu du, gero eta urduriago eta beldurtuago jarritz. Orduan, lasaitzeko eta denok batera esango dugula “hotza” hitza esan diogu, eta berak ere guztiokin batera esateko. Momentu horretan, denok esan dugu ozeki “hotza” berak ezik, eta negarrez hasi da, “behartuta” sentitu izan balitz bezala nahiz eta gu modo goxoan saiatu garen berak parte har zezan. Bere buruarekiko konfiantza eta segurtasun eza geroz eta gehiagora doa, atzerakada izugarria eman du gabonetan.

2020/01/14 ASTEARTEA

Gaurkoan HAURRA 3k ez du ingeleseko jolas batean parte hartu nahi izan, urduri jarri da eta atzo bezala konfiantza falta izugarriarekin. Egoera ikusirik, jolasean parte ez hartzen utzi diogu, ez gara saiatu parte hartzen konbentzitzen. Horretaz gain, betiko moduan deskonfiantza puntu batekin hurbildu da irakasleongana laguntza behar izan duen guztietan. Jokabide hau ikusirik, IRAKASLEA 1ek ikastetxeko psikologoarengana jo du laguntza eske, bere iritzia jakin nahi baitzuen haur honen inguruan, irakasleok berarekin nola jokatu jakin aha izateko, haurraren hobebeharrez. Psikologoak bihar etorriko dela behatzera esan dio. Patio orduan, nahiko ondo/gustura zebilela zirudien klasekideekin jolasean, elkarrizketak izanez eta tarteka irribarrez.

Arratsaldean aldiz, emozioen gaia lantzeko aprobetxatu dut egoera. Izugarri gustatzen zaien *Koloreetako Munstroaren* album ilustratua kontatu diet lehendabizi eta ondoren emozio

bat adierazten duen marrazki bat egiteko eskatu; emozio positibo zein negatiboak adierazteko aukera eman diet. Oso marrazki esanguratsuak egin dituzte, batzuk dituzten beldurrak isladatu dituzte, beste batzuk pozik egoten diren egoerak, etab. Marrazkiak egin ostean, bakoitzak bere marrazkia besteei erakutsi die banan-bana eta bertan zer egin duen eta zergatik azalduz. Une honetan, HAURRA 3k bere marrazkia erakutsi die beste haurrei baina marrazkiaren zergatia ez du azaldu nahi izan, orduan, errefortzu positiboak eman, oso ongi egin duela esan eta hurrengo haurrarengana jo dut, HAURRA 3 parte-hartzera behartuta ez sentitzeko.

2020/01/15 ASTEAZKENA

Gaurkoan psikologoa etorri da HAURRA 3 behatzera ordubetez. Behaketa amaitu ostean, guk uste genuen moduan konfiantza eta segurtasun eza duela bere buruarekiko esan digu psikologoak, autoestima oso baxua duela. Hori dela eta, gure egin beharra errefortzu positiboan bidez animatzea eta motibatzea dela uneoro esan digu; ahalik eta konfiantzazko gune erosoena eskaini ahal izateko; HAURRA 3 besteen moduan gustura, eroso eta segurtasun osoz sentitu dadin bai besteekin bai bere buruarekin.

Arratsaldean, atzo egin genuen jarduerarekin jarraitu dugu, haur bakoitzak eginiko marrazkia eta haren zergatia azaldu du. Ondoren, korroa egin eta guztion artean bakoitzaren marrazkiak erlojuaren norantzan elkartuz istorio bat osatu dugu. Bertan imaginazioaz gain, emozio desberdinak ere landu ditugu. Oso gustura aritu dira guztiak, baita HAURRA 3 ere.

2020/01/16 OSTEGUNA

Gaurkoan HAURRA 3 oso pozik etorri da ikastetxera eta oso oso alai, eroso eta gustura aritu da gorputz hezkuntzako jarduerak burutzen; ohi baino gehiago askatu da. Bestalde, jolas orduan ere ohi baino lasaiago eta beste haurrekin elkartuago, harremanak gehiago sakontzen, irekiago, ikusi dut.

Hala ere, termometro jardeura eraman dudanean aurrera, ez du modu parte hartzaile aktiboan jokatu, bere taldekideekin egon da jolasa nola burutzen zuten begira, baina berak parte hartu gabe. Beste haur guztiek parte hartu dute eta egoki eraman dute aurrera jolasa. Hasiera batean, batzuk zalantzati aritu dira jolasean, baina behin dinamika arrapatuta, lasai eta konfiantzaz aritu dira.

Arratsaldean aldiz, atentzio gehien deitu didana HAURRA 1en jokabidea izan da. Izan ere, mindfulness jarduera egin ohi dugunean, ez du guztiz parte hartzen eta behin baino gehiagotan negarrari eman izan dio beste hurrekin ukimen kontaktua eduki behar izan duen uneetan. Gaur berriz, nahiko gustura aritu da jarduera burutzen eta asko lagundu dio lasaitzen. Baita, HAURRA 7rekin ukimen kontaktua edukitzea egokitu zaion unean ere (masaje bat ematen dio batak besteari txandaka).

2020/01/17 OSTIRALA

Gaurkoan, HAURRA 20 eta HAURRA 21en arteko liskarra izan da emozioen inguruan gertatu den egoerarik adierazgarriena. Jolas orduan batak bestearekin jolastu nahi ez zuelako haserretu dira. Izan ere, HAURRA 21ek HAURRA 20rekin jolastu nahi zuen, baina honek ez zuen nahi, HAURRA 19rekin soilik nahi zuen jolastu. Zer gertatu da orduan? IRAKASLEA 3rengana hurbildu direla eta arazoa azaldu diotela, HAURRA 20k HAURRA 21ekin ez zuela nahi jolastu, eta HAURRA 21 horregatik triste zegoela. Une horretan, IRAKASLEA 3k guztiok guztiokin jolastu behar dugula esan die eta honekin ados ez banator ere momentuan ez diet kontrako ezer esan, ez bainuen irakaslearen hitzaren gaintik kontrakoa esan nahi. Orduan, asko harritu nauena haurren jarrera izan da, irakaslearen erantzuna bete baitute inolako haserre edo frustraziorik azalerratu gabe (logikoena hau izango litzatekeenean). Honekin ikusi dudana izan da askotan haurrei arazoak euren artean konpontzen utzi beharrean soluzioa geuk ematen diegula eta soluzio hau askotan ez da izaten egokiena, nahiz eta haurren onenari begira eman. Honekin batera, haur batzuk emozio negatiboetatik urruntzen ditugularen irudipena dut, elkarrekin haserretzea edo frustrazio momentuak bizitzea gaizki dagoenaren eredu/irudia eraikiz; hauek, egunerokotasunean ditugun harreman desberdinen parte diren arren.

Arratsaldean berriz, kutxa magikoen jarduera burutu dut hurrekin. Oso gustura aritu dira denak, eta HAURRA 3k hasiera baten zuzenki parte hartu nahi ez zuen arren, taldeko beste haurrak zein ondo pasatzen ari ziren ikustean, berak ere jolastu nahi duela esan dit eta oso gustura aritu da besteekin batera jolasean. Haur batzuk jakin-mina/kuriositatea zuten, beste batzuek urduritasuna adierazi dute, beste batzuk unerren batean nazka sentitu dutela azaldu didate (objektu bigunen bat ukitzean, zer zen ez zekiten momentuan), beste batzuk “beldurra” zerbait nazkagarria egongo zelakoan kutxa barruan, edota hozka egingo zion zerbait... Hori dela eta, emozio desberdinak piztea eta sentiaraztea lortu dut.

2020/01/20 ASTELEHENA

Gaurkoan “aho-bizi eta belarri-prest” jarduera eraman dut aurrera. Jarduera honetan, haurrek bizi ohi dituzten emozioekin topatu nahiz, eta hauek sorrarazten dizkien zergati desberdinekin. Jarduera polita izan da, bai haurrak gehiago ezagutzeko aukera eman didalako, bai kontzientzia emozionala, konpetentzia soziala eta autonomia emozionala lantzea lortu dudalako.

2020/01/21 ASTEARTEA

Gaurkoan gehien harritu nauena HAURRA 22ren jokabidea izan da. Izan ere, orokorrean beti alai eta pozik etortzen da ikastetxera, ikaskideekin harreman ona du, emozioak kudeatzeko gaitasun handia du... Baina, gaur oso arraro egon da goiz osoan zehar, asko kostatu zaio zentratzea, kontzentrazioa mantentzea, besteekin harremantzea zein egin beharreko fitxak egitea. Horretaz gain, normalean baino gehiago bilatu du batez ere jolas orduan irakasleon presentzia eta babesa; segurtasun eza transmititu du. Honen atzean zer zegoen, arratsaldean topatu dugu; izan ere, plastika txokoan egotea egokitu zaio eta marrazki bat egin du non bera eta ama eskutik helduta zeuden eta aita berriz ez. Haur honek beti marrazten ditu bi gurasoak eta bere burua plastika txokora joaten den bakoitzean, eta marrazkian beti daude ahoan irrifar batekin, elkarren gertu familia osoa.

Etxera joateko orduan, IRAKASLEA 1 HAURRA 22ren amarekin hitz egiten geratu da, HAURRA 22 apur bat arraro sumatu dugula aipatuz. Orduan, HAURRA 22ren amak azaldu dio duela egun gutxi banandu egin dela HAURRA 22ren aitarengandik eta hori izan litekeela arrazoa. Egia esan, hasiera batean guztiz “normal” hartu zuela haurrak azaldu dio, berak ez ziola inolako aldaketarik sumatu jarreran etab. Hala ere, azken bi egunetan etxean ere normalean baino atentzio gehiago eskatzen aritu dela azaldu dio, kontzentrazio faltarekin, babes eske, etab. Nolabait esanda, apur bat galduta sentitzen da haurra eta emozioak kudeatzea kostatzen ari zaio.

Horretaz gain, aipatu beharra dut gutun-jarduera egin dugula goizean. Oso oso gustura aritu dira jardueran, asko gustatu zaie eta sentimendu positiboak martxan jarri ditugula iruditzen zait, gehienbat autonomia emozionala landuz.

2020/01/22 ASTEAZKENA

Gaurkoan gehien harritu nauena HAURRA 3ren eboluzioa izan da. Zer dela eta? Bada, batez ere jolas orduan atera duen izaeragatik. Aurreko egunetan zehar aipatu eta deskribatu bezala, oso haur isila, bakartia, segurtasun falta ikaragarriduna... da. Ondorioz, asko kostatzen zaio irakasleokin konfiantza edo erosotasun gune bat sortzea, eta baita gelako haur batzuekin ere. Gainera, konfiantza gehien duen haurrekin harremantzea eta gaizki iruditzen zaion zerbaiten aurka joatea edo bere nahiak adieraztea ere asko kostatzen zaio. Hau da, zaila egiten zaio ezetz esatea edo ez duela zerbait egin nahi adieraztea. Gaur ordea, patioan egunero lez behatzen ari nintzela, HAURRA 14 eta HAURRA 19rekin haserretu da eta ez zuela beraiek esaten zuten jolasean jolastu nahi esaten aritu da behin eta berriz bere karakterra ateraz. Erabili duen eragatik, boteredun sentituz, ausart eta bere buruaz seguru, izugarritzko ezustekoa hartu dut. Apurka-apurka geroz eta segurtasun handiagoa hartzen ari da bere buruarengan, eta honek lasaiago egoten laguntzen dio.

Horretaz gain, goizean zehar Muxu panpinaren jarduera eraman dut aurrera. Oso ongi jarraitu dute istorioa eta lortu dute Muxurekin enpatizatzea. Horretaz gain, askok beraiek zer egingo luketen azaldutako egoera horren aurrean azaldu dute. Beraz, parte hartze aktiboa izan dutela esan daiteke.

2020/01/23 OSTEGUNA

Gaurkoan ere, HAURRA 3k erakutsi ohi ez duen segurtasuna erakutsi du egun osoan zehar. Planteatu zaizkion jarduera guztietan parte hartu du, ez da jarduera/jolasetatik kanpo geratu tarteka geratu izan den bezala. Horretaz gain, bere buruaz arro egotearen sentipena azaleratu du, oso irrifartsu egon da egun osoan zehar, ez da irakasleongana horrenbeste aldiz zuzendu fitxak burutzerako garaian, etab. Hori dela eta, aurrerapen egokia eta oso positiboa ikusi dut berarengan.

Horretaz gain, haur batzuen urduritasun berezia nabaritu dut; normalean baino itsatsiago eduki ditut haurrak egun osoan zehar, nirekiko kontaktu konstantea eskatuz (begirada, eskua ematea, euren jolasetan parte hartzea, etab.). Izan ere, atzo arratsaldean mintegia eduki nuenez, une hori aprobetxatu zuen irakasleak ostiralean nire azken eguna dela azaltzeko haurrei. Horregatik, biharko eguna gertu ikusi dutenez, urduritasun eta kezka berezia suertatu da gelan; behin eta berriz galdetu didate haur desberdinek ea bihar etorriko naizen...

Beraz, biharko eguna berezia izango denez, emozioen inguruko azken jarduera burutzea pentsatu dut: Maringo harraren jarduera. Asko gustatu zaien jarduera izan da eta emozioen atalari amaiera emateko aproposa. Zirraraz eta irrikaz aritu dira eskulana burutzen.

2020/01/24 OSTIRALA

Gaurkoa, nire praktikaldiko azken eguna, emozioz beteriko eguna izan da bai haurtzat bai niretzat. Goizean, klase normalak eman ditugu baina irakasle batzuekin egon naizen azken momentua/klasea izan denez oso berezia izan da niretzat.

Arratsaldean, nire tutorearekin eduki dugu klasea eta “merendola” txiki bat egin dugu ni agurtzeko. Oso une berezia eta hunkigarria izan da, haurrak besarkatzera hurbildu dira, ez dutela ni joaterik nahi esanez hasi dira batzuk eta beste batzuk negarrez. Ni neu ere, nahiz eta nire emozioak kontrolatzen saiatu, ezin izan diot negarrari eutsi eta asko hunkitu naiz. Hala ere, amaieran denak agurtu ditut irribarre batekin eta haur denak irribarrez uzten saiatu naiz.

TAILERRA EBALUATZEKO TXANTILOIA:

TAILERRA AMAITZEAN BETE BEHARREKO TXANTILOIA				
INDIKADOREAK	BAI	BATZUETAN	EZ	OHARRAK
Jarduera guztiak izan dira egokiak	X			<ul style="list-style-type: none"> - Oso gustura, gogotsu eta parte hartzeko gogoarekin (HAURRA 3 izan ezik) aritu dira jarduera guztietan. -Batzuetan ematen ez zaien protagonismoa ematea lortu dut, modu desberdin batean ikastera motibatuz. -Haurren dibertsitate egokituriko jarduerak izan dira guztiak.
Denboralizazioa egokia izan da	X			<ul style="list-style-type: none"> -Denboralizazioa egokia izan da, haurren erritmora egokitu naizelako. Nahiz eta tutorearen ordutegiaren menpe egon, jarduera guztiak burutu ahal izan ditut haurren erritmoa errespetatuz, behar zituzten eta ahal izan ditudan saioak erabiliz. Aipatu beharra dut, erabili ahal nituen saioez baliatuz denboraz ongi ibili naizela, ez dudala denbora gehiago eskatu behar izan jarduerak burutzeko. -Jarduerak amaitzen zituzten heinean tutorearekin egin beharreko fitxak egitera

				igarotzen ziren edota bestela euren txokoetan jolastera.
Jarduera aurrera eramateko hautatu den espazioa egokia izan da	X			<p>-Jarduerak burutu diren espazioak egokiak izan dira.</p> <p>-Hurrek mugitzeko lekua izan dute behar izan dutenean.</p> <p>-Gela handia denez talde handian egindako jarduerak zein talde txikietan eginikoak aurrera eramateko arazorik ez du suposatu espazioak.</p> <p>-Nire jarduerak amaitu ostean bestelako jarduerak egiteko edota txokoetan jolasteko aukera izan dute, ez du trabarik suposatu nik beste espazio batzuk erabiltzeak.</p>
Taldekatzea egokia izan da	X			<p>-Tutorearekin batera adostuta taldeak berriro genituen urtarrilean, gabonetatik bueltan, eta talde hauek erabili ditut jarduerak talde txikietan egiten aritu naizenan.</p> <p>-Taldekatzea oso egokia izan dela iruditzen zait, talde misto bakoitzean maila desberdina duten haurrak nahasturik daudelako. Elkar asko laguntzen dute eta konfiantza dute euren artean.</p>
Jarduerak dinamikoak izan dira	X			<p>-Jarduerak oso dinamikoak izan dira. Haurren interesetatik abiatu naiz hauek planteatzerako unean. <i>Koloretako Munstroa</i> album ilustratua oso gustuko dutenez, horretaz baliatu naiz euren atenzioa eta interesa pizteko. Gainera, hau aitzakiatzat hartuta jarduera desberdinak elkarrekin lotzea eta lantzea lortu dut; beti ere fokoa landu beharreko gaian jarritz.</p> <p>-Aho-bizi eta belarri-prest jarduera eta termometro jardueraren denboralizazioa esate baterako, eurek erabaki dute, eurek eman diote amaiera jarduerari. Talde bakoitzarekin gutxi gorabehera denbora tarte berdina igaro dut jarduera bakoitza burutzen. Hala ere, euren artean denbora desberdintasun batzuk eman dira, haurren interesaren arabera moldatu bainaiz talde bakoitzera, erritmoa, interesa zein gogoia kontuan hartuz.</p>
Jarduerak haurren interesa sustatu dute	X			<p>-Jarduera guztietan ikusi ditut jarduera/jolasa egiteko gogoz. Jarduera berriak eta desberdinak izan direnez interes eta jakin-min handia sorrarazi die.</p>

				-Amaierako jarduera gustatu zaie gehien, izan ere, plastika txokoan daudenean orri zuriak, errotulagailuak, margoak, artaziak eta kola soilik erabil ditzakete. Jarduera horretan aldiz, ponpoiak, kola zuri likidoa eta arropa eskegitzeko pintzak erabili dituzte. Eroso sentitu dira eskuak zikinduz, motrizitate fina landuz...
Jarduera zehatzen bat asko kostatu zaie aurrera eramatea		X		-Jardueretan egin beharrekoan zailtasunik izan ez badute ere, euskal-mintza bultzatzea ere helburu izan dudanez (ikastetxeak berebiziko garrantzia ematen dio euskara lantzeari), alderdi hau izan da gehien kostatu zaiena. Hori dela eta, gazteleraz azaltzen utzi diet, emozioak hobeto espresatzen dituztelako euren ama hizkuntzan. Hala ere, beraiek gazteleraz azaldutakoa nik euskaratu dut, belarria egiten eta hiztegia zabaltzen joan daitezten.
Zein da gehien gustatu zaien jarduera?				Gehien gustatu zaien jarduera eta ondoen pasatu dutena azken jarduera izan da, goiko item batean azaldu dudana bezala.

PRAKTIKALDIAREN AMAIERAN BETE BEHARREKO TXANTILOIA

Buruturiko jarduerak zerbaiterako balio izan dute	X			-Burututako jarduera guztiek balio izan dute; jarduera bakoitzak lantzea helburu zuen alderdia jorratzea ahalbidetu du, emozioen inguruan ezagutza zein trebetasun desberdinak zabalduz. -Egunerokoan ikusten den moduan eta lanean zehar aipatu bezala, HAURRA 3k ez du parte hartze aktiboa izan jarduera guztietan. Hala ere, nahiz eta jarduera batzuetan aktiboki ez parte hartu, bere taldekoak behatzea gustatu zaio, eroso sentitu da une horietan eta nire ustez besteen moduan alderdi desberdinak lantzea lortu du, nahiz eta zuzeneko eran ez izan. Izan ere, batzuetan besteak ikusteak/behatzeak ere laguntzen du ikasten.
Emozioen inguruan hasiera batean baino ezagutza handiagoa eskuratu dute haurrek	X			-Emozioen gaia landutako egunetan zehar emozioen inguruko hainbat komentario eta elkarrizketa entzun ditut euren artean; baita irakasleoi zuzenduta ere. Komentarioak, esate baterako, triste sentitzen dela amak ez diolako utzi eskolara jostailu bat eramaten, txakurtxo bat eduki nahi duela baina aitak ez duenez nahi berarekin haserre dagoela, triste

			<p>dagoela HAURRA Xek ez duelako berarekin jolastu nahi... bezalakoak dira.</p> <p>Lehen adibidez, haur batek beste haur batekin jolastu nahi ez bazuen, bestearekin jolastu nahi zuen haurra besteak ez duela jolastu nahi esanez etortzen zen irakasleongana, haserrealdian guk esku-hartzeko. Orain aldiz desberdina da, kasu horietan haurrak etorri eta triste daudela esaten dute, beste haurrak berarekin jolastu nahi ez duelako edota haserre dagoela... Hau da, emozioak hitzez azaleratzen dituzte.</p> <p>-Besteen lekuan jartzea geroz eta gutxiago kostatzen zaiela nabaritu dut. Besteen sentimenduekiko suposizio gehiago egiten dituzte eta oro har suposizio zuzenak izaten dira.</p> <p>-HAURRA 3ren kasuan, nahiz eta protagonismo handia eskatzen duten jardueretan zuzenki parte hartzen ez ausartu, apurka-apurka bere buruarengan geroz eta konfiantza gehiago eskuratzen ari dela hauteman dut; gero eta seguruago dago bere buruaz eta egiten dituen ekintzez.</p>
Jarduerak Bisquerraren 5 blokeak garatzen lagundu dute	X		<p>-Jarduerak Bisquerraren 5 blokeak lantzeko planteatuak zeuden eta proposaturiko modu berean eman direnez aurrera, esan daiteke 5 bloke horiek lortzea edota gehiago garatzea zein lantzea lortu dela.</p>
Burututako jardueraren bat errepikatze eskatu dute haurrek	X		<p>-Zehazki ipuinak irakurtzea asko gustatzen zaienez eta orokorrean ez dietenez asko irakurtzen (ez ikastetxean, ez etxean), emozioen inguruan eskainitako ipuinak irakurtzea asko eskatu didate.</p> <p>-Koloretako munstroaren erruleta hiru aldiz erabili behar izan dut haur batzuekin. Asko gustatu zaie jarduera eta arrazoï zein bzipen desberdinak azalduz aritu dira jarduera hori aurrera eraman den egun zein tartetan.</p> <p>-Gutunaren jarduerari dagokionez, nahiz eta ez eskatu jarduera berriz egiteko, "plastika txoko"-ra joan ziren haur askok egin zuten beren gutun propioa gurasoentzat, lagun batentzat...</p> <p>-Kutxa magikoen jarduerari erreparatu, jarduera oso dibertigarria iruditu zitzaenez, urrango egunetan berriz nahi dutela egin esanez aritu dira.</p>

				-Maringo harraren jarduera aldiz, berriz egin nahi dutela esan dute, baina urrengoan ere Maringo egin beharrean, estilo bereko beste eskulan bat eskatu didate. Hau da, eskulanak egitea oso gustoko dute baina ez dituzte egiten normalean ikastetxean. Horregatik, nirekin eskulan desberdinak egin nahi dituzte.
Hurrek euren artean, familian zein irakaslearekin emozioak azaleratzera bultzatu zuten jarduerak fruituak eman dituzte	X			-Bai. Lehenago aipatu bezala, lehen emozioak azaleratzen edo hitzen bidez azaltzen ez zituzten arren, orain lehen baino gehiago azaleratzen dituzte, lotsa gutxiagorekin. Ez zaie kostatzen hitzez azaltzea nola sentitzen diren une desberdinetan. Gainera, ez dago galdetu beharrik askotan, beraiek hurbiltzen dira nola sentitzen diren aipatuz eta batzuetan guk galdetu gabe sentimendu horren zergatia azalduz.
Haurren ongizatean aldaketa on nabarmenak eman dira (lasaiago daude, emozioak erraz erregulatzen dituzte, etab.)		X		-Aldaketa txiki batzuk eman diren arren, denbora oso gutxian landutako alderdia izan da emozioena. Hori dela eta, aldaketa handiak ez dira suertatu oraindik. Hala ere, HAURRA 3ren hobekuntza aipagarria da. Baita HAURRA 1ena ere. Egia esan, mindfulness egiten dugunean geroz eta lasaiago sentitzen da jarduera aurrera doan bitartean. Hau lorpen handia dela deritzot, hasiera batean negarrez hasten baitzen mindfulness-en unean. Nire ustez, konfiantza zein segurtasun eremua ez zeukalako egoki eraikia. Harremanak lantzeko ere lagundu dutenez jarduerak aspektu horretan hobetzen lagundu diotela uste dut. -Aipatu bezala, aldaketa nabarmenak emateko emozioen lanketa denboran zehar luzatzea ezinbestekoa da; bizitza osoan zehar lantzen eta garatzen joan beharreko alderdia baita.

Tailerra burutu ostean betetako behaketa taula honetan, ikus daitekeenez 1-5 bitarteko balioen arabeko estimazio-eskala erabili da. 1 zenbakia inoiz ez/batere ez adierazteko, 2 zenbakia gutxitan/gutxi adierazteko, 3 zenbakia batzuetan/erdizka adierazteko, 4 zenbakia askotan/ondo adierazteko eta 5 zenbakia berriz, beti/oso ondo adierazteko.

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Elkarren emozioak/sentimenduak eta hauen aurrean izandako jarrerak/jokabideak errespetatzen dituzte?				X	
Emozioak ozenki modu askean eta guztientzat azaleratzen dituzte?				X	
Gelan egoera desberdinen aurrean emozio ezberdinak agertzen direnean, irakaslearengana jotzen dute gertatzen dena azaltzeko?				X	
Emozioak kudeatzeko orduan zailtasunak badituzte irakaslearengana jotzen dute?				X	
Emozioak lantzeko beharra nabaritzen da?					X
Lotsati edo deseoroso sentitzen dira emozioen inguruan hitz egiten?				X	
Emozio negatiboak ulertzeko eta baloratzeko gai dira?				X	
Besteen emozioekiko enpatia erakusten dute? Besteen azalean jartzeko gai dira?				X	
Talde moduan jokatzeko dute. Hau da, ez dago inor bazterturik.					X
OHARRAK:					
<p>-Orokorrean beti errespetatzen dituzte besteen emozioak eta hauek bizitzeko moduak, momentu puntualak izan dira errespetatu ez direnak (haserre uneak, besteak beste).</p> <p>-Emozioak espresatzeko eta azaltzeko ohitura hartzen ari dira, asko aurreratu dute orokorrean alderdi honetan. Izan ere, orain ekintza “normaltzat” hartzen dute emozioak azaltzea, errutina moduan. Hala ere, oraindik ez da lortu guztiz modu askean, naturaltasunez, azaleratzea; gehiago sakontzen jarraitu beharreko alderdia da.</p> <p>-Ia denek gelan egoera desberdinen aurrean emozio ezberdinak agertzean, irakaslearengana jotzen dute gertatzen dena azaltzeko. Baina, oraindik badaude haur batzuk eta egon dira une konkretu batzuk non irakaslearengana jotzen ez duten lotsagatik, ez direlako ausartzen...</p> <p>-Emozioak kudeatzeko orduan zailtasunak badituzte ia guztiak irakaslearengana jotzen badute ere, oraindik badaude haur batzuk pausu hau ematen ez dutenak. Beraz, hau gehiago lantzea komeni da denboraren poderioz guztiak lortzeko pausu hau ematea.</p> <p>-Emozioak lantzeko beharra dago, nahiz eta egoera hobetu den oraindik ere gehiago hobetzea posible delako.</p> <p>-Nahiz eta lehen baino lotsa gutxiago adierazten duten emozioen inguruan hitz egitean, oraindik ere lotsaren mugak ez dira guztiz haustea lortu, ez da “normaltasun” osoa lortu alor honen inguruan.</p> <p>-Nahiz eta asko hobetu duten lehendik ona emozio negatiboak ulertzeko eta baloratzeko gaitasunari erreparatuz, oraindik ere lan gehiago egin behar da emozio negatiboak guztiz ulertzeko eta baloratzen ikasteko.</p> <p>-Orokorrean gehienek besteen azalean jartzeko gaitasuna garatua dute. Hala ere, badaude haur batzuk alderdi hau bereziki kostatzen zaienak, egoztrismotik oraindik urruntzea lortu ez dutenak. Oso gutxi dira, zehazki hiru haur.</p> <p>-Hasiera batean baztertzeko gertatzen baziren ere, orain talde bat direla ikusten da, ez da inolako bazterketarik somatzen. Oraindik agian badaude detaile batzuk hobetzeko, batez ere, taldeak egiterako unean harreman handia ez duten haurrak elkartzean.</p>					
HAUSNARKETA:					
<p>Nahiz eta orokorrean begiratuta emaitzak zein gaitasunak hobetzea lortu den, oraindik lan handia dago egiteko eta emozioak orain artean bezala lantzen joatea beharrezkoa da. Modu horretan, hutsuneak gehiago indartzea eta desagertaraztea lortuko da. Orokorrean gehien landu beharreko alderdiak emozio negatiboak ulertzen eta baloratzen ikastea eta emozioak naturaltasunez azaleratzen zein espresatzen ikastea dira.</p>					

18.eranskina

Eranskin honetan, Google Forms-en bidez sortutako formularioak eta hauei esker lortutako erantzunak jaso dira; ikus daitekeen moduan, zuzenean formularioaren plataformatik jasoak.

EMOZIOAK

Emozioak denboran zehar irautean, lehendabizi sentimendu bilakatzen dira, ondoren gogoaldarte eta azkenik izaera. Hau jakinda, argi ikus daiteke norberaren izaeraren eraikuntzan ezinbesteko papera betetzen dutela emozioek, modu batean edo bestean bizitzen laguntzen baitigute. Hori dela eta, haurtzarotik haurrei emozioen garrantziaz kontzientziatu eta hauek maneiatzen irakatsiz gero, etorkizunean zailtasun emozional gutxiago biziko dituzte, honek bizitza eta ongizatea erraztuz (Aierdi, Ezeiza eta Goikoetxea, 2010).

Hau kontuan hartuta, nire GrALa "emozioak eta eskola" sakontzeko asmoz, emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzako irakasleek duzuen iritzia jaso nahi izan dut; modu honetan teoria eta errealitatea alderatzeko aukera izango baitut. Horretarako, 16 galderaz osaturiko galdetegi hau prestatu dut non erantzun askeko 4 galdera ireki dauden eta erantzun mugatuko 12 galdera.

Aldez aurretik, mila esker galdetegi anonimo honetan parte hartzeagatik!

***Obligatorio**

1. Adina *

2. Sexua *

Marca solo un óvalo.

Emakumea

Gizona

Beste bat

3. Bizilekua *

Marca solo un óvalo.

Herria

Hiria

4. Zenbat denbora daramazu irakaskuntzan? *

5. Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

6. Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

7. Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

8. Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Batzuetan
 Ez dakit

9. Irakasleek formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzu alor honetan? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Ez dakit

10. Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzu irakasle moduan lanean aritu zarenetik? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Batzuetan
 Ez dakit

11. Lan egin duzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Batzuetan
 Ez dakit

12. Prestakuntza/formakuntza/ikastaro horiek zeure kasa aurkitu dituzu ala eskolak/ikastetxeak aholkatuta edo eskainita? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Batzuetan
 Ez dakit

13. Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Ez dakit

14. Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Ez dakit

15. Nola definituko zenuke hezkuntza emozionala?

16. Emozioen lanketan zein hutsune topatu dituzu? (Baldin eta hutsunerik topatu baduzu)

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios


EMOZIOAK

37 respuestas

[Publicar datos de análisis](#)


Adina

37 respuestas




Sexua

37 respuestas



Bizilekua

37 respuestas



Zenbat denbora daramazu irakaskuntzan?

37 respuestas

12

11 urte

15 urte

2 urte


10 urte

4 urte

9 urte


18 inguru

15




Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan?

37 respuestas




Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu?

37 respuestas




Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da?

37 respuestas




Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da?

37 respuestas




Irakasleek formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzue alor honetan?

37 respuestas




Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzue irakasle moduan lanean aritu zarenetik?

37 respuestas





Lan egin duzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzu?

37 respuestas




Prestakuntza/formakuntza/ikastaro horiek zeure kasa aurkitu dituzu ala eskolak/ikastetxeak aholkatuta edo eskainita?

37 respuestas




Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek?

37 respuestas



Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu?

37 respuestas



Nola definituko zenuke hezkuntza emozionala?

18 respuestas

oinarrizkoa

Ezinbestekoa

bitza osoko zikloa da. Emozioak ezagutu, esperimentatu, bizi, kudeatu, errespetatzen ikastea.

Gure bizitzarako hezkuntza garrantzitsuena


oinarrizkoa da

Beharrezkoa da, hezkuntza emozionalak sustatzen du dena.

oso garrantzitsua den hezkuntza mota, gaur egun guztiz lantzea lortu ez duguna

Basikoa

Momentuko sentimenduak identifikatzen eta honeek eragiten daben iarrerak era



Emozioen lanketan zein hutsune topatu dituzu? (Baldin eta hutsunerik topatu baduzu)

11 respuestas

denbora gutxiegi eskeintzen zaio etxeetan, beharbada ezjakintasuna dagoelako.

gehienbat irakasleon formakuntza aldetik hutsuneak daudela esango nuke, eta bestetik denbora falta

Ez dut topatu hutsunerik

Lehenik eta behin, irakasleon prestakuntza. Bigarrenik, emozioak gelan landu ahal izateko suposatzen duen denbora eta ez duguna, programaturik ditugun hainbat jardueren ondorioz.

denbora falta eta formakuntza falta

Haur txikiekin lanean, hizkuntzak eta ulermenak muga bat suposatzen dau, sentimenduei beraiek ala norberak izena jartzerako orduan. Bestetan, emozioaren deskarga horretan bidelagun izateko prest bagaude ere, haurrak ez du nahi izaten eta era bortitzean jarraitzen du.

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google. [Notificar uso inadecuado](#) - [Términos del Servicio](#) - [Política de Privacidad](#)

Google Formularios



EMOZIOAK

Emozioak denboran zehar irautean, lehendabizi sentimendu bilakatzen dira, ondoren gogoaldarte eta azkenik izaera. Hau jakinda, argi ikus daiteke norberaren izaeraren eraikuntzan ezinbesteko papera betetzen dutela emozioek, modu batean edo bestean bizitzen laguntzen baitigute. Hori dela eta, haurtzarotik haurrei emozioen garrantziaz kontzientziatu eta hauek maneiatzen irakatsiz gero, etorkizunean zailtasun emozional gutxiago biziko dituzte, honek bizitza eta ongizatea erraztuz (Aierdi, Ezeiza eta Goikoetxea, 2010).

Hau kontuan hartuta, nire GrALa "emozioak eta eskola" sakontzeko asmoz, emozioen lanketaren inguruan Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakaslegaiak duzuen iritzia jaso nahi izan dut; modu honetan teoria eta errealitatea alderatzeko aukera izango baitut. Horretarako, 16 galderaz osaturiko galdetegi hau prestatu dut non erantzun askeko 4 galdera ireki dauden eta erantzun mugatuko 12 galdera.

Aldez aurretik, mila esker galdetegi anonimo honetan parte hartzeagatik!

***Obligatorio**

1. Adina *

2. Sexua *

Marca solo un óvalo.

Emakumea

Gizona

Beste bat

3. Bizilekua *

Marca solo un óvalo.

Herria

Hiria

4. Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

5. Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

6. Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

7. Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

8. Irakaslegaiak unibertsitatean formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzu alor honetan? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Ez dakit

9. Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzu unibertsitatean irakaslegai izan zaren urte hauetan? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

10. Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egiteko aukerarik izan duzu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Batzuetan
- Ez dakit

11. Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Batzuetan
 Ez dakit

12. Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Ez dakit

13. Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
 Ez
 Ez dakit

14. Nola definituko zenuke hezkuntza emozionala? *

15. Praktikaldietan emozioen lanketan zein hutsune topatu dituzu? (Baldin eta hutsunerik topatu baduzu)

16. Gustatuko litzaizuke unibertsitateak alor honen inguruan gehiago prestatzeko/formatzeko aukera ematea? *

Marca solo un óvalo.

- Bai
- Ez
- Ez dakit

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios


EMOZIOAK

71 respuestas

[Publicar datos de análisis](#)


Adina

71 respuestas




Sexua

71 respuestas




Bizilekua

71 respuestas




Zure ustez oro har emozioen lanketa ematen da eskoletan/ikastetxeetan?

71 respuestas




Ematen den lanketa egokia da? Haurren beharrak asetzen ditu?

71 respuestas




Hezkuntza emozionala bere osotasunean lantzen da?

71 respuestas




Emozioak landu izan direnean familiekin elkarrekintza sustatu da?

71 respuestas




Irakaslegaiak unibertsitatean formakuntza egokia eta nahikoa jaso duzuela uste duzu alor honetan?

71 respuestas




Emozioen lanketaren inguruko prestakuntza/formakuntza/ikastaroak jasotzeko aukera izan duzu unibertsitatean irakaslegai izan zaren urte hauetan?

71 respuestas




Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egiteko aukerarik izan duzu?

71 respuestas




Praktikaldiak burutu dituzun eskoletan/ikastetxeetan emozioen inguruko prestakuntzarik/formakuntzarik/ikastarorik egin duzu?

71 respuestas




Prestakuntza/formakuntza/ikastaroa egin nahi izanez gero emozioen lanketaren inguruan, jakingo zenuke non topatu prestakuntza horiek?

71 respuestas



Emozioen lanketa aurrera eramateko Haur Hezkuntzara bideraturiko programarik ezagutzen duzu?

71 respuestas



Nola definituko zenuke hezkuntza emozionala?

71 respuestas

Ez dakit

Konplexua

Beharrezkoa


Emozioen adierazpenaren irakaskuntza-ikaskuntza

Emozio guztiak ezagutzea eta haiei aurre nola egin jakitea

Norberaren barnean dauden sentimenduak, emozioak... Identifikatzen eta azalarasteko eta era berean besteen emozioekin enpatizatze gaitasuna.

Emozioen inguruan ematen den hezkuntza.

Emozioak, sentsazioak eta emozioak sentitu eta kudeatzeko hezkuntza



Praktikaldietan emozioen lanketan zein hutsune topatu dituzu? (Baldin eta hutsunerik topatu baduzu)

24 respuestas

Kasu puntualetan lantzen dira soilik, hau da, haur batek X emozio sentitu duelako, emozio hori gelan agertuko ez balitz, uste dut ez zela landuko.

Egoera askoren aurrean ez dut jakin nola jokatu eta umeek dituzten arazo pertsonal batzuk gehiegi sentiría ditut, distantzia operazionala kontrolatu gabe eta gaizki pasatzen.

Emozioak adierazteko zailtasunak

Emozioen kudeaketaren lanketa hurrekin


Irakasle batzuek emozioei eta ikasleen sentimenduei garrantzia handia eman dieten arren, beste batzuek ez dituzte kontuan hartu

Lanketa eza

Sarri ez zaie umeen emozioei arrearatzen eta umeak sentitzen duena alde batera usten da, hori dela eta, umeek sarri ez dute sentitzen dutena ulertzen.

Gustatuko litzaizuke unibertsitateak alor honen inguruan gehiago prestatzeko/formatzeko aukera ematea?

71 respuestas



Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google. [Notificar uso inadecuado](#) - [Términos del Servicio](#) - [Política de Privacidad](#)

Google Formularios





19.eranskina

INDIKADOREAK	1	2	3	4	5
Emozio propioak identifikatzeko gai da?			1	5	19
Besteen emozioak identifikatzeko gai da?			2	5	18
Emozioak erregulatzeko gai da?		2	8	11	3
Autonomia emozionala garatua du?	1	1	4	7	12
Konpetentzia soziala garatua du?		1	4	6	14
Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia garatua du?		1	5	5	14
Emozioak azaleratzeko erraztasuna du?	2	1		11	10
Emozio/sentimenduak azaleratzeko beharra izan ohi du?	1		7	17	
Emozioak besteekin partekatzeko erraztasuna du?	1		1	11	12
Emozioak kudeatzeko zailtasuna duenean laguntza eskatzen edo bilatzen du?	1	1	5	13	5
Emozioak sexuaren arabera bereizten ditu?	22	1	2		
Emozio positibo zein negatiboak naturaltasunez bizi eta onartzen ditu?			2	15	7
Irakasleak emozioen inguruan luzatutako baliabideak/txokoak/jarduerak/proposamenak erabiltzen/parte hartzen du/ditu?		1		1	23
Bazterturik ikusten da.	18	3	3	1	

Haur bakoitzaren behaketa erregistrotik jasotako datuak uztartze dituen taula.

Taula honek emozioen barnean topa daitezkeen alderdiak/konpetentziak modu zehatzagoan adierazten ditu, haur taldearen egoera konkretuagoa eskainiz alderdi desberdin horietan. Taula argiago adierazteko, indikadore bakoitzari dagokion grafikoak ere egin dira, emaitza bisualagoa eta ulerterrazagoa izan dadin.